

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	BATXILERGOA	zikloa/maila	2
arloa/irakasgaia:	GAZTELANIA ETA LITERATURA		
osatutako arloak/irakasgaiak	----		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia. 2. Matematikarako konpetentzia. 3. Zientziarako konpetentzia. 4. Teknologiarako konpetentzia. 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa. 6. Arterako konpetentzia. 7. Konpetentzia motorra.		
irakasleak:		ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, gizartearen eta kulturaren hainbat esparrutakoak, batik bat ikaskuntzaren eta hedabideen arlokoak, bakoitzaren komunikazio-bereziatasunak kontuan hartuz eta haien edukia modu kritikoan interpretatuz, hainbat komunikazio-egoerari ganoraz aurre egiteko.	1. Ahozko nahiz ikus-entzunezko testuak interpretatzea eta balioestea, batik bat iritzi-testuak eta zientzia dibulгатzekoak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, kontuan hartuz beren funtzio soziala eta transmititzen dituzten balioak. 2. Gaur egungo gaiei buruzko ahozko aurkezpenak egitea, aldeztu aurreko eskema bati jarraituz, eta ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiliz.

2. Modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea eta interaktuatzea, ahoz nahiz idatziz, batez ere ikaskuntzaren arloan, errespetuz, elkarlanean eta espiritu kritikoarekin, hainbat komunikazio-egoerari eta -helbururi ganoraz aurre egiteko. 3. Hizkuntzaren osagaiei buruz gogoeta egitea, eta kontzeptu nahiz prozedura egokiak erabiltzea testuak hobeto ulertu, aztertu, iruzkindu eta sortzeko, eta ikasitakoa hobeto transferitu ahal izateko hizkuntzen artean. 4. Literatura-testu erreferentzialak irakurtzen gozatzea, modu autonomoan, beste mundu eta kultura batzuk ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko. 5. Espainiar literaturaren aldi, obra eta egile nagusiak ezagutzea, literatura-testuak hobeto ulertzeko, informazio-iturri analogikoak nahiz digitalak erabiliz, modu kritikoan. 6. Literatura-lanak modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, haien arte-izaeraren elementuak identifikatuz eta lan horiek kultura-tradizioarekin lotuz, haien bidez proiektio indibiduala eta kolektiboa ezagutzeko, eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko. 7. Euskal Autonomia Erkidegoko elebitasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, era horretan hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko. 8. Eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna aztertzea eta	3. Ikaskuntzarako ahozko harremanetan parte hartzea, modu aktiboan, gogoeta eginez, eta azalpen eta argudio egokiak emanez. 4. Idatzizko testu digitalak nahiz analogikoak interpretatzea eta balioestea, hainbat arlotakoak, batez ere hedabideetakoak (pertsoasio-testuak, iritzi-testuak eta zientzia dibulгатzekoak), kontuan hartuz beren funtzio soziala eta transmititzen dituzten balioak. 5. Idatzizko testuak sortzea, plangintza bati jarraituz, gaur egungo eta curriculumeko gaiei buruzkoak, hizkuntzaren eta literaturaren arlokoak, batik bat argudio-testuak, zorrotz, argi eta ortografia zein gramatika zuzenez. 6. Hizkuntzaren mailaiei buruzko jakintzak ezagutzea eta erabiltzea, gogoeta eginez eta modu autonomoan, testuak interpretatu eta sortzeko, batez ere argudio-testuak. 7. Ikasturtean zehar landutako literatura garaikideko lanen eta pasarte esanguratsuen edukia interpretatzea, literatura-formei, -aldiei eta -egileei buruz dakiena erabiliz. 8. Iruzkina kritikoak egitea, aldi eta mugimendu bakoitzeko lan esanguratsuak irakurriz. 9. Hizkuntza-aniztasuna ezagutu eta interpretatzea, modu kritikoan, soziolinguistikako ezaguerak erabiliz. 10. IKTak erabiltzea, autonomiaz, ganoraz eta espiritu kritikoan, informazioa bilatu, hautatu, jakinarazi nahiz zabaltzeko. 11. Gogoeta egitea hizkuntza guztietan egindako ikaskuntza-prozesuei buruz, norberaren gaitasunetan konfiantzarekin.
---	--

interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, haiekiko errespetua eta jarrera positiboa izateko.	
9. IKTak autonomiaz, modu kritikoan eta etikoan erabiltzea, informazioa eskuratu, hautatu eta prozesatzeko, eta gizarte- eta kultura-bizitzan komunikatzeko eta kooperatzeko.	
10. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko eta gero eta autonomia gehiagoz ikasteko konfiantzarekin.	

ARAZO EGOERA

1. unitatea: Testua

- **Arazoa:** Zein baliabide erabiltzen ditugu idatziz komunikatzerakoan?
- **Testuingurua:** Gaur egun oso ohituta gaude sare-sozialen bidez komunikatzera eta informazio guztia modu bisualean jasotzera. Horregatik, ikasleek arazoak izan ohi dituzte idatziz komunikatzerako garaian, eta are gehiago komunikazioa testuinguru formal batean ematen bada.
- **Azken ataza:** Klaseko aldizkaria sortzea ikasle bakoitzak idatzitako iritzi-artikuluarekin.

2. unitatea: Hitzen eraketa; maila lexiko eta semantikoa

- **Arazoa:** Zer da hitza? Zertarako erabiltzen dugu?
- **Testuingurua:** Komunikazio egoki baterako ezinbestekoa da hitzak modu egokian erabiltzea, bai lexikoaren aldetik eta baita semantikaren aldetik ere. Testu bat idazterako garaian akats lexiko eta semantikoak egiten ditugu askotan eta horrek testuaren ulermenean du eragina.
- **Azken ataza:** Lexiko eta semantikaren aldetik testu aberatsagoak sortzen ikastea. Horretarako, ordura arte idatzitako testuak moldatzuko ditugu.

3. unitatea: Sintaxia

- **Arazoa:** Nola izena du hitz desberdinen elkarketak?
- **Testuingurua:** Testuak modu egokian egituratzeko ezinbestekoa da esaldiak ondo eraikitzea. Ikasle askok, euskararen eragina dela eta, hizkuntza honen arauak erabiltzen ditu gaztelaniaz idazterako garaian, elementuak (subjektua, aditza, etab.) joan behar ez duten lekuan jarri.
- **Azken ataza:** Ordura arte egindako testuak sintaxia kontutan izanda zuzentzea.

4. unitatea: Espainiako nobela (1939 arte)

- **Arazoa:** Zeintzuk dira Gerra Zibilaren ondorioak jendearengan? Nola irudikatzen da egoera garai hartako nobelan?
- **Testuingurua:** Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939) izugarrizko ondorioak izan zituen bizitzaren esparru guztietan. Gerrak sistema politikoak konpondu ezin izan zuen krisi ekonomiko eta soziala ekarri zuen eta hau, noski, literaturan islatuta gelditu zen, besteak beste. Garai honetan gertatu zena ezagutzea oso garrantzitsua da Espainiako literaturaren zenbait ezaugarri ezagutu eta ulertzeko.
- **Azken ataza:** *Las Sinsombrero*-en inguruko talde lana, garai hartako emakumezko idazleak ezagutze aldera.

5. unitatea: Espainiako poesia (1939 arte)

- **Arazoa:** Nola irudikatzen da Gerra Zibilaren ondorengo egoera poesian? Nola transmititzen dituzte poetek haien sentimenduak?
- **Testuingurua:** Poesia Gerra Zibilaren (1936-1939) ondorioz sortutako egoera kritikatzeko tresnetako bat izan zen garai hartako idazleentzat. Hau gaur egungo gizartearen ere gertatzen den zerbait da, poesia eta musika erabiltzen baitugu gure sentimenduak adierazteko eta, besteak beste, gizartea, politika, etab. kritikatzeko. Horregatik, gaur egungo gizartea ulertzeko ezinbestekoa da aipatutako garaian gertatutakoa ulertzea eta idazleak nola adierazten ziren ezagutzea.
- **Azken ataza:** Ikasleek sortutako poemen bilduma.

6. unitatea: XX. mendeko antzerkia.

- **Arazoa:** Zer gertatzen da antzerkiarekin? Zein da gure gaur egungo antzerkia?
- **Testuingurua:** Antzerkiak publikoa behar du, bestela ez baitu funtzionatzen. Gaur egun antzezlanak ikustera oso gutxatan joaten bagara ere, antzeko ekintzak egiten ditugu: sare-sozialetan zintzilikatutako bideoak ikusten ditugu, adibidez, zeinak ikuslerik gabe ez diren ezer. Antzekotasun honen bidez, ikasleak garai hartako eta gaur egungo egoera ezagutzera iritxiko dira eta hain desberdinak ez direla konturatuko dira.
- **Azken ataza:** *La casa de Bernarda Alba*-ren antzezlanaren grabatzea.

7. unitatea: XX. mendeko bigarren erditik gaur egun arteko nobela eta poesia

- **Arazoa:** Zein aldaketa jasan zituzten nobela eta poesiak Bigarren Mundu Gerra ondoren?
- **Testuingurua:** Gure gaur egungo gizartea ezagutzeko oso garrantzitsua da iraganean gertatutakoa ezagutzea. Horretarako biderik onenetako bat literatura da, bertan jasotzen baita nolakoa zen garai hartako egoera. Gainera, gaur egungo gizartea ez litzateke berdina izango XX.mendeko gerrak gertatu ez balira. Hortaz, gaur egungo gizartea ulertze aldera, ezinbestekoa da garai hartako literatura analizatzea.
- **Azken ataza:** *Nada* nobelaren *booktrailer*-a.

1. unitatea: Testua

- a) Testua eta bere propietateak.
- b) Azalpen eta argudio testuak.
- c) Kazetaritza-testuak: informazioa, iritzia eta limurtzea komunikabideetan.

2. unitatea: Hitzen eraketa; maila lexiko eta semantikoa

- a) Hitzen eraketarako mekanismoak.
- b) Hitzen esanahia.

3. unitatea: Sintaxia

- a) Perpausak eta sintagmak.
- b) Sintagmen osagaiak.
- c) Perpaus bakunen sailkapena.
- d) Perpaus elkartuak.
 - i) Perpaus koordinatuak.
 - ii) Mendeko perpausak.

4. unitatea: Espainiako nobela (1939 arte)

- a) Espainiar literatura 1898 eta 1939 bitartean.
- b) Modernismoa eta 98ko Belaunaldia.
- c) Mende hasierako nobela.
- d) 1927 inguruko nobela.

5. unitatea: Espainiako poesia (1939 arte)

- a) XX. mende hasierako poesia. Modernismoa.
- b) Abangoardiak.
- c) 27ko Belaunaldia poesian.

6. unitatea: XX. mendeko antzerkia

- a) Valle-Inclán eta García Lorca.
- b) Antzerkia 1940tik aurrera.

7. unitatea: XX. mendeko bigarren erditik gaur egun arteko nobela eta poesia

- a) Gerraostea.
- b) Erbesteko espainiar literatura.
- c) Nobela 1940-1970 bitartean.
- d) Nobela 1970tik gaur egun arte.
- e) Poesia 1940-1970 bitartean.
- f) Poesia 1970tik gaur egun arte.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA

1. MULTZOA. Ikasgai eta ikasturte guztien eduki komunak.
2. MULTZOA. Diskurtsoen aniztasuna: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.
3. MULTZOA. Diskurtsoen aniztasuna: irakurtzea eta idaztea.
4. MULTZOA. Hizkuntzari buruzko gogoeta.
5. MULTZOA. Literatura-diskurtsoa.
6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala.

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko.
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea.

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak.
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak.

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDEAK

- Apunteak, fotokopiak eta testu mota desberdinak ikasleen laguntzarako.
- IKT-ei dagokionez, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduera guztiak. Ikasleek bertan izango dute eskura behar duten material guztia (testuak, bideoak, eskemak, material gehigarria eta abar). Fitxategiak PDF formatuan igoko dira eta bideoak URL baten bidez txertatuko dira. Ikasleen lanak plataforma birtualaren bidez jasoko dira.

Ikasleen lanerako Drive-ek eskaintzen dituen programa kolaboratiboak erabiliko dira eta ekoizpena testu formatuan (Word edo Google docs) eskatuko zaie. Bestalde, mapa kontzeptualak, eskemak eta infografiak egiteko bestelako baliabideak ere erabiliko dira (Canva, Creately, Bubbl-us).

Pandemia egoeran Meet eta G-Suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, biak Alexia Classroom-en txertatuak, ikasleek ikasgaia etxetik jarrai dezaten eta material guztia eskura izan dezaten.

TALDEKATZEAK

Gehienbat bakarka, baina binaka eta hiru edo lau pertsonako taldeetan ere antolatuko gara, betiere ariketa bakoitzak ematen dituen aukerak kontutan izanda.

ESPAZIO-DENBOREN ANTOLAKETA

- Normalean ikasgela erabiliko da, baina noizbehinka, beharraren arabera, IKT gela ere erabiliko dugu.
- Astean hiru saio dira. Hiruhilerokorako aukeratutako edukiak lantzeko, hasiera fasea, garapen fasea eta aplikazio eta komunikazio faseak burutuko dira unitate didaktiko bakoitzean.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

- Galdera edo bestelako baliabideen bidez (artikuluak, bideoak, etab.) ikasleengan interesa piztuko du eta haien aurre-ezagutzak jasoko ditu.
- Gaiak azalduko ditu, ikasle guztiek edukiak uler ditzaten. Horretarako, beste hainbat tresna baliatuko ditu (power point-a, adibidez).
- Edukiak sakontzeko eta ikasitakoa errealitatearekin lotzeko jarduerak eta ikertze eta aplikatze ekintzak proposatuko ditu.

IKASLEEN EGINKIZUNA

- Ariketak egingo dituzte gaiak barneratu eta sakontzeko helburuarekin. Ondoren, irakasleari zuzentzeko emango dizkiote eta behar izanez gero berriro egingo dituzte.
- Indibidualki zein taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.
- Ikasten ikasteko gaitasunaren bidez, jarduerak egiteko eta edukiak barneratzeko teknika egokienak erabiltzea.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
Ebaluazio bakoitzean kontrol bat egingo da gutxienez eta, beharra badago, beste bat egingo da. Bestalde, ebaluazio bakoitzean literaturako atalarekin erlazionatutako taldeko lan bat egingo da. Azkenik, portfolioa erabiliko da. Ikasleek egindako testu-iruzkin guztiak zuzenduko dira eta ebaluazio bakoitzaren amaieran landutako gai bakoitzetik testu-iruzkin bat entregatzea eskatuko da, ikasleen eguneroko lana ebaluatzen helburuarekin.	Egiten diren kontrolek notaren gehiengoa balioko dute, %70a alegia. Talde lanek %20ko balioa izango dute eta ebaluazio amaieran entregatutako testuek %10eko balioa. Horrez gain, klaseko parte-hartzea eta ariketak egiteko inizatiba ere kontuan hartuko da.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]	
Ebaluazioa jarraia edo etengabea izango da; 1. eta 2. ebaluaziotan ez da errekupeaziorik izango. Ebaluazio berriak aurreko azterketa gainditzeko aukera ematen du. 3. ebaluazioko azterketa gainditzeko ez dutenek, 1. deialdiko azterketara aurkeztu beharko dute, hau kurtso osokoa izanik. 1. deialdiko azterketa gainditzeko ez dutenei, nahiz gai osoa nahiz ebaluazio bakarra izan, hori bera geratuko zaie 2. deialdirako. Kurtsoko batez besteko nota igo nahi dutenek ekainean, hau da, 1. deialdian, egin behar dute azterketa, non kurtso osoko materia sartzen den.	

OHARRAK

--

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa

ikastetxea:	Oiartzo Batxilergo ikastola	kodea:	013379
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila:	2
arloa/irakasgaia:	Euskal Hizkuntza eta Literatura		
osatutako arloak/irakasgaiak	----		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1.Hainbat esparrutako hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak, analogikoak zein digitalak ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea, xede pertsonalak, sozialak edo akademikoak erdiesteko. 2.Esparru pertsonal, sozial edo akademikoen berezko hitzezko eta idatzizko testuak eta ikus-entzunezko analogiakoak eta digitalak sortzea, eraginkortasunez erantzuteko askotariko komunikazio-beharrazane. 3.Hizkuntzen erabilera araei eta hizkuntzen sistemari buruzko jakintza zuhertasunez eta autonomiaz erabiltzea hitzezko eta idatzizko testuak sortu eta ulertzean, komunikazio egoki eta eraginkorrak egiteko. 4.Literatura testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita, eta horren bidez, mundua ulertzea, literatura ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatze modu gisa balioestea, norberaren kultura nortasuna eraikitzea eta sentsibiltate estetikoa garatzea. 5.Gure gizartearen hizkuntza eta kultura aniztasuna aitortzea eta balioestea, aniztasun horrekiko jarrera ona izateko.		
irakasleak:	Aitzpea Aizpurua	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, gizartearen eta kulturaren hainbat esparrutakoak, batik bat ikaskuntzaren eta hedabideen arlokoak, bakoitzaren komunikazio-berezitasunak kontuan hartuz eta haien edukia modu kritikoan interpretatuz, hainbat komunikazio egoerari ganoraz aurre egiteko.	-Ikasleak badakien gai nagusia eta bigarren mailakoak bereizten. Laburpen egokiak egiten dituen. Erregistro egokia erabiltzen duen. -Badakien bere iritzia ematen arrazoibideetan oinarrituta. Argia eta koherentea den. -Osagai implizituak ondorioztatu eta baliatzen dituen. Komunikazio egoeraren ezaugarriak identifikatzen dituen. -Ea errespetatzen dituen zuzentasun arauak. Saihesten

2. Modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea eta interaktuatzea, ahoz nahiz idatziz, batez ere ikaskuntzaren arloan, errespetuz, elkarlanean eta espiritu kritikoarekin, hainbat komunikazio egoerari eta helbururi ganoraz aurre egiteko. 3. Hizkuntzaren osagaiei buruz gogoeta egitea, eta kontzeptu nahiz prozedura egokiak erabiltzea testuak hobeto ulertu, aztertu, iruzkindu eta sortzeko, eta ikasitakoa hobeto transferitu ahal izateko hizkuntzen artean. 4. Literatura testu erreferentzialak irakurtzen gozatzea, modu autonomoan, beste mundu eta kultura batzuk ulertzeko eta sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko. 5. Euskal literaturaren aldi, obra eta egile nagusiak ezagutzea, literatura testuak hobeto ulertzeko, informazio iturri analogikoak nahiz digitalak erabiliz, modu kritikoan. 6. Literatura lanak modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, haien arte izaeraren elementuak identifikatuz eta lan horiek kultura tradizioarekin lotuz, haien bidez proiektio indibiduala eta kolektiboa ezagutzeko, eta norberaren kultura nortasuna eraikitzeke. 7. Euskal Autonomia Erkidegoko eleaniztasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, era horretan hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko eta euskara erabiltzeko. 8. Eleaniztasuna nahiz kultura aniztasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, haiekiko errespetua eta jarrera positiboa izateko. 9. IKT autonomiaz, modu kritikoan eta etikoan erabiltzea, informazioa eskuratu, hautatu eta prozesatzeko, eta gizarte eta kultura bizitzan komunikatzeko eta kooperatzeko. 10. Norberaren ikaskuntza prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio ezaguerak eta estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko eta gero eta autonomia gehiagoz ikasteko konfiantzarekin.	ote dituen ukipen-egoeragatik sortutako kalkoak. -Gelan landutako literatura-mugimenduetako egile eta lanak ezagutzen dituen, eta dagokien testuinguru historiko eta kulturalean interpretatzen badakien. -Baliatu dituen informazio-iturrietan lortutakoaz erabilera sortzailea egiten duen, komeni zaiona bakarrik erabiliz, iturri desberdinetako informazioak elkarren artean konparatu eta osatuz, eta besterik gabeko kopiatze soila egin gabe. -Sortzen dituen testuek betetzen dituzten agindutako gutxienekoak (komunikazio egoerari egokitzea, genero ezaugarriak, komunikazio asmoa betetzea...)
---	---

ARAZO EGOERA

• 1. Nola egiten da? Azken ataza: Gelaren aurrean zerbait egiten erakusteko saioa. • 2. Erosi nahi? Azken ataza: Euskara saltzeko kartela. • 3. Zer gertatu, gertatzen, gertatuko da? Azken ataza: Aldizkari bat. • 4. Nola esaten da euskaraz? Azken ataza: Antzerki baten itzulpena. • 5. Entzuten zait? Azken ataza: XIX-XX mendeetako antzezlan bat antzeztea taldeka • 6. Hobeto esaterik? Azken ataza: Hitz kutun bati buruzko lanketa	
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

1. Ebaluazioa

Diskurtoen ugaritasuna

Hedabide testuak (kazetaritza, publizitate...)

Egitura, generoak, ezaugarriak e.a. ahoz nahiz idatziz

Literatura diskurtoa

Bertsolari erromantikoak.

Hizkuntzari buruzko gogoeta

Hizkuntza unitateekin zerikusia duten kontzeptuak sistematizatzea, eta erabiltzea testuak hobeto ulertu eta sortzeko.

Baldintzazko eta aginduzko perpausak

Hizkuntzaren dimentsio soziala

Inguruko hizkuntzekiko ukipen-fenomenoak

2. ebaluazioa

Diskurtoen ugaritasuna

Eskola eta gizarte esparruko testuak

Egitura, generoak, ezaugarriak e.a. ahoz nahiz idatziz

Literatura diskurtoa

XX. mende hasierako antzerkia.

Hizkuntzari buruzko gogoeta

Modalizazioa, deixia.

Inpertsonaltasuna. Pasibotasuna.

Hizkuntzari buruzko gogoeta

Hizkuntzak komunitateen nortasunaren bideragarri.

3. ebaluazioa

Diskurtoen ugaritasuna

Edozein esparrutako testuak

Egitura, generoak, ezaugarriak e.a. ahoz nahiz idatziz

Literatura diskurtoa

Gerrako pizkundetik gaur egunerako poesia

Narratibaren bilakaera, XX. mendean.

Hizkuntzari buruzko gogoeta

Erregistroak, antolatzaileak.

Aditz forma bereziak.

Hizkuntzari buruzko gogoeta

Euskalki nagusiak identifikatzea. Datu garrantzitsuenak.

METODOLOGIA

EDUKIEN ANTOLAKETA

Edukiak multzo hauetan antolatuta daude:

- Ikasgai eta ikasturte guztien eduki komunei buruzkoak
- Diskurtoen aniztasunari buruzkoak: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea
- Diskurtoen aniztasunari buruzkoak: irakurtzea eta idaztea
- Hizkuntzari buruzko gogoeta
- Literatura-diskurtoari buruzkoak
- Hizkuntzaren alderdi sozialari buruzkoak

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatueta arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gaingintzeko ekintzak

BALIABIDEAK

Ez dago testu-libururik. Testuak eguneroko testu errealak izango dira (publizitatekoak, egunkarietan ageri direnak, internetez lor daitezkeenak).

Antzerkia lantzeko, taldetxo bakoitzari antzerki desberdina emango zaio. Bertso eta poesia hautatuak banatuko dira. (Itxialdian geratu beharrez gero, baliteke antzezlan ezin egin izatea.)

Alexia Classroom plataforma

Ikus-entzunezko materiala. Euskalkien mapak. Ikus-entzunezko materiala.

TALDEKATZEAK

Talde txikiak (2-3 lagun)

Talde handiak (5-8 lagun)

ESPazio-DENBOREN ANTOLAKETA

Hiru gela dira, 33-33 eta 34 ikaslekoak. Astean hiru saio dira. Oro har ez da gelatik atera behar izaten, beharrezko guztia bertan dago eta.

COVID dela-eta, ikasleen artean ahalik eta tarte gehien izan dezaten saiatzen gara.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

-Beharrezko azalpenak ematea. Ez da testu-libururik erabiliko.

-Ahozko nahiz idatzizko hainbat iturritatik testuak lortzea (egunkariak, irratia, telebistako iragarkiak...) gelan entzun/ikusi/irakurri eta aztertzeko. Azterketa horietatik abiatuz, ereduak eman eta ikasleei berdintsuak eginaraztea.

-Ikasleen lanak zuzentzea, zuzenketari jarraituz ikasleak egindako lana hobeto egiteko jarraibideak izan ditzan.

IKASLEEN EGINKIZUNA

-Irakaslearen azalpenak aktiboki jarraitzea.

-Agintzen zaizkion bakarkako lanak bere kabuz egitea (ahozko nahiz idatzizkoak), horretarako behar duen informazioa bilatuz. Lan horiek arduraz eta agintzen denerako eginak izatea.

-Talde txikitan egin beharreko lanetan arduraz aritzea, ekarpenak egiteko. Lan osoaren erantzule delako jarrera izatea.

-Talde handitan egin beharrekoetan ere ekarpenak egitea, lan osoaren erantzule delako jarreraz.

-Egindako lanetakoren bat hobeto egin dezakeenetan irakasleak esandakoari jarraituz, hura berriro egitea.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Ikasleak egin eta irakasleak jasotzen dituen lan guztiak kalifikatuko dira. Ebaluazioko azterketa bakarra izango da, nahiz eta kontrol txikiren bat ere izan daitekeen, lan bakoitzaren balio bera izango duena azken emaitzan. Ebaluazioa jarraitua da:	Ikasleak egiten dituen lan guztien batez bestekoak osatuko du ebaluazio bakoitzeko notaren laurdena (%25). Gainerako hiru laurdenak azterketan ateratako kalifikazioa izango dira (%75). Ikasturte amaieran izango du ikasleak nota igotzeko aukera, urte osoko gaiei buruzko azterketa baten bidez. Azken notaren biribiltzea irakasleak xedatuko du.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
Ikasleak egin dituen lan guztiak berriro egiteko aukera dauka, eta beti kalifikaziorik onena hartuko da kontuan. Ebaluazio bat berreskuratzeko ez da berreskurapen azterketarik egingo, baina gaindi daiteke hurrengo ebaluazioa gaingiduta. Hirugarren ebaluazioa berreskuratzeko 1. deialdia gaingiditu behar da. 1. eta 2. deialdietako azterketen bidez gaindi daiteke ikasturtea.	

OHARRAK

Itxialdian geratu beharra gertatuz gero, hemen aipatzen diren hainbat gauza (taldekatzeak, baliabideak, ebaluazio tresnak, edukien sekuentzia...) alda litezke. Kasuan kasuan adieraziko zaie ikasleei egoera berrian egin den aldaketa eta horren aurrean berek egin behar dutena.

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	
etapa:	BATXILERGOA	zikloa/maila	2
arloa/irakasgaia:	FILOSOFIAREN HISTORIA		
osatutako arloak/irakasgaiak			
diziplina barruko oinarritzko kompetentzia elkartuak			
irakasleak:	Josune Etxeberria Etxeberria	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako kompetentziak

1. HITZEZKO ETA HITZIK GABEKO KOMUNIKAZIORAKO ETA KOMUNIKAZIO DIGITALERAKO KONPETENTZIA : komunikazio egoki eta eraginkorrak egiten ikastea egoera pertsonal, sozial eta akademikoan. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu kritiko, sortzaile eta eraginkorrez erabiltzea.
2. IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA: lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza lantzea, ikasitakoa beste egoera batzuetara transferitzeko gaitasuna izateko. Pentsamendu analitiko, kritiko eta sortzailea landu: informazioa ulertuz, ikasiz, interpretatuz, ebaluatuz, hautatuz eta sortuz.
3. ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA: giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak betetzea; norberaren pentsamenduak, sentimenduak eta nahiak modu asertiboan adieraziz eta aldi berean besteenak adi entzutea eta kontuan hartzea. Taldean lan egiten ikastea nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneke lanetan lankidetzan arituz.
4. EKIMENERAKO ETA ESPIRITU EKINTZAILERAKO KONPETENTZIA: Ideiak eta proiektuak sortzea eta nork bere gain hartzea, proiektuen plangintza egitea eta haien bideragarritasuna aztertzea. Egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea.
5. NORBERA IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA: Norberaren sentimenduen, pentsamenduen eta ekintzen inguruan gogoeta egitea eta horien gainean egiten den balorazioari erreparatuta haiek sendotzea edo doitzea.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1-Filosofia-teoria eta korronteen arteko antzekotasunak eta diferentziak erkatzea, eta korronte horiek beren garai historikoekin eta paradigma kulturekin lotzea. (konpetentzia linguistikoa, eta Ikasten eta pentsatzen ikastekoa) 2- Ikasitako autoreen pentsamoldea ulertzea eta zuzen adieraztea hitzez eta idatziz. (Gaitasun linguistikoa, Ikasten ikasteko konpetentzia) 3 - Testu filosofikoak ulertzea, laburpen eta analisi egokiak egitea eta diskurtso koherenteak josten jakitea.(Gaitasun linguistikoa, Ikasten ikasteko konpetentzia) 4- Testuek adierazitako arazo filosofikoak identifikatzea eta horiek ikuspegi kritikoaz aztertu ondoren norberaren iritzia ematea arrazoituz. (Gaitasun linguistikoa,pentsatzen ikasteko eta norbera izaten ikasteko konpetentziak) 5- Besteen argudioak, proposamen filosofikoak, iritzia eta sinesmenen aurrean errespetuzko jarrera garatzea eta elkarriketa arrazionala eta ideien adierazpen librea egitea.(Elkarbizaitzarako eta norbera izaten ikasteko konpetentzia) 6- Zientzia eta teknologiaren aurrean dugun jarrera aztertzea.(Gizarte konpetentzia, Kontzientzia eta kultura adierazpenak) 7- Historiaren joanean egindako proposamen eta interpretazio filosofikoek gaur egungo gizartean izan dezaketen garrantziaz jabetzea eta era kritikoan baloratzea. (Gizarte konpetentzia, norbera izaten ikasteko konpetentzia) 8- Eguneroko gertaerei ikuspegi kritiko-erreflexibo batetik aurre egiteko baliabide intelektuak eta epistemologikoak eskuratzea. (Pentsatzen ikasteko konpetentzia)	Kalifikazio irizpideak: 1.Azterketa: Hautaprobaren eredura hurbilduko da ikasturteak aurrera egin ahala. Ebaluazioro azterketa bat egingo da gutxienez. Azterketako nota %80 izango da. 2.Ikasgelan egindako lana: azalpenak jarraitzea, ulertzea, parte hartze aktiboa,...Notaren %10 izango da. 3.Jarrera: parte hartzea, klaseko dinamika ez oztopatzea, eguneroko lana egitea,...Notaren %10 izango da.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

1. arazo egoera

Bizi zaren gizartean kulturaren aniztasuna, hau da, kultura desberdinak daude. Denek elkarrekin bizi zarete. Azken hilabete hauetan zure herrian arazoak sortzen ari dira, horregatik elkarbizitza bideratu behar da.

Ba al dute konponbiderik kulturen arteko gatazkek?

Taldeka antolatu eta informazioa bilketa, hautaketa eta antolaketa egin behar duzue.

Zer eragin izango luke gure gizartean?

Egin gogoeta kultura-aniztasunaren jatorriari buruz.

Bilatu komunikabideetan kulturen arteko gatazken benetako adibideak.

Gure mendebaldeko kultura beste batzuen gainetik edo azpitik dagoela uste duzu?
Arazoari irtenbidea emateko orduan aurkezpena egin beharko dute taldekideek.

1. ebaluazioa: 27 ordu

Irakasgaiaren aurkezpena (ordu 1)

AINTZINAKO FILOSOFIA

- Filosofiaren jatorria:presokratikoak (ordu 1)
- Sofistak eta Sokrates (3 ordu)
- Platon (12 ordu)
- “Errepublika VII.liburua”ren lanketa (4 ordu)
- Aristoteles (3 ordu)
- Filosofia Helenistikoa (3 ordu)

2. ebaluazioa: 30 ordu

ERDI AROKO FILOSOFIA

- Agustin Hiponakoa (8 ordu)
- “Bizitza zoriontsuaz” lanaren 2.kapituloaren lanketa (2 ordu)
- Tomas Akinokoa (ordu 1.)

BERPIZKUNDEA

- Berpizkundea (ordu erdi)
- Arrazionalismoaren ezaugarri orokorrak: Descartes (ordu erdi)
- Enpirismoa: Locke, Hume (ordu ordi)

ILUSTRAZIOA: ezaugarri orokorrak (2 ordu)

- Kant (9 ordu)
- “Zer da Ilustrazioa, galderaren erantzuna” lanaren lanketa (4 ordu)

3. ebaluazioa: 28 ordu

XIX.eta XX.MENDEETAKO FILOSOFIA

- Marx (2 ordu)
- Nietzsche (9 ordu)
- ECCE HOMO “Zergatik naizen patu bat” lanaren lanketa (4 ordu)
- Hannah Arendt: Gaitz absolutua (8 ordu)
- “Eichmann Jerusalem”Post Scriptum obraren lanketa (3 ordu)
- Simone de Beauvoir eta “emakumearen” kategoriaren problematizazioa (2 ordu)

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

METODOLOGIA

- Irakasleak azalpen teorikoak emango ditu: Testuinguratze historikoa, kontzeptuen azalpena, ikuspegi filosofikoak, gainontzeko pentsalariekiko harremanak eta gaur egungo munduarekin loturak.
- Testuen irakurketa komentatua, ikasgelan egingo da, testuek duten konplexutasun kontzeptual eta ulertzeko zailtasunagatik.
- Ikasleek, testu-analisiak, laburpenak, disertazioak eta egileen planteamenduen balorazio pertsonalak egingo dituzte.
- ikaslearen parte hartze aktiboa sustatu eta baloratuko da.
- Ikasleek talde lanak egin eta aurkeztuko dituzte.

BALIABIDEAK

Ibaizabal argitaletxeko Filosofiaren Historiako liburua.

IKT-ei dagokionean: Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko da ikasgaia prestatzeko beharrezkoa den guztia: programak, edukiak, testu iruzkinak egiteko aholkuak, jarduerak,... Informazioa biltzeko web orriak, Youtube, bilatzaileak, filmak ... erabiliko dituzte ikasleek. Pandemia egoeran, Alexian txertatuta , Meet komunikazio baliabidea erabiliko da, saioak jarraitu ahal izateko etxetik

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
Ebaluazio irizpideak: AZTERKETAK: - Ikasleak azterketako testuaren laburpena argi eta zehatz adieraztea, bertan agertzen diren ideiak eta ideia horien arteko lotura errespetatuz eta hitzez hitz errepikatu gabe. (puntu 1) - Azpimarratutako kontzeptuak ondo deskribatzea: hitzaren definizio orokorra (0,1), egileak zertarako erabiltzen duen (0,3) eta hitz horren eraginez sortzen den problematika (0,1) azalduz. - Disertazioa: Testuan planteatzen den gaiarekiko (tesiarekiko) bi ikuspuntu filosofiko ematea argudioz arrazoituak eta iritzi pertsonala azalduz (3 puntu) IKASGELAKO LANAK ETA TALDE LANAK - Landutako gai filosofikoei buruz egindako ulertze eta hausnartze lanaren emaitza argi eta koherentziaz idaztea. - Talde lanak ikasgelan aurkeztea. - Besteen iritzien, jarrera filosofikoen edo sinesmenen aniztasuna errespetatzea, eta hori guztia norberaren ikuspuntuak aberasteko, argitzeko eta probatzeko modutzat hartzea.	Kalifikazio irizpideak Hautaprobaren eredura hurbilduko da ebaluatzen tresna ikasturteak aurrera egin ahala. Ikasgelan egindako lana. Ebaluatzen tresna - Ebaluazioro azterketa bat egingo da gutxienez. Azterketak notaren %80 balioko du. - Ikasleak gaiarekiko duen jarrera eta klasean egiten duen lana kontuan hartuko da: notaren % 20 balioko du.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]	
BERRESKURAPEN SISTEMA - Azterketa gainditu ez duten ikasleei Kontzeptuak eta ideiak ulertzeko behar dituzten azalpenak jolas garaietan emango zaizkie (eskatzen baldin badute) - Errekuperatzeko azterketa egingo dute. - Nota igotzeko aukera izango dute berreskurapenetan. Nota igotzeko egindako azterketaren balioa %80koa izango da eta beste %20a jatorrizko notarena izango da. - Ohikoan eta ezohikoan, ikasleek gainditu gabe dituzten zatiak bakarrik berreskuratu behar dituzte.	

OHARRAK

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxea:	Oiertzo Batxilergoa	Kodea:	013379
Etap:	Batxilergoa	Zikloa/maila:	2. maila
Arloa/irakasgaia:	Espainiako Historia		
Osatutako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia - Arterako konpetentzia		
Irakasleak:	Andrea Etxaniz Olatz Mitxelena	Ikasturtea:	2021-22

ZEHAZKAKO KONPETENTZIAK

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Espainiako eta Euskal Herriko historiako gertakari, prozesu eta protagonistarik garrantzitsuenak identifikatu, aztertu eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea, bi errealitate historiko horien egungo konfigurazioan izan duten eraginaz jabetzeko. 2. Euskal Herriko eta Espainiako historia garaikideko gertakari eta prozesu historikoen garrantzitsuenak ezagutzea eta gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko loturak identifikatzea, guztiak beren konplexutasun osoan ulertzeko. 3. Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarritzko teknikak behar bezala erabiltzea, hainbat informazio aztertu, konparatu eta bateratzea, eta ikerketa historikoko lanak egitea (bakarka edo taldean), lehen eta bigarren mailako iturri historikoen garrantzia eta historialarien lana balioesteko.	1. Euskal Herriko eta Espainiako historiaren etapa handiak eta ezaugarriak identifikatzea eta denboran eta espazioan kokatzea, eta haien arteko aldeak eta antzekotasunak bereiztea. 2. Euskal Herriko eta Espainiako historiako prozesu historikoen garrantzitsuenak ezagutzea, eta gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko loturak identifikatzea. 3. Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarritzko teknikak erabiltzea, lehen eta bigarren mailako iturri historikoen betetzen duten zeregina balioestea, historialarien lana aintzat hartzea eta jakintza historikoa etengabe lantzen ari den prozesua dela ulertzea.

- | | |
|---|---|
| <ol style="list-style-type: none"> 4. Ikasgaiaren berezko edukiak ahoz zein idatziz behar bezala adierazi eta komunikatzea eta hainbat hizkuntza eta euskarritan adierazita dauden datu eta informazio historikoak hautatu eta interpretatzea, aztertutako prozesu historikoak behar bezala ulertzeko. 5. Datu historikoak biltzea eta, horretarako, denboran orientatzeko kategoriak (iragana, oraina eta etorkizuna), denbora-posizio erlatiboak (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia), iraupenak (faktikoa, koiunturala, egiturazkoa, iraupen laburreko, ertaineko edo luzeko fenomenoak) eta denbora-neurriak (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa) erabiltzea, gizartearen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzeko. 6. Euskal Herriko eta Espainiako egungo gizarteari eta iragan historikoari buruzko ikuspuntu propioak argudiatzea eta ikuspegi uniformistak eta lokalistak gainditzea, aniztasuna errespetatzeko eta demokrazian eta berdintasunean oinarritutako bizikidetzaren ahalbidetuko duten irtenbideak kolektiboki bilatzeko. 7. Gaur egungo gizartearen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historikoak aztertzea, eta dauden errealitateak eta egoerak ebaluatzea, haien inguruko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izateko eta, hainbat eskalatan, jardun alternatibo eraginkorrak sustatu eta abian jartzeko, era horretan pertsonen arteko eta gizarte-taldearen arteko harremanak hobetu daitezen. 8. Fenomeno historikoak zuzentzen dituzten prozesu eta mekanismoak aztertzea, eta egungo gizartearen bilakaeraren arrazoi ugariak ulertzea, historiaren ikuspegi orokor, arrazoitu eta kritiko bat izateko. 9. Egungo euskal gizartearen eta Espainiako gizartearen irudi plural eta integratzaile bat lantzea eta gizarte horien barne-heterogeneotasuna balioestea, haien bilakaera historikoaren ikuspegi orokor bat izateko. | <ol style="list-style-type: none"> 4. Egoki, berezkotasunez eta modu sortzailean adierazten dituen ikasgaiaren berezko edukiak, ahoz edo idatziz. 5. Zenbait unitate kronologiko erabiltzea denbora historikoa grafikoki irudikatzeko eta "aldaketa" eta "iraupen" nozioak adierazteko, eta zenbait garaitan eta lurralde-eremutan erabiltzea. 6. Egungo gizartearen ditugun eta Euskal Herriko eta Espainiako iragan historikoari lotuta dauden gai garrantzitsuei buruz dituen ikuspuntu propioak argudiatzea. 7. Gaur egungo auzi batzuei buruzko eztabaidetan parte hartzea eta haietan iritzi arrazoituak ematea gizarte-zientzietan oinarrituta, eta besteen iritziak errespetatzea. 8. Egungo gizartearen dauden hainbat gatazka eta erronkaren sustrai historikoak identifikatzea, eta informazio orokor eta historiografikora jotzea. 9. Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen arrazoiak eta ondorioak adieraztea, haien artean loturak egitea, eta ohartzea gizarte-gertakariekin hainbat arrazoi izan ditzaketela. 10. Euskal Herriko eta Espainiako egungo gizartearen irudi plural eta integratzaile bat lantzea, eta horretarako mota orotako informazioak aztertzea (sozialak, kulturalak, historikoak eta abar). 11. Euskal Herriko eta Espainiako gizarteek dituzten arazoen aurrean kontzientzia konprometitu, arduratsu eta aktibo bat garatzea. |
|---|---|

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

1. MULTZOA: Antzinako Erregimenaren krisia (1788-1833): Liberalismoa eta absolutismoa aurrez aurre.

- 1.1. Antzinako Erregimenaren krisia eta iraultza liberala Euskal Herrian.
- 1.2. Frantziako Iraultzaren eragina Espainian eta Euskal Herrian: Espainiaren eta Frantziaren arteko harremanak; Independentzia Gerra; iraultza liberalaren lehen saialdia, Kadizko Gorteak eta 1812ko Konstituzioa. Independentzia Gerra Euskal Herrian.
- 1.3. Frantziako Iraultzaren eragina Euskal Herrian.
- 1.4. Foruak eta liberalismoa Euskal Herrian, lehen gatazkak.
- 1.5. Fernando VII.aren erregealdia: absolutismoaren berrezarpena; Hirurteko Liberala; erreakzio absolutista. Amerika espainiarraren emantzipazioa: kriolloen protagonismoa; ondorioak Espainiarentzat.

2. MULTZOA. Estatu liberalaren eraikuntza gatazkatsua Euskal Herrian eta Espainian (1833-1874).

- 2.1. Karlismoa, absolutismoaren azken gotorlekua: ideiak eta gizartean izandako babesa.
- 2.2. Foruak eta liberalismoa Euskal Herrian.
- 2.3. Liberalismoa garaile eta sendo Isabel II.aren erreinaldian: lehen alderdi politikoak; militarren protagonismo politikoa; prozesu konstituzionala; izaera liberaleko araugintza ekonomikoa; klaseen gizarte berria.
- 2.4. Desamortizazioak eta ondorioak.
- 2.5. Seiurteko demokratikoa: 1896ko Konstituzioa eta monarkia isabeldarraren erortzea; beste aukera politiko batzuen bila, Amadeo I.aren erregealdia, Lehen Errepublika; Kubako gerra; kantoien altxamendua. Karlistaldiak eta ondorioak.
- 2.6. Foruen aboliziorako legea, 1876koa. Ekonomia-itunen ezarpena 1878an.
- 2.7. Espainiako langile-mugimenduaren hastapenak: langileen eta nekazarien bizi-baldintzak; Langileen Nazioarteko Elkartea eta korrante anarkisten eta sozialisten sorrera.

3. MULTZOA. Borboien berrezarkuntza: sistema politiko berri baten ezarpena eta finkapena (1874-1902).

- 3.1. Canovasen sistema: Errestaurazioaren sistema politikoa, eredu ingelesaren eragina, 1876ko Konstituzioa eta bi alderdiko sistema; alderdien txandatzea, kazikismoa eta hauteskunde-iruzurra.
- 3.2. Erromantizismoa eta nazio-nortasunen sorrera. Sistemaren aurkako mugimenduak: katalanismoa, euskal nazionalismoa, erregerionalismo galiziarra eta langile-mugimendua. Euskal nazionalismoa: jatorria. Sabino Arana: pentsaera eta jardun politikoa. Euskal nazionalismoaren bilakaera 1930era arte.
- 3.3. Euskal nazionalismoa: jatorria. Sabino Arana: pentsaera eta jardun politikoa. Euskal nazionalismoaren bilakaera 1930era arte.
- 3.4. Sufragismoa eta feminismoa.
- 3.5. Kubako arazoari aldi baterako emandako konponbidea.
- 3.6. Azken kolonien galera eta 98ko krisia: Kubako gerra eta gerra Estatu Batuekin; Parisko Ituna; erregerazionismoa.

4. MULTZOA. Iraunkortasun eta eraldaketa ekonomikoak XIX. mendean: garapen urria.

- 4.1. Demografia-erregimen zahar baten iraupena; Kataluniako salbuespena.
- 4.2. Nekazaritza babestu eta geldotua: errendimendu apalak.
- 4.3. Industrializazio urria: ehungintza Katalunian, siderurgia eta meatzaritza.
- 4.4. Eraldaketa ekonomikoak Euskal Herrian.
- 4.5. Industrializazioa: faktoreak eta lurralde-banaketa.
- 4.6. Langileen mugimendua: ideologia eta erakunde nagusiak. Euskal sozialismoa. Pentsamolde-aldaketa.

- 4.7. Garraio-sare kaskarra: geografia-baldintzak; trenbide-sarea.
- 4.8. Merkataritza: protekzionismoa eta librekanbismoa aurrez aurre.
- 4.9. Finantza-egoera: pezeta moneta-unitatea; banka modernoaren bilakaera; Ogasunaren arazoak; atzerri-inbertsioak.

5. MULTZOA. Berrezartze-sistemaren krisia eta monarkia erortzea (1902-1931).

- 5.1. Sistema modernizatzeko ahaleginak: Alfonso XIII.aren garaiko lehen gobernuen errebisionismo politikoa; errepublikarren eta nazionalista katalan, euskaldun, galiziar eta andaluziarren aurkakotasuna.
- 5.2. Kanpo-gertakarien eragina: Marokon egindako interbentzioa; Lehen Mundu Gerra; Errusiako Iraultza.
- 5.3. Gizarte-asaldura gero eta handiagoa: Bartzelonako Aste Tragikoa; 1917ko krisi orokorra; Andaluziako "hirurteko boltxebikea".
- 5.4. Annualgo Hondamendia eta ondorioak.
- 5.5. Primo de Riveraren diktadura: direktorio militarra eta direktorio zibila; Marokoko gerraren amaiera; diktaduraren erortzea; monarkiaren hondoratzea.
- 5.6. Hazkunde ekonomikoa eta demografia-aldaketak mendearen lehen herenean: Munduko Gerrak Espainiako ekonomian izandako eraginak; diktaduraren estatu-interbentzionismoa; erregimen demografiko modernorako trantsizioa; migrazio-mugimenduak; herritar ugariren jarduera-aldaketa, nekazaritza-tatik industriara.

6. MULTZOA. Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila nazioarteko krisi-testuinguru batean (1931-1939).

- 6.1. Biurteko erradikal-zedista: errestituzio-politika eta herritarren erradikalizazioa; Asturiasko iraultza.
- 6.2. Fronte Popularra: lehen gobernu-jarduerak; kolpe militarren prestaketa.
- 6.3. Gerra Zibila: altxamendu militarra eta gerraren bilakaera; gatazkaren nazioarteko dimentsioa.
- 6.4. Bi eremuen bilakaera: Espainia errepublikarra eta eremu "nazionala".
- 6.5. Gerraren ondorioak.
- 6.6. Gerra Zibila Euskal Herrian: euskal gizartearen banaketa gatazkaren aurrean, fronteen bilakaera
- 6.7. Lehenengo Eusko Jaurlaritza: 1936ko Autonomia Estatutua. Eusko Jaurlaritzaren ekintzak. Eusko Jaurlaritza erbestean.
- 6.8. Gerraren ondorioak.

7. MULTZOA. Espainia Europatik kanpo: diktadura frankista (1939-1975).

- 7.1. Hasierako etapa: frankismoko talde ideologikoak eta gizartearen zituen babesleak; kanpo-harremanak; Estatu berriaren egitura politikoa; autarkia ekonomikoa.
- 7.2. "Desarrollismoaren" urteak: garapen-planak eta hazkunde ekonomikoa; gizarte-eraldaketak; erregimenaren berrespen politikoa; kanpo-politika; erbestea, errepresioa eta gero eta aurkakotasun handiagoa frankismoari.
- 7.3. Frankismoaren amaiera: ezegonkortasun politikoa; kanpo-zailtasunak; 1973ko nazioarteko krisiaren ondorioak.
- 7.4. Kultura espainiarra frankismoan: kultura ofiziala, erbesteko kultura, sistematik kanpoko barne-kultura.
- 7.5. Diktadura frankista Euskal Herrian (1939-1959).
- 7.6. Diktadura frankista Euskal Herrian (1959-1975).
- 7.7. Garapen ekonomiko itzeletik krisira. Gizartearen aldaketak.
- 7.8. Errepresio politiko eta kulturala. Langile-gatazkak eta oposizio politikoa. ETAren sorrera. Euskal kultura frankismoan: euskara, hezkuntza, literatura, artea eta herri-kultura.

8. MULTZOA. Trantsizioa eta demokrazia Euskal Herrian eta Espainian 1975. urteaz geroztik gaur arte.

- 8.1. Diktaduratik demokraziara, Espainiako trantsizio politikoa: krisi ekonomikoa munduan; frankismoaren alternatiba politikoak, kontinuumoa, erreforma edo haustura; Erreforma Politikorako Legea; lehen hauteskunde demokratikoak.
- 8.2. Aro konstituziogilea: Moncloako itunak; Kataluniako eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurre-autonomiak; 1978ko Konstituzioa: Estatuko erakunde orokorren sorrera eta autonomia-erkidegoen Estatua.
- 8.3. Trantsizio demokratikoa Euskal Autonomia Erkidegoan (1975-1986): krisi ekonomikoa eta gatazka politiko eta sozialen ugaritasuna.
- 8.4. Gernikako Estatutua eta euskal erakundearen garapena: Espainiako Gobernuaren eta Autonomi Erkidegoen arteko eskumen banaketa. Euskal Autonomia Erkidegoaren berariazko kasua. Lurralde Historikoen Legea eta Itun Ekonomikoa: 1981ko Itun Ekonomikoaren ezaugarriak eta ordutik honako bilakaera.
- 8.5. Gobernu konstituzionalak: Estatuko gobernuen aldaketa politikoak gaur egunera arte.
- 8.6. Espainia OTAN erakundean sartzea; integrazio osoa Europan.
- 8.7. Terrorismoa eta giza eskubideen urraketa, jatorri politikoko indarkeriaren testuinguruan: ETA, GAL eta antzeko taldeak. Bere bilakaera gaur egunera arte, ETAK ekintza terrorista behin-betiko utzi duela adierazi arte. Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimen ikuspuntua: egia, justizia eta ordaintza.
- 8.8. Konpromisoa eta gizartearen eta erakundearen parte-hartzea giza eskubideen eta bakearen aldeko borrokan.
- 8.9. Espainiaren rola egungo nazioarteko testuinguru konplexuan.

METODOLOGIA [edukiaren antolaketa, jardueraren motak, baliabide didaktikoak, ikaslearen taldekatzeak, espazioaren eta denborearen antolaketa, irakaslearen eta ikaslearen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA:

- Ikasturte hasieran irakasleak apunteak banatuko ditu eta horietan oinarrituta esplikazioak emango ditu gai bakoitzean zehar. Ideia nagusiak lantzeko baliabide desberdinak erabiliko ditu:
 - Apunteetan oinarritutako **aurkezpenak** (PPT formatuan) erabiliko dira, hauen bidez gaiak ikasgelan landuaz.
 - Aurkezpenekin batera, gaiek eskatzen duten heinean, ikasgaiari loturiko **testu iruzkinen lanketa** ere egingo da, hauek Selektibitateko azterketa prestatzeko balioko dute:
 - Hauek lantzeko, irakasleak eskema oinarri bat luzatuko die ikasleei, eta honen gainean, iruzkina bera gauzatzeko argibideak emango ditu.
 - Iruzkina egin ahal izateko beharrezkoak diren testuak, ikasgaiaren plataforma digitala izango den Alexia Classroomen izango dituzte exekita.
 - Iruzkinen lanketa, modu kooperatiboa eta autoebaluazioa jarraituz gauzatuko da:
 - Ikasgela talde desberdinetan banaturik egongo da. Irakasleak iruzkinen lanketa gauzatu behar dela esaten duenean, bantatutako talde hauetariko bati eskatuko dio iruzkinaren lanketa. Ondoren, iruzkinak zuzendurik bueltatuko ditu.
 - Iruzkinaren lanketa zuzenean egokitu ez zaien gainerako ikasleek iruzkina bera egin beharko dute. Iruzkinaren zuzenketaz baliatzeko, beraien kideekin (egitea egokitu zaien taldekide eta zuzendua duten iruzkinarekin) alderatu beharko dute, beraien ongi duten edo ez konprobatzeko.
 - **Garatzeko galdera** ere izango da landu beharreko beste aspektu bat. Horretarako, gaiak lantzen diren heinean, ideien arteko lotura eta hauen ideia nagusiak barneratzeko prozedurak erabiliko dira.
- **Emakumeek** historia idatzian duten presentzia eskaxa ikusirik, gai bakoitzean, garaiari loturik, Espainia eta Euskal Herrian nabarmendu ziren emakumeen historiografia laburrak landuko dira:
 - Horretarako, aurkezpena (PPT formatuan) erabiliko da.
 - Lanketa hauen helburua, ikasgelan honen inguruko hausnarketa egitea izango da.
 - Ikasgelan ikusiko den material guzti hori, Alexia Classroomen izango dute kontsultarako ikusgai.
- **Oroimen historikoari** lotuta, bereziki Euskal Herrian jazotako gertaeren inguruko lanketa egingo da:
 - Hau burutzeko, "Oroimen harra" izeneko unitate didaktikoan oinarritutako saio berezia egingo da.
 - Hau ere, ikasgelako plataforma digitala den Alexia Classroomen izango dute eskuragarri.

DENBORALIZAZIOA:

1.º ebaluzioa:

- 1.1. Antzinako Erregimenaren krisia (1788-1833): Liberalismoa eta absolutismoa aurrez aurre
- 1.2. Estatu liberalaren eraikuntza gatazkatsua Euskal Herrian eta Espainian (1833-1874).

2.º ebaluzioa

- 1.3. Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila nazioarteko krisi-testuinguru batean (1931-1939).
- 1.4. Espainia Europatik kanpo: diktadura frankista (1939-1975).

3.º ebaluzioa

- 1.5. Trantsizioa eta demokrazia Euskal Herrian eta Espainian 1975. urteaz geroztik gaur arte.

IKT BALIABIDEAK:

Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduera guztiak. Hau da ikasgela birtualaren helbidea: [Alexia Classroom](#)

- Ikasmaterial guztia eskura izango dute plataforman (testuak, gelako apunteak, bideoak, material gehigarria eta abar).
- Indagaziorako eta informazioa biltzeko proposatzen diren web orrien estekak ere bertan izango dira eskuragarri; esaterako: [Ahotsak](#), [Artehistoria](#), "[Oroimen harra](#)" gaiarekin zer ikusia duten bideo link-ak.
- Ikasleek egin eta entregatu beharreko lanak word edo Google.docs formatuan izan beharko da.
- Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira klaseak zuzenean jarraitzeko. Horretarako, beharrezkoak diren sarbideak Alexia Classroomen izango dira.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
IDATZIZKO PROBA Ebaluazio bakoitzean idatzizko proba bat egingo da selektibitateko azterketa eredua oinarri harturik. Horrela azterketa bi atal ezberdinez osatuta egongo da: 1. Garaiaren garapena: Ebaluazioan zehar klasean landutako gaiaren inguruko galdera orokorra bat izango da. 2. Testu iruzkina: Ebaluazioan zehar klasean landutako testu iruzkin bat izango da. TESTU IRUZKINA Ikasle bakoitzak, ebaluazio bakoitzean irakasleak agindutako testu iruzkina egin beharko du, aurreko atalean adierazitako irizpideak jarraituta.	• Ebaluazioko nota, ikasleak egiten dituen lan guztien batz bestekoa izango da; testu iruzkina (%10) eta idatzizko proba (%90). Guztietan minimoa atera beharko da batezbestekoa egiteko. ◦ Idatzizko probak hurrengo ponderazioa izango du: ■ <u>Garaiaren garapena: 5 puntu</u> ■ <u>Testu iruzkina: 5 puntu</u> • Testu iruzkinetan, ebaluazio bakoitzean derrigorrezkoa izango da irakasleak adierazten duen testu iruzkina egitea. Honek, gehienez puntu bateko balioa izango du. Egin ezean, idatzizko proba gaingitu badu ere, eta batzbestekoak gaingituztat ematen badio ere, ez da ikasgaia gaingituko. • Nota igotzeko aukera egongo da ebaluazio guztietan. Nota onenarekin geratuko da ikaslea.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...] Ebaluazio bakoitzaren ondoren, errekupeazio azterketa bat egingo da aurreko azterketako irizpide berdinak erabiliz.	

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	BATXILERGOA	zikloa/maila	2
arloa/irakasgaia:	LATINA II		
osatutako arloak/irakasgaiak	----		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia. 2. Matematikarako konpetentzia. 3. Zientziarako konpetentzia. 4. Teknologiarako konpetentzia. 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa. 6. Arterako konpetentzia. 7. Konpetentzia motorra.		
irakasleak:		ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Latinezko testu laburrak itzuli, ulertu eta iruzkintzea, azkerketa morfosintaktikoa eginda eta modu kritikoan eta ulertuz irakurrita, antzinako Erromako gizartea eta kultura ezagutzeko eta interpretatzeko. 2. Eguneroko hizkuntzan eta terminologia zientifikoan nahiz teknikoan ageri den latindar lexikoa identifikatzea eta balioestea, latindar	1. Egile latindar klasikoen genero guztietako testu labur eta gero eta zailagoak hiztegiaren laguntzarekin aztertzea eta itzultzea. 2. Itzulitako testuak interpretatzea eta iruzkintzea. 3. Lexiko-elementu latindarrak identifikatzea, eta latinezko hitzen osaeran tartean diren eratorpen- eta osaera-prozedurak ezagutzea.

etimoak, aurrizkiak eta atzizkiak identifikatuz, hiztegia aberasteko, eta irakurritakoaren ulermena, mintzamena nahiz idazmena hobetzeko. 3. Latinaren oinarri eta egitura linguistikoak ezagutzea, zuzen erabiltzea eta ikasleen hizkuntzetakoekin konparatzea, latinezko testuak aztertu, itzuli eta interpretatzeko orduan haiek aplikatzeko, norberaren hizkuntza sakonago ezagutzeko, eta besteak errazago ikasteko. 4. Literatura-genero latindarretako testuak eta lanak aztertzeko eta modu kritikoan iruzkintzea, kontuan hartuz iturri primarioak erabili behar direla informazioa eskuratzeko, erromatar mundua hobeto ezagutu eta ulertzeko, eta haren kultura-ondarea aitortu eta balioesteko. 5. Erromatar kulturaren ekarpen nagusiak identifikatzea eta modu kritikoan aztertzeko, mendebaldeko zibilizazioaren ezaugarritzat joz, hartara geure historia eta kultura hobeto ulertzeko, eta ondare hori zaintzeko. 6. IKTak erabiltzea, autonomiaz, modu kritikoan eta etikoan, antzinako Erromaren historiako eta kulturako hainbat alderdiri buruzko informazioa bilatu, hautatu eta prozesatzeko. 7. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko eta gero eta autonomia gehiagoz ikasteko konfiantzarekin.	4. Hizkuntza jasoan eta hizkuntza teknikoan erabili ohi diren latinismo eta esamolde latindarrak identifikatzea eta haien esanahia azaltzea. 5. Esaldi eta testu latindarretan oinarritzko elementu morfologikoak eta hitz arruntak identifikatzea eta aztertzeko. 6. Esaldi eta testuetan latinaren oinarritzko elementu eta egitura morfologikoak identifikatzea eta aztertzeko, eta horretan, latinaren eta dakizkien beste hizkuntza batzuen arteko antzekotasunez eta desberdintasunez jabetzea. 7. Literatura-genero, egile eta genero bakoitzeko literatura-lan adierazgarrienak ezagutzea. 8. Zenbait generotako testu itzuliak irakurtzea, aztertzeko eta iruzkintzea, eta testu horien ezaugarri literarioak bereiztea. 9. Literatura latindarrak Mendebaldeko literaturari egindako ekarpenez ohartzea. 10. Latindar jatorriko etimoei bilakaera fonetikoko arauak aplikatzen jakitea, eta ondare-hitzen eta kultismoen arteko lotura semantikoak adieraztea. 11. Informazioa bilatzean, aukeratzean, komunikatzean eta zabaltzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo, eraginkor eta kritikoan erabiltzea. 12. Hizkuntzak ikasteen tartean diren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, eta horretan, bere gaitasunetan konfiantza izatea.
---	---

ARAZO EGOERA

1. unitatea: Errepasoa

- **Arazoa:** Gogoratzen al gara zer zen latina eta zein ziren bere berezitasunak?
- **Testuingurua:** Gai berriekin hasi aurretik oso garrantzitsua da aurreko urtean landutakoa gogora ekartzea, izan ere, latina hizkuntza jarraia da.
- **Azken ataza:** Aurreko urteko ezagutzak gogora ekartzea eta maila horretako ariketak egiteko gai izatea.

2. unitatea: Erromatarren ondarea Hispanian eta literatura erromatarra

- **Arazoa:** Zer gertatu zen latinetik hizkuntza erromantzeetara pasatzeko? Zein paper jokatu zuen literaturak aipatutako prozesuan?
- **Testuingurua:** Pixkanaka latinetik hizkuntza erromantzeetara pasatzeko prozesuan gertatutako aldaketa fonetikoak ikusiko ditugu, morfologia eta sintaxiarekin aurrera jarraitzen dugun aldi berean. Gainera, literaturak prozesu honetan izan zuen garrantzia ikusiko dugu, askotan hura baita historian gertatutako aldaketak islatzen dituena.
- **Azken ataza:** Gero eta esaldi eta testu konplexuagoak aztertu eta itzultzea, eta literaturaren garrantziaz jabetzea.

3. unitatea: Antzerki erromatarra

- **Arazoa:** Erromatarren garaiko antzerkia eta gaur egungoa berdinak al dira? Gu antzerkira joaten al gara? Zer egiten dugu horrez partez funtsean oso antzekoa dena?
- **Testuingurua:** Gaur egun antzerkira joaten ez bagara ere, oso antzekoa den beste zerbaite egiten dugu: sare-sozialetan nabigatu. Helburua ikasleak aipatutako garaia eta gaur egungo egoeraren arteko antzekotasunez konturatzeko da. Horrez gain, latineko sintaxiarekin aurrera jarraituko dugu, mendeko perpausak aztertu eta itzuliz.
- **Azken ataza:** Erromatarren garaiko eta gaur egungo antzerkiaren arteko antzekotasunez jabetzea eta esaldi eta testu konplexuagoak aztertu eta itzultzeko gai izatea.

4. unitatea: Poesia epikoa

- **Arazoa:** Nolakoak dira gure gaur egungo heroiak? Zergatik kontsideratzen dira heroiei?
- **Testuingurua:** Gaur egun, heroien inguruan ikuspuntu desberdina badugu ere, gai hau oraindik ere presente dago gure gizartean. Horregatik, gure gizartea ulertzeko ezinbestekoa da erromatarren garairaino atzera egitea.
- **Azken ataza:** Literatura latindarraren barruan, poesia epikoa identifikatzea eta haren ezaugarri nagusiak zerrendatzen jakitea; aldi berean, morfologikoki eta sintaktikoki zailagoak diren esaldi eta testuak ondo aztertu eta itzultzeko gai izatea.

5. unitatea: Historiografia

- **Arazoa:** Nola iritsi zaigu gaur egun arte erromatarren garaian pasatakoa? Zein izan zen idazle garrantzitsuenetako bat?
- **Testuingurua:** Historiografia berebizikoa da erromatarren garaian gertatu zena ezagutzeko, ekintza eta gatazka guztiak literaturaren bidez transmititu baitira. Gainera, klasean aztertuko ditugun testu asko Zesarrek idatzitakoak dira, historialari garrantzitsuenetako bat izan zenak.
- **Azken ataza:** Zesarren testuak aztertu eta itzultzeko gai izatea, haiek dituzten konplexutasun morfologiko eta sintaktikoak kontuan izanda.

6. unitatea: Poesia klasikoa

- **Arazoa:** Garrantzitsua al da testuinguru formalean egokitasunez hitz egitea? Nondik datorkigu hori?
- **Testuingurua:** Gaur egun erregistroak testuingurura egokitzeko gaitasunari izugarrizko garrantzia ematen diogu. Horregatik, unitate honen helburu nagusia ikasleek aipatutakoaren jatorria ezagutzea da, gure gizarte eta kultura hobeto ulertzeko. Bestalde, esaldi mota desberdinak aztertzen jarraituko dugu, konplexutasun-maila areagotuz.
- **Azken ataza:** Poesia klasikoa identifikatzen jakitea, haren ezaugarri garrantzitsuenak aipatuz, eta geroz eta testu konplexuagoak aztertu eta itzultzeko gai izatea.

7. unitatea: Poesia lirikoa

- **Arazoa:** Gaur egun poesiak ez du lehen zuen garrantzia, baina ba al dago gaur egun oso modan dagoen generoren bat poesiaren oso antzekoa dena?
- **Testuingurua:** Ikasleek poesia modaz pasatutako genero bat bezala ikusten dute. Ikuspegi hori aldatze aldera, garai bateko poesia eta gaur egungo musikaren arteko antzekotasunak aztertuko ditugu, funtsean bi generoak oso antzekoak direla ikusteko.
- **Azken ataza:** Poesia literatur genero bezala balioestea eta bere ezaugarri nagusienak aipatzeko gai izatea. Horrez gain, Selektibitateko testuak eta antzeko beste pasarte batzuk egokitasunez aztertu eta itzultzeko gai izatea.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

1. unitatea: Errepasoa

- a) Hizkuntza:
- i) Deklinabideak.
 - ii) Aditz-jokoak (aktiboa eta pasiboa).
 - iii) Izenordainak.
 - iv) Erlatibozko perpausak.

2. unitatea: Erromatarren ondarea Hispanian eta literatura erromatarra

- a) Hizkuntza: Mendeko perpausak; infinitiboak.
- b) Hizkuntzaren bilakaera: Bokal eta diptongoen bilakaera.
- c) Kultura: Erromatarren ondarea Hispanian eta literatura erromatarra.

3. unitatea: Antzerki erromatarra

- a) Hizkuntza: Partizipioak.
- b) Hizkuntzaren bilakaera: Bokal eta diptongoen bilakaera.
- c) Literatura: Antzerki erromatarra.

4. unitatea: Poesia epikoa

- a) Hizkuntza: Gerundio, gerundibo eta supinoa.
- b) Hizkuntzaren bilakaera: Kontsonanteen bilakaera.
- c) Literatura: Poesia epikoa.

5. unitatea: Historiografia

- a) Hizkuntza:
 - i) *Cum*-en erabilera.
 - ii) *Ut*-en erabilera.
 - iii) Mendeko perpausak; adberbiozkoak.
- b) Hizkuntzaren bilakaera: Kontsonanteen bilakaera.
- c) Literatura: Historiografia.

6. unitatea: Poesia klasikoa

- a) Hizkuntza: Aditz-joko perifrastikoa.
- b) Hizkuntzaren bilakaera: Kontsonanteen bilakaera.
- c) Literatura: Poesia klasikoa.

7. unitatea: Poesia lirikoa

- a) Hizkuntza: Denboraren komunztadura; estilo zuzena eta zehar-estiloa.
- b) Hizkuntzaren bilakaera: Latineko hitzen bilakaera fonetikoa, bai kontsonante eta bai bokalena.
- c) Literatura: Poesia lirikoa.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jardura motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA

1. MULTZOA. Eduki komunak.
2. MULTZOA. Latina.
3. MULTZOA. Latinezko testuak eta haien interpretazioa.
4. MULTZOA. Latinaren flexioa eta haren bilakaera.
5. MULTZOA. Erroma eta haren ondarea.

JARDURA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetanarazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko.
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea.

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak.
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak.

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDEAK

- Irakasleak sortutako hainbat ariketa orri (testuak itzultzeko) eta apunte.
- Latineko hiztegia.
- IKT-ei dagokionez, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jardura guztiak. Ikasleek bertan izango dute eskura behar duten material guztia (esaldiak eta testuak, apunte eta eskemak, bideoak, material gehigarria eta abar). Fitxategiak PDF formatuan igoko dira eta bideoak URL baten bidez txertatuko dira. Ikasleen lanak plataforma birtualaren bidez jasoko dira.

Ikasleen lanerako Drive-ek eskaintzen dituen programa kolaboratiboak erabiliko dira eta ekoizpena testu formatuan (Word edo Google docs) eskatuko zaie. Bestalde, eskuz aztertutako esaldiak irakasleari entregatzeko aukera ere izango dute edota, nahiago izanez gero, mugikorra edo beste gailu elektronikoen baten bidez argazki bat atera eta JPG formatuan igo ahal izango dute.

Pandemia egoeran Meet eta G-Suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, biak Alexia Classroom-en txertatuak, ikasleek ikasgaia etxetik jarrai dezaten eta material guztia eskura izan dezaten.

TALDEKATZEAK

Gehienbat bakarka, baina binaka ere antolatuko gara, betiere ariketa bakoitzak ematen dituen aukerak kontutan izanda.

ESPAZIO-DENBOREN ANTOLAKETA

- Normalean ikasgela erabiliko da, baina noizbehinka, beharraren arabera, beste gela batzuk ere erabiliko ditugu.
- Astean lau saio dira. Hiruhilerokorako aukeratutako edukiak lantzeko, hasiera fasea, garapen fasea eta aplikazio eta komunikazio faseak burutuko dira unitate didaktiko bakoitzean.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

- Galdera edo bestelako baliabideen bidez (artikuluak, bideoak, etab.) ikasleengan interesa piztuko du eta haien aurre-ezagutzak jasoko ditu.
- Gaiak azalduko ditu, ikasle guztiek edukiak uler ditzaten. Horretarako, beste hainbat tresna baliatuko ditu (power point-a, adibidez).
- Edukiak sakontzeko eta ikasitakoa errealitatearekin lotzeko jarduerak eta ikertze eta aplikatze ekintzak proposatuko ditu.

IKASLEEN EGINKIZUNA

- Ariketak egingo dituzte gaiak barneratu eta sakontzeko helburuarekin. Ondoren, irakasleari zuzentzeko emango dizkiote eta behar izanez gero berririo egingo dituzte.
- Indibidualki zein binaka lan egiteko gaitasuna garatzea.
- Ikasten ikasteko gaitasunaren bidez, jarduerak egiteko eta edukiak barneratzeko teknika egokienak erabiltzea.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
Ebaluazio bakoitzaren amaieran azterketa bat egingo da. Bestalde, gai bat amaitzen dugun bakoitzean kontrol txiki bat egingo dugu, ikasleak gaia ulertu duen ala ez ikuste aldera. Klasean egindako lanak eta parte hartzea ere kontutan hartuko da.	Ebaluazio amaierako azterketak notaren gehiengo balioko du, %70a alegia. Gai bakoitzaren amaieran egingo diren kontrolek %20a balioko dute. Klaseko ariketek eta parte-hartzeak %10a balioko dute.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]	
Berreskurapenak azterketen bidez egiten dira eta ikasleek gainditu ez dituzten atal/atalak egin beharko dute/dituzte. 3. ebaluazioko azterketa gainditzen ez dutenek, 1. deialdiko azterketara aurkeztu beharko dute, hau kurtso osokoa izanik. 1. deialdiko azterketa gainditzen ez dutenei, nahiz gai osoa nahiz ebaluazio bakarra izan, hori bera geratuko zaie 2. deialdirako. Kurtsoko batez besteko nota igo nahi dutenek ebaluazio bakoitzaren berreskurapen egunetan egin behar dute azterketa, non ebaluazio osoko materia sartzen den.	

OHARRAK

--

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila	2
arloa/irakasgaia:	Artearen Historia		
osatutako arloak/irakasgaiak	-----		
diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	1. Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea, norberaren arte-ekoizpenetan erabiltzeko eta obra artistiko eta kulturaletan identifikatzeko. 2. Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat bizi-esparrutan, emozioak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko. 3. Arte ekoizpenak dagozkien denboran eta kulturen interpretatzea, dituzten funtzioak eta erabilerak aztertze eta bereizteko bai eta bizitzan duten esanahia eta eragina ulertzeko. 4. Gogoeta kritikoaren bidez balioestea ondare artistiko eta kulturalak, herrien nortasunaren eta kulturen oinarri diren aldetik, herrien arteko hartu-eman partekatua helburu.		
irakasleak:	Araitx Olaiz Leibar	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Adibide zehatzetan oinarrituta, artearen ikuskera estetikoetan eta arteak historiaren joanean bete izan dituen funtzio sozialetan izandako aldaketak ulertzea, kultura eta testuinguru historiko bakoitzean arteak eta artistek zer ezaugarri nagusi izan dituzten aintzat hartzeko.	1. Argudioetan oinarrituta, historiaren joanean arteari buruzko ikuskeretan eta arteak bete izan dituen funtzio sozialetan izandako aldaketak identifikatzea eta ulertzea.

2. Artelane bi alderdi nagusi dauzkatela ulertzea: batetik, alderdi historiko-kulturala; eta, bestetik, alderdi estetiko-formala; eta horretan, jakitea iruzkin eta irakurketa espezifikoaren bitartez bere horretan goza ditzakegula artelanak, eta garai eta kultura baten erakusle gisa balioetsi. 3. Arte aldaera historiko eta sistema bisual ugariko hizkuntza bat dela ulertzea, eta aintzat hartzea horrek artearen historiako garai bakoitza modu adierazgarrian interpretatzeko aukera ematen duela, artearen eta gizartearen artean zer-nolako harremanak dauden eta arteak zer-nolako eragina duen azaltzen jakiteko. 4. Analisi-metodoak (teknikoak, formalak, semantikoak, kulturalak, soziologikoak eta historikoak) eta artearekin lotutako terminologia espezifikoa erabiliz, norberaren sentiberatasuna eta irudimena lantzea, bakarka nahiz taldean, bai ahoz eta bai idatziz, arte-estilo nagusien forma, gai eta funtzioak laburbiltzeko. 5. Mendebaldeko atearen historiako arte-adierazpen nabarmenenak eta artista adierazgarrienak identifikatzea, bereiztea eta aztertzea (Euskal Herrikoak eta Espainiakoak, batik bat), bai eta horiek guztiak noiz, non eta zer testuinguru historikotan sortuak diren jakitea ere, aldaketak eta jarraitasunak aintzat hartzeko eta artea denon ondarearen parte dela ohartzeko. 6. Gure arte-ondare urri eta ordezkazina ezagutzea, balioestea eta hartaz gozatzea, eta modu aktiboan aritzea hura babestearen eta etorkizuneko belaunaldiak transmititzearen alde, ondarea hondatzen duten jarrerak eta arriskuan jartzen duten proiektuak argi eta garbi baztertzeko. 7. Sentsibiltate estetikoa, gozamen estetikorako gaitasuna eta espiritu kritikoa lantzea, artelanei buruz nork bere sentimendu eta ideien berri ematen ikasteko, eta horretan, artelanei begiratzeko modu ugariak eta pertzepzio-aniztasuna errespetatzea, estereotipo eta aurreiritzi estetikoak gaindituz, eta ohartzea zeinen garrantzitsua den artea, gaur egungo sormen-askatasunak oinarri duen hizkuntza artistikoaren berritasun erabatekoaren adibide den aldetik. 8. Dokumentazio- eta bilaketa-lanak egitea, bai orain arte eskura izan ditugun informazio-iturrietan eta bai teknologia berriekin	2. Artearen oinarrizko ezaugarriak eta arteari buruzko ikuskera estetiko ugariak aztertzea eta esplikatzea, eta garaian garaiko testuinguru historiko eta kulturalekin lotzea horiek guztiak. 3. Artelan nabarmenenak aztertzea, sailkatzea eta horiei buruzko iruzkinak egitea, eta horretan, zenbait ikuspegi (teknikoa, formala, semantikoa, kulturala, soziologikoa eta historikoa) barnean hartzen dituen metodo bat aplikatzea, arteaz gozatzen ikasteko. 4. Artista nagusien artelan nabarmenenak identifikatzea, aztertzea eta interpretatzea, eta horretan, beren estilo-ezaugarriak bereiztea, batetik, eta artelan horiek beren garaiko gizartearen ispilu direla ohartzea, bestetik. 5. Garai historiko bakoitzean nagusi izandako artelanak identifikatzea, aztertzea eta denboran eta espazioan kokatzea, eta horretan, artelan horiek estilo jakin baten barruan sailkatzeko aukera ematen duten ezaugarriez jabetzea, eta, era berean, artelan horiek beste garai batzuetako artelaneekin, egileekin eta lekuekin alderatzea. 6. Gaur egungo sistema bisualen (argazkigintza, zinema, telebista, kartelismoa, komikia...) garapena eta zabalkundea esplikatzea, eta sistema bisual horietan zenbait hizkuntza espresibo nola konbinatzen diren esatea. 7. Teknologia berriek irekitako posibilitate ugariak deskribatzea eta horrek arte-sormenean nahiz arte zabalkundean izandako eraginak esplikatzea, jakitea arteak zer-nolako presentzia duen eguneroko bizitzan eta hedabideetan, eta kontsumo-objektu gisa arteak zer-nolako garrantzia duen esatea. 8. Ahozko eta idatzizko aurkezpenetan artearekin lotutako terminologia espezifikoa erabiltzea, eta horretan, zorrotz izendatzea elementu eta teknika artistiko nagusiak. 9. Bakarka nahiz taldean egitea eta aurkeztea hemengo eta kanpoko arte-mugimenduren bati, garrantzi handiko artistaren bati edo ibilbide artistiko bereziren bati buruzko ikerketa-lanak, eta horretan, betiko informazio-iturriak nahiz teknologia berriak erabiltzea, eta txukun eta argi ematea bere emaitzen berri. 10. Garai guztietako arte-adierazpenak errespetatzea, aintzat hartzea kalitatea estu lotuta dagoela garai bakoitzeko irizpideekin, eta ohartzea arte-adierazpen horiek ondare urri eta ordezkazinarekin adibide direla, eta zaindu eta
--	--

lotutakoetan (Internet, entziklopediak, aldizkari espezializatuak, museo nahiz galerietako arte-katalogoak...) aurkitutako Artearen Historiako alderdi nabarmenenei buruzko informazioa aztertzeko, kontrastatzeko eta interpretatzeko. 9. Museo, erakusketa eta monumentu interesgarri eta adierazgarrienetako artelanak aurkitzea, ezagutzea, aztertzea eta haietaz gozatzea, eta, ahal dela, bertara joatea, estilo jakin baten ezaugarriak bereizteko eta garai berean landutako korrante estetiko ugarien aniztasuna balioesteko. 10. Bai ahoz eta bai idatziz egindako ikerketan lanetan oinarrituta, emakumeei (bai artistei eta bai modelo gisa erabili dituztenei) Artearen Historian emandako lekua kritikoki aztertzea, eta emakumeek egindako arte-ekarpenen garrantzia aintzat hartzea.	atzetik datozen belaunaldiei transmititu behar zaizkiela. 11. Artelanez bertatik bertara gozatze aldera, museo eta erakusketetara joatea eta monumentu artistikoak eta artelanak ikusi eta aztertzea, eta horretan, jarrera kritiko eta irekia izatea, emakumeek arte-sormenaren esparruan izandako garrantziaz jabetzeko.
---	--

ARAZO EGOERA

1. ebaluazioa

1. Nor da arte garaikidearen beldur?

Azken ataza: Artista eta artelan garaikideak ikertzea.

2. ebaluazioa

2. Nola behatu artelan bat?

Azken ataza: Artelanak iruzkintzea.

3. ebaluazioa

3. Aireko perspektibatik ikusi nahi?

Azken ataza: Oinarrizko kronologia eta glosategiaren bilduma sortzea.

EDUKIEN SEKUENTZIA - Hautaprobarekin batekina

Denbora tartea: 1. ebaluazioa
Aro Garaikidea ✓ Arte Garaikidearen azterketa sakona: analisi, hausnarketa eta gozamenerako. ✓ Arte-hizkuntza ezagutu (elementu formalak eta ez-formalak) eta berezkoa duen terminologia erabili. ✓ Arte estiloak: - Arte egintzaren gaurkotasuna. - XX. eta XXI. mendeak: Adierazteko eta gauzatzeko sistema tradizionalen haustura: Inpresionismotik XXI Mendeko abangoardietara Pinturan eta Eskulturan. - Arkitektura: XIX. mendeko industria iraultza eta material berrien eragina arkitekturan. Espazioaren kontzeptu berri baterantz - Euskal artea XX. eta XXI. mendeetan. -XIX. mendea: Etengabeko eraldaketan dagoen mundu bateko artea: Neoklasizismoa, Erromantizismoa, Errealismoa, Goya. ➤ Bertako artistak eta aldi baterako erakusketa garrantzizkoetan erakutsitako artelan garaikideak gertutik esperimintatzea.

Denbora tartea: 2. ebaluazioa

Aro Modernoa

- ✓ Artea: giza adierazpena denboran eta espazioan.
- ✓ Artelana ulertzeko modua eta azterketarako metodologiak erabiltzea: Forma, edukia, funtzioa eta alderdi soziala lotzeko.
 - Arte estiloak:
 - XV-XVIII mendeak bitarte Europako artearen bilakaera mundu modernoan: Errenazimentua eta tradizio klasikoaren susperraldia: Italian, Espainian eta Euskal Herrian.
 - Barrokoaren sorkuntza eta guneak: Europar aldaerak, Espainiaren (urrezko mendea) eta Euskal Herria.
 - Erromanikoa eta gotikoa. Donejakue bidean.
- Artelan ezberdinen materialak eta teknikak, gaiak eta sinbologiak, helburuak identifikatzea, terminologia zuzena erabiliaz deskribapen zehatzak burutzeko.

Denbora tartea: 3. ebaluazioa

Antzinaroa

- ✓ Arte klasikoak Historian izan duen eragina.
- ✓ Erdi Aroko arte kristaua: Ikonografia baten egituraketa
 - Arte estiloak:
 - Islamiar artea. Hispaniar-musulmana.
 - Grezia eta Erroma: lehen zibilizazioak.
- Artearen Historiari oinarritzeko terminoen glosategia osatu eta hainbat garai, estilo eta autoreren artelanak modu arrazoituan eta grafikoan sailkatzea.

METODOLOGIA

EDUKIEN ANTOLAKETA

Edukiak multzo hauetan antolatuta daude:

1. MULTZOA Eduki komun zeharkakoak eta Eduki komun espezifikoak.
2. MULTZOA Artea, giza adierazpena denboran eta espazioan.
3. MULTZOA Artelana ulertzeko eta aztertze modua.
4. MULTZOA Arte-estiloak: bilakaera historikoa eta espazio-aniztasuna.
5. MULTZOA Arte garaikidean izan diren aldaketak eta bere horretan iraun duten ezaugarriak.
6. MULTZOA Artegintzaren gaurkotetasuna

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

Egoera erreal bat edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea

Garapen fasean:

Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak
Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak

Aplikazio eta komunikazio fasean:

Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDEAK

IRAKASLEA:

-Gaien sintesiak, Artelanen aurkezpenak eta Garai Historikoen Azalpenak.
-Bideoak, Dokumentalak, Filmak eta Museoetara bisitak.
-Alexia Classroom ikasgela birtualean, saioetan landutako euskarri eta erabilitako URL guztietara sarbidea izango da, bai eta aparteko informazio gehigarria ere egokiro antolatua. Plataforma honek eskaintzen dituen ikasleen jarraipenerako eta kalifikaziorako tresnak ere erabiliko dira.

-IKASLEA:

Ikerketa lanak burutu eta aurkezteko drive programa kolaboratiboa erabiliko da. Ekoizpenetarako, testu modua (word edo Google docs), aurkezpen formatua (ppt, prezi...) bai eta ikusentzunezko edizioa ere (draw my life, wevideo...) eskatuko da. Mapa kontzeptualak, Infografiak eta liburuturuxka-edizioak egiteko baliabideak ere erabiliko dira (Lucidchart eta Canva esaterako).
Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik.

Baliatuko ditugun TESTU LIBURUAK Batxilergoko 2.mailako Artearen Historiako liburuak izango dira, Erein eta Vicens Vives argitaletxeak.

TALDEKATZEAK

Bakarka, hiruko taldetan nahiz talde handiagotan antolatuko gara. Gela osoaren izaerari eta ahalmenari garrantzia emango zaio eta zenbait jarduera kolektibo bultzatuko dira ikasgaiaren ahalik eta ikuspegi zabalenera heltzeko.

ESPAZIO-DENBORAREN ANTOLAKETA

Ikasgela, IKT gela, Ikaslearen portatila, Ikus-entzunezko gela, Adierazpen teknika grafikoetako gela, Gertuko museo eta erakusketak baliatuko ditugu.

Astean lau saio dira. Hiruhilekotan antolatutako eta multzokatutako edukiak lantzeko, hasiera fasea, garapen fasea, aplikazio fasea eta komunikazio faseak burutuko dira.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

AZALPENEN BIDEZ edukiak lantzea: gaiak, kontzeptuak, hiztegia eta ikuspegi orokorra azaltzea.
AURKIKUNTZA GIDATU BIDEZ interesak biltzea: aurre-ezagutzak jaso eta ikasketa berriak bultzatzea.
IRUDI BIDEZ artelanak, estiloak behatzea: ikusizko hizkuntza eta begirada artistikoa garatzea.

IKASLEEN EGINKIZUNA

IKASTEN-IKASTEKO TEKNIKA BIDEZ Informazio, Errepresentazio eta Aplikazio ekintzak burutzea.
PENTSAMENTSU BISUALAREN ETA PRAKTIKA ARTISTIKOAREN BIDEZ esperimintatzea eta sakontzea.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Ebaluazio tresnak honakoak dira: -Ekarpenak, hausnarketak, iritziak... parte-hartze aktiboa izatea saioetan. -Gaiak lantzerakoan apunteak hartzea eta jarduera anitzetan ekarpena egitea. -Bakarkako lanak zein taldekakoak garaiz eta egoki burutzea. -Aplikazio ezberdinak, gai garapenak eta artelanen iruzkinak besteak beste... jarraibideak aplikatuz burutzea. -Lanen eta azterketen kalifikazioak. Ebaluazio jarraia eta pertsonalizatua, USE hautaprobaren prestaketarako, hala behar denean.	-1. ebaluazioan, 2 .ebaluazioan eta 3. ebaluazioan ikaslearen apunteek 5a bermatuko dute. -LANA, AZTERKETA eta JARRERA kalifikatuko dira 10a bitarte. -Lehen ebaluazioko GAKOAK: SAIKERA-EKARPENA, GAIK LANTZEA eta MINTZAIRA BARNERATZEA dira. -Bigarren ebaluazioko GAKOAK: EGOKITASUNA-EKARPENA, TEKNIKA BARNERATZEA eta ESTILOAK IDENTIFIKATZEA dira. -Hirugarren ebaluazioko GAKOAK: BALORAZIOA-EKARPENA, IKUSPEGI OROKORRA IZATEA ETA IKASGAIA MENPERATZEA dira. -Ebaluazioko nota: ebaluazioa gainditzeko atal nagusia apunteak aurkeztea da. Ondoren bakarrik gehituko dira nota igotzeko balio duten beste atalak.

	-Justifikatu gabeko hutsuneak jarrera desegokia dira eta kalifikazioan eragina dute. (3 hutsune = Jarrera Kalifikazioan 0) -Nota igotzeko aukera ikasturte bukaerako ohiko deialdian soilik izango da, ikasturte osoko edukiak frogatuz.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...]	
-Ebaluazioa BERRESKURATZEKO AUKERA izango da hiruhileko bakoitzean. NOTA IGOTZEKO AUKERA berriz ohiko deialdian. -Saiakeraren, lanaren eta ekarpenen JARRAIPEN hestua egingo da. Indartze sistemetan eta sakontze-errefortzuetan ere bai, beharrezkoa bada.	

OHARRAK

--

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	BATXILERGOA	zikloa/maila:	
arloa/irakasgaia:	GEOGRAFIA		
osatutako arloak/irakasgaiak	-----		
diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	1. Konpetentzia sozial eta zibikoa. 2. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		
irakasleak:	ANDREA ETXANIZ	ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Euskal Herriko eta Espainiako eremu geografikoaren aniztasuna prozesu natural, sozial, ekonomiko, teknologiko eta kulturalen interakzioa ulertzeko eremu dinamiko gisa aztertu eta azaltzea, eta denbora-esparru natural aldakor batean aztertzea. 2. Lurraldearen antolamenduaren oinarritzko elementuak identifikatu eta ulertzea Espainia eta Europar Batasuna osatzen dituzten lurraldeen artean dauden loturak ulertzeko, hurbileko eta urruneko eremuen inguruko jakintza, estimazio eta lankidetzarako jarrerak garatzea, aurreiritziak gainditzea eta elkartasunez jokatzeko. 3. Ingurune naturalaren ezaugarri orokorrak zein diren jakitea Espainian eta Euskadin dauden paisaia naturalak ezagutzeko, paisaia horien elementuak eta dinamika identifikatzea, haien interakzioa azaltzea eta gizakiaren ekintzak paisaia horietan betetzen duen zeregina balioestea.	1. Iturri askotatik (ikasleen ingurunea, kartografia, estatistikak, testu eta irudiak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) eduki geografikoko informazioa ateratzea, hautatzea eta erabiltzea lurralde-fenomenoak eta fenomeno horien arteko loturak kokatu eta interpretatzeko, eta hiztegi espezifikoa erabiltzea gertakari eta prozesu geografikoak azaltzeko eta horien berri emateko. 2. Europar Batasuneko sistemaren eta horren eraikuntzaren etapa nagusien ezaugarriak identifikatzea, Europar Batasuneko erakundeak eta haien funtzionamendua ezagutzea eta bertako politika sozioekonomikoaren ondorio espazialak ikuspegi kritikoaz balioestea. 3. Ingurune naturalaren ezaugarri orokorrak zein diren jakitea, Espainian eta Euskal Herrian dauden multzo naturalak ezagutzea, multzo horiek mapan aurkitzen dituen, bertako elementuak eta dinamika identifikatzea, haien interakzioak azaltzea eta gizakiaren ekintzak betetzen duen zeregina balioestea.

4. Euskal biztanleriaren eta Espainiako biztanleriaren banaketa, dinamika eta egitura deskribatzea biztanleria espazio geografikoaren eraldaketa-mailaren funtsezko faktorea dela ulertzeko, eta, horretarako, desberdintasun ekonomikoen, biztanleriaren banaketaren, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearen prozesu historikoak, arrazoiak eta ondorioak azaltzea.

5. Populatze motak bereiztea, Espainiako eta Euskal Herriko urbanizazio-prozesua ulertzea eta faktore horiek industrien eta zerbitzuen kokapenarekin lotzea, dauden paisaia desberdinak, biztanleria-dentsitate desberdinak eta aberastasunaren garapen eta banaketa desberdina ulertzeko.

6. Hirien morfologiaren eta funtzioen (bizitegi-funtzioa, industria-funtzioa, administrazio-funtzioa eta merkataritza-funtzioa) oinarritzko alderdiak eta hiri-espazioan duten banaketa ezagutu eta identifikatzea eraldaketa-faktoreak eta sortzen diren ingurumen-arazoak ulertzeko, eta, horretarako, hainbat iturri erabili eta interpretatzea, hala nola hiri-planoak, aireko argazkiak eta askotariko iturri dokumentalak.

7. Jarduera ekonomikoak eta haien azken aldiko bilakaera eta kokapen-faktoreak aztertzea eta ingurunearen eta hori okupatzen duten giza taldeen arteko lotura ezagutzea, biztanleriaren egungo banaketa eta horren ingurumen-ondorioak ulertzeko.

8. Naturako baliabideak ustiatzeko egungo eredia aztertzea eta horrek sortzen dituen ingurumen-arazoez eta gizarte-arazoez jabetzea, maila globalean pentsatu eta toki-mailan jarduteko, betiere zuhertasun, eraginkortasun eta elkartasunez.

9. Elkarrekiko erlazioan oinarritutako mundu honetan Espainiak eta Euskadik duten posizioa eta Estatuko lurraldeen arteko erlazioak azaltzea eta datu ekonomiko eta demografikoak aztertzea, aldi berean ekonomia uniformizatzeko prozesuak eta desberdintasun ekonomikoko prozesuak daudela ulertzeko.

10. Dauden gizarte- eta espazio-errealitatez jabetzea lurraldearen antolamendurekin zerikusia duten erabakietan era aktibo eta arduratsuan parte hartzeko, eta oreka naturala eta gizarteekitatea sustatzeko beharra balioestea.

11. Fenomeno geografiko konplexuak hainbat ikuspegitik ulertzea (generoaren ikuspegitik, adibidez), eta analisi multikausalak egitea, egungo gizarteak dituen arazoak ulertzeko.

12. Informazioa bilatzeko askotariko iturri eta teknika geografikoak erabiltzea, informazio hori ongi antolatutako azalpen-testu koherenteen bidez helaraztea, eta terminologia egokia erabiltzea.

4. Jarduera ekonomikoak eta haiek eragiten dituzten eraldaketak aztertzea, ingurunearen eta giza taldeen arteko erlazioa, giza talde horien kokapen-faktoreak eta banaketa ezagutzea, egungo joerak azaltzea eta joera horiek beren Europako testuinguruan balioestea.

5. Giza ekintzek ingurumenean dituzten inpaktu nagusiak identifikatu eta aurkitzea, inpaktu horiek beren arrazoiekin eta osasunean dituzten ondorioekin erlazionatzea, eta mundu-eskalako ikuspegi global bat erabiltzea. Eta, era berean, leheneratzeari eta kontserbazioari lotuta hainbat eskalatan (tokiko eskalan, autonomia-erkidegoan, Estatuan, Europan eta munduan) planteatzen diren konpromisoak eta politikak ezagutzea.

6. Biztanleria funtsezko faktore gisa ulertzea (izan ere, biztanleriaren banaketak, dinamikak eta egiturak eragin garrantzitsua dute espazioa osatzeko prozesuetan). Eta, era berean, desberdintasun ekonomikoen, biztanleriaren banaketa desberdinen, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearen arrazoiak eta ondorioak azaltzea.

7. Populatze motak bereiztea. Espainiako urbanizazio-prozesua lurraldea hiri-sistemen konfigurazioaren bitartez antolatzeko modu gisa interpretatzea. Eta, era berean, hirien morfologiaren eta funtzioen oinarritzko alderdiak eta hiri-espazioan duten banaketa ezagutzea eta identifikatzea.

8. Euskal Herriko eta Espainiako antolamendu politiko eta administratiboaren oinarritzko elementuak deskribatzea, autonomia-erkidegoetan eta haietako batzuen barruan aberastasunaren banaketari dagokionez dauden kontrasteak hainbat iturri eta adierazle erabiltzearen bidez balioestea, eta Espainian eta Europan eskualdeak garatu eta kohesionatzeko egin diren politiken adibideak ematea.

9. Espazio edo gai jakin bati buruzko ingurunerako irteera, landa-lan edo ikerketa-lanen bat planifikatzea, behar den informazioa biltzea eta ondorioak ahoz, txosten baten bidez edo formatu digitaleko komunikazio baten bidez eta hiztegi geografiko egokia erabiliz aurkeztea.

- 1. MULTZOA.** Lurraldea antolatzeko moduak. Espazio geografikoaren batasuna eta aniztasuna
 - a. Euskal Herriaren eta Espainiaren kokapen geografikoa. Batasuneko eta dibertsitateko faktoreak.
 - b. Lurralde-antolamendua: prozesu historikoak eta gaur egungo antolamendu politiko eta administratiboa. 1978ko Konstituzioa. Autonomien Estatuaren artikulazioa Espainiako Gobernuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumen banaketa. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen berariazko kasuak.
 - c. Desorekak eta lurraldeen arteko kontrasteak. Espainia Europan. Europar Batasuna eraikitze prozesua. Eskualde-politikak eta lurraldekoehesiokoak. Espainiaren lekua Europar Batasunean. Euskal Herria Europar Batasunean.
 - d. Globalizazioa eta dibertsitatea munduan: mundializazio-prozesuak eta lurralde-desberdintasunak. Munduko ardatz handiak. Espainiaren eta Euskal Herriaren kokapen erlatiboa munduko eremu sozioekonomikoetan eta geopolitikoetan.
- 2. MULTZOA.** Dinamika ekogeografikoak
 - a. Espainiako eta Euskal Herriko natura-ingurunea. Elementuak: erliebea, klimak, landaredia, lurzoruak eta baliabide hidrikoak. Naturagune handiak: elementu eta mota nagusiak.
 - b. Espainiako eta Euskal Herriko natura-paisaiak. Natura babestu, kontserbatu eta haren egoera hobetzeko politikak.
 - c. Naturaren eta gizartearen arteko elkarrekintza. Faktore politikoek, sozioekonomikoek, teknikoek eta kulturalak betetzen duten funtzioa geografia-eremuen eraketan eta eraldaketan.
 - d. Paisaia kulturalak.
- 3. MULTZOA.** Espazio geografikoa eta jarduera ekonomikoak
 - a. Jarduera ekonomikoen ezaugarri nagusiak eta jarduera horiek sortzen dituzten dinamikak eta arazoak deskribatzea.
 - b. Jarduera ekonomikoek ingurumenean duten eragina eta haien ondorio sozialak. Egungo produkzio sistemak eta produkzioaren banaketak dakartzan desoreken balorazioa.
 - c. Ekonomiaren esparru eta sektore bakoitzean emakumeek eta gizonen eginiko ekarpenen analisi bereiztuta.
- 4. MULTZOA.** Biztanleria, hiri-sistema eta eskualde-kontrasteak.
 - a. Iturri demografikoak. Espainiako eta Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera historikoa. Hazkunde naturala; migraziomugimenduak eta desberdintasunak eremutik eremura. Egungo egitura demografikoa eta aurreikuspenak, genero ikuspegia kontuan hartuz. Immigrazioaren garrantzia. Egungo arazoak eta etorkizunaren aurreikuspena.
 - b. Hirien populatzea. Hiriaren kontzeptua. Hiriak lurralde-antolamenduan duen eragina. Hiriaren morfologia eta funtzioak. Hirien sarea eta hierarkia Espainian eta Euskal Herrian. Urbanizazio prozesua. Bizitza hirian.
 - c. Landa-eremuen populatzea.
 - d. Lurraldeen arteko kontrasteak: diferentzia espazialak, demografikoak eta sozioekonomikoak. Kontrasteak eta lurraldeen arteko desorekak. Eskualde-politikak eta lurralde-koehesiokoak.

- **EDUKIEN ANTOLAKETA:**
 - Liburuaren gaien antolaketa izango da ikasgaia emateko irizpide ordena.
 - Gaiak, eskuliburu eta liburu digitalaren oinarritik abiatu, aurkezpenetan (PPT) egongo dira laburturik eta hauek izango dira ikasgaia azaltzerako orduan erabiliko den materiala.
 - Azaldutako hori, ikasleek hobetu barneratu dezaten, mapa mentalak, ariketak eta bestelako proiektuak gauzatuko dituzte.
 - Lan talde eta proiektuen jarduna bultzatuko da.
 - Ebaluazioan zehar azterketa kontrol desberdinak egingo dira baita ebaluazio azterketa ere.
- **ESPAZIOAREN - DENBORAREN ANTOLAKETA** :Multzoen **antolaketa ebaluazioka** honakoa izango da:
 - 1.go ebaluazioa: 1.go multzoa eta 2. multzoa.
 - 2.ebaluazioa: 3. multzoa.
 - 3. ebaluazioa: 4. multzoa.
- **BALIABIDE DIDAKTIKOAK:**
 - Eskuliburua eta liburu digitala erabiliko dira:
 - **GEOGRAFIA teoria**, Ibaizabal argitaletxea, ISBN 978-84-9106- 191-5
 - **GEOGRAFIA praktika**, Ibaizabal argitaletxea, ISBN 978-84-9106-192-5
 - IKT-ei dagokienez:
 - **Alexia Classroom** plataforma:
 - Bertan multzoetan antolaturik dauden gaiak izango dituzte exekita.
 - Gaia atal hauetan, ikasgelan erabilitako ppt-ak, youtubeko estekak eta bestelako baliabideak izango dituzte eskuragarri; egunkarietako artikulak, mapak etab.
 - Baliabideak eskuragarri izateaz ezezik, Alexia Classroom plataforma ere, ikasleei eskatzen zaizkien zereginak jasotzeko gunea izango da.
 - **GEOGRAFIA liburu digitala**:
 - Bertan, plataforma digitalak eskaintzen dituen baliabideak erabiliko dira:
 - Jarduerak
 - Mapa mentalak
 - Multimedia atala
 - Ikasleek egin eta entregatu beharreko lanak, **(Word edo Google docs)**, eta aurkezpen formatuan (edozein plataforma, **ppt, prezi, google**) eskatuko zaie.
 - Pandemia egoeran **Meet** komunikazio baliabide erabiliko da, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko.
 - Liburu digitala baita Alexia Classroom bidez lana egitea bultzatuko denez, ikasleek **beraien ordenagailua ekarri beharko dute** ikasgelara.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
PROIEKTUAK: Ikasgaiean, gai desberdinak lantzerako orduan, kontzeptuei loturiko lan-proiektu desberdinak landuko dira (aurkezpenak, informazio txostenak, ikerketa lanak etab.) DEFINIZIOAK: Ebaluazio bakoitzean, multzo desberdinetan azaltzen diren kontzeptuen inguruko zerrenda landuko dugu. ARIKETAK: Gaia lantzen den heinean, irakasleak, liburu digitaleko baita liburu fisikoko ariketak eskatuko ditu. KONTROLAK: Gaiaren arabera, kontrol txiki bat egiteko aukera egongo da, ebaluazio azterketan materia kentzeko. AZTERKETA: Gai bakoitzari loturiko azterketa labur bat egingo da ebaluazioan.	PROIEKTUAK: Ebaluazioko notaren %40 izango du. DEFINIZIOAK: Ebaluazio notaren %10eko balioa izango du. ARIKETAK: Kalifikazio finalaren %10 izango du. KONTROLAK: Egiten badira, ebaluazio notaren %10 izango du. AZTERKETA: Nota finalaren %30ko ponderazioa izango du.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, erredukuperazio-sistema...]	
Gaiaren garapena eta iruzkinen praktikan ebaluazio bakoitzerako aurreikusitako maila lortu arte ekinean iraun araztea izango da erredukuperazioa. Garapen progresiboa: azken azterketa urtean zehar garatutako arloko konpetentziaren maila kalifikaziorako funtsezkoa izango da. Erredukuperazio gisa azterketako egikerak (menperatu arte) birlanduko dira.	

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko/ikasmailako programazio didaktikoa

ikastetxea:	Oiartzo Batxilergo ikastola	kodea:	013379
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila:	2
arloa/irakasgaia:	GIZARTE ZIENTZIEI APLIKATUTAKO MATEMATIKA II		
osatutako arloak/irakasgaiak	----		
diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	1.1. Estrategia egokien bidez identifikatzea eta ebaztea eduki matematikoa duten zenbait arazo-egoera, eta, horrela jokotuta, ingurunea hobeto ulertzeko urratsak ematea. 2. Jakintza matematikoak erabiltzea eguneroko edota zientziaren esparruko egoerei aurre egiteko, egoera horiek "modelizatuta"; hau da, egoerak termino matematikoetan adieraztea, modelo edo ereduari jarraitzea eta emaitzak testuinguruaren barruan interpretatzea. 3. Bizitzaren hainbat esparrutako informazioak, argudioak eta emaitzak interpretatzea eta adieraztea, hizkuntza matematiko egokia erabilia. 4. Jakintza matematikoak ezagutzea, erlazionatzea, integratzea eta balioestea, egoera bakoitzaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta. 5. Arrazoitze modu askotarikoak erabiltzea nork bere ondorioak eta horietara iristeko prozesua justifikatzeko, bai eta gainerako pertsonen aurkeztutako emaitzak modu kritikoan aztertze ere. 6. Prozedura matematiko egokiak hautatzea eta erabiltzea errealitatearen kalkulatzeko, irudikatzeko eta interpretatzeko, eta, horren harian, eraginkortasunaren mesedetan erabiltzea informazioaren eta komunikazioaren teknologia.		
irakasleak:	Txema Marin Arrizabalaga	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1.– Errealitate sozialari eta matematikari berari buruzko problemak proposatzea, hipotesiak egiten, hainbat estrategia aukeratzen eta erabiltzen, ebazpen-prozesua arrazoitzen, emaitzak interpretatzen eta justifikatzen eta haiek egoera berrietan aplikatzen, eraginkortasun handiagoz egungo gizarteko erronkei aurre egiteko.	1.1 Ea errealitate sozialeko egoerak hizkuntza aljebraikoaren bidez transkribatzen dituen eta ea den hartutako erabakien zergatia argudiatzeko. 1.2 Ea ebazten dituen ekuazio eta ekuazio-sistema linealak, paperean analitikoki eta grafikoki 1.3. Ea gai den emaitzak aztertutako egoeraren testinguruan interpretatzeko. 2.1. Ea egiten dituen eragiketa konbinatuak matrizeekin
2.– Eredu teorikoak (aljebraikoak, funtzionalak,	

estatistikoak eta probabilitistikoak) eta haiei buruzko edukiak erabiltzea, matematika aplikatzen gizarte-zientzien esparruko gertakariak analizatzeko, interpretatzeko eta iragartzeko. 3.– Zentzuzko diskurtsoa erabiltzea egoera problematikoei buruzko irizpenak eta erabakiak hartzen, eta, horretarako, prozedurak justifikatzen, argudioak zuzen lotzen, norberaren arrazoibideak zehatzak izaten eta besterenak kritikoki analizatzen, jarrera malgu, ireki eta kritikoa izateko. 4.– Matematika-hizkuntzaren eta -adierazpenaren berezko tresnak (zenbakiak, taulak, grafikoak, funtzioak, sinbolorik ohikoenak...) autonomiaz eta sormenez erabiltzea, matematika-terminoak, -notazioak eta -adierazpenak ulertzen eta erabiltzen, nork bere pentsamenduak argi eta koherentziaz azaltzeko. 5.– Egungo informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dituzten baliabideak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) zentzuz erabiltzea, egoeraren arabera egokienak hautatzen, informazioa biltzeko eta prozesatzeko, datu asko maneiatzeko eta kalkuluak egiteko problemak ebazteko behar bezain zehatz eta azkar. 6.– Matematika kulturaren osagaitzat hartzea, historian izan duen eta egungo gizartean duen egitekoa kontuan hartuta, matematika eta ingurune soziala, kulturala eta ekonomikoa erlazionatzen, gizarteko hainbat gertakari aztertzeke eta balioesteko eta nork haiekin konpromisoa hartzeko. 7.– Lanean beharrezko eta ohikotzat hartzeko, matematika-jardueraren eta ikerketa sozioekonomikoaren berezko jarrerez jabetzea eta haiek erabiltzea: matematika-hizkuntza balioesten, datuak egiaztatzen eta alderatzen, argudioak kritikoki analizatzen, prozesuak eta emaitzak sistematikoki berrikusten eta talde-lana balioesten. 8.– Matematika-kontzeptuak, -prozedurak eta -estrategiak erabiltzea, matematika-arloan bertan eta matematikaren eta beste jakintza-arlo batzuen arteko harremanetan eta aplikazioetan aurrera egiten, hartara, gizarte- eta ekonomia-gaiei eta beste gai batzuei buruzko ikasketak egin ahal izateko.	(oinarrizkoak). 2.2. Ea kalkulatu duen matrize (2×2) baten alderantzizkoa, definizioa erabilita. 2.3. Ea kalkulatu duen matrize baten n. berreduraren legea 2.4. Ea ebazten dituen ekuazio matritzialak. 3.1. Ea kalkulatu dituen 2 edo hiru ordenako determinanteak, Sarrus en erregela erabilita. 3.2. Ea ezagutzen dituen determinanteen propietateak, dagokion balioaren kalkuloa errazteko. 3.3. Ea kalkulatu dituen lau ordenako determinanteak, zeroak eginez eta errenkada baten bidez garatuta. 3.4. Ea dakien matrize baten alderantzizkoa (3×3) existitzen den eta kalkulatu du. 3.5. Ea kalkulatu du zenbakizko matrize baten heina, Gaussen metodoaren bidez 3.6. Ea bereizten duen sistema bat bateragarria edo bateraezina den, eta azken kasu horretan, determinatua edo indeterminatua den. 3.7. Ea ebazten dituen ekuazio linealen sistematik Gaussen metodoaren bitartez. 3.8. Ea dakien ekuazio-sistema bat matrize moduan adierazten, eta ahal bada, koefiziente-matrizearen alderantzizkoa lortuz kalkulatu. 3.9. Ea Cramer-en erregela erabiltzen duen, soluzio bakarra duten 2×2 edo 3×3 erako ekuazio linealen sistematik ebazteko. 4.1. Ea programazio-eredu linela aplikatzen duen 4.2. Ea optimizatubeharreko funtzioa definitzen duen eta ea justifikatzen duen egindako aukera. 4.3. Ea aljebraikoki adierazten dituen murrizketak eta egindako transkripzioa ea zehazki azaltzen duen. 4.4. Bi aldagaiko inekuazio-sistema linealak grafikoki eta aljebraikoki ebatea eta emaitzen multzoa grafikoki adieraztea. 4.5. Ea gai den emaitzak aztertutako egoeraren testuinguruan interpretatzeko. 5.1. Ea gai den oinarritzko funtzioak grafikoki adierazteko eta ea zuzen interpretatzen dituen funtzio horien ezaugarriak. 5.2. Ea problema errealek funtzioarik egokienarekin lotzen dituen eta ea justifikatzen duen egindako aukera. 5.3. Ea kalkulatu duen kurba baten zuzen ukitzailearen ekuazioa puntu batean, zenbait baldintzapean 5.4. Ea gai den funtzio baten monotonia tartekak aztertzeke eta mutur erlaztiboak kalkulatzeko 5.5. Ea gai den funtzio baten kurbadura tartekak aztertzeke eta inflexio-puntuak kalkulatzeko 5.6. Ea dakien funtzio polinomiko baten parametroen kalkulatu, zenbait baldintzapean 5.7. Ea gai den funtzio polinomikoaren adierazpen grafikoa egiteko, zenbait propietate aztertu ondoren 5.8. Ea gai den testu inguru batean, funtzio polinomiko baten bidezko interpretazioa egiten 6.1. Ea kalkulatu dituen oinarritzko funtzioen (polinomiko, esponentziak eta logaritmiko) deribatuak eta ea deribazio-erregelak aplikatzen dituen biderkadura, zatidura eta konposizioa kalkulatzeko. 6.2. Ea dakien asintotak kalkulatu eta grafikoaren eskema egiten 6.3. Ea gai den funtzio baten monotonia tartekak aztertu ondoren, funtzio arrazional baten adierazpen grafikoa egiteko 6.4. Ea gai den testu inguru batean, funtzio arrazional baten bidezko interpretazioa egiten
---	---

	7.1. Ea ezagutzen duen jarraitutasuna eta deribagarritasuna kontzrptuak bereizten 7.2. Ea gai den zenbait propietate aztertu ondoren , zatikako funtzio baten adierazpen grafikoa egiteko 7.3. Ea gai den testu inguru batean, zatikako funtzio baten bidezko interpretazioa egiten 7.3. Ea dakien optimizazio problemen planteamentzen eta ebazten 8.1. Ea dakien oinarritzko funtzio baten jatorrizkoa kalkulatzeko, zenbait baldintzapean. 8.2. Ea dakien funtzioaren integral mugagabearen kalkulatzeko, linealtasun propietateak erabilita. 8.3. Ea dakien integral mugatu bat eremu erraz baten azalerarekin lotzen. 8.4. Ea ezagutzen duen Barrow-ren erregela eta erabiltzen du integral mugatuak kalkulatzeko. 8.5. Ea dakien kurba batek eta X ardatzak tarte batean zehazten duten esparruaren azalera kalkulatzeko. 8.6. Ea dakien bi kurbaren arteko azalera lortzen. 9.1. Ea dakien enuntziatu bat gertaeren bidez adierazten. 9.2. Ea konbinazio-teknikak erabiltzen dituen kasuak zenbatzeko. 9.3. Ea gai den gertaera baten probabilitatea zehazteko kontaketa-teknika (diagramak, zuhaitzak, kontingentzia-taulak,..) egokia erabilita 9.4. Ea egoki erabiltzen dituen probabilitatearen legeak, gertaera baten probabilitatea lortzeko 9.5. Ea bereizten dituen gertaera baldintzatua eta gertaera independentea. 9.6. Ea gai den gertaera baten “probabilitate a posteriori” kalkulatzeko 10.1. Ea gai den egoera erreal bat parámetro egokien banaketa binomial edo normal batekin lotzeko.. 10.2. Ea gai den gertaera baten probabilitatea banaketa binomial edo normal bidez zehazteko. 11.1. Ea kalkulatzeko duen aztertutako parametroaren (batazbestekoa edo proportzioa) konfidantza-tartea 11.1. Ea laginaren tamaina kalkulatzeko duen eskatutako konfidantza-maila lortzeko.
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
6	1. Ekuazio linealeko sistemak	12	5. Funtzio polinomikoen azterketa	8	8. Integrala eta bere erabilerak
8	2. Matrizeak	11	6. Funtzio arrazionalen azterketa	12	9. Probabilitatea
8	3. Determinanteak eta ekuazio linealeko sistemak.	5	7. Zatikako funtzioen azterketa	8	10. Banaketa normala
7	4. Programazio lineala.			5	11. Inferentzia estatistikoa

METODOLOGIA

Klaseen jarduera: Apunte-txostena da ikasgaiaren garapenerako ardatz nagusia. Kontzeptuen azalpena, adibide lagungarriak eta klasean garatzeko ariketak. Ikasgai bakoitza, unitatetan dago banatuta. Orohar, unitate bat garatzeko eskola ordu bat (saio) erabiltzen da.

Ikasleak ere kabuz egitekoa: Astero, aste horri dagozkion helburuak eta egin beharrekoak (ariketak eta problemak) finkatzen ditu irakasleak

Irakasleak banatutako apunte-txostenak dira baliabide nagusia (3 ale). Huetan, azalpen teorikoak, klasean egiteko ariketak, ariketa eredu ebatziak eta proposatutako ariketa gehigarriak biltzen dira.

Horretaz gain, klaseetan garatutako kontzeptuak eta prozedurak garatzeko (sakontzeko) ikasgela birtuala erabiliko da. Bertan, txostenetan azaltzen diren ariketa gehigarri guztiak ebatzita, eskuragarri ditu ikasleak. Klaseko jarduerak osatzeko edota detektatu daitezkeen gabeziak indartzeko, zenbait ariketa eredu bidez egongo dira eskura.

IKT baliabideak.Ikasgela birtuala: Alexia Classroom . Aurrekoarekin batera, ikasturtearen garapen osoa Alexia Classroom aplikazioan joango da azaltzen. Honetan, ikasleak ondorengoak izango ditu eskura:

- Aurreko atalean aipatutako txostenetan azaltzen diren azalpenak, klaseko ariketak eta ariketa gehigarri guztiak ebatzita.
- Klasean garatutakoa, azalpen teorikoak, klasean landuko diren ariketa/problema bidez grabatuta .
- Astero egin beharreko lanak, froga eta azterketen edukiak, hauen datak, azterketa ereduak,...

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Astero, aste horri dagozkion helburuak eta egin beharrekoak (ariketak eta problemak) finkatzen ditu irakasleak. Asteko azken klasean (ostiraletan) , asteko lanak ebaluatzen dira, froga labur baten bidez (ariketa bat - 10 minutu- Puntuazioa: 0tik 1 era). Astearen bukaeran (ostiraletan)egindako froga bakoitzak 0,5 balioko du ebaluazioaren notarako. Azken hauetan lortutakoa guztira, ebaluazioko kalifikazioaren %20a izango da gehienez. Ebaluazio azterketaren balioa, ebaluazioko kalifikazioaren %80a izango da. Ebaluazio batean bi azterketa eginez gero: zati bakoitzean aurreko paragrafoan azaldutako kriterioa erabiliko da. Aurreneko zatia gaindituz gero, zati hori “liberatuko” da. Ebaluazioko kalifikazioa lortzeko, zati bakoitzak pisu desberdina izan dezake, erabilitako ordu lektibo kopuruaren arabera. <i>Ebaluazioko nota</i> $= (\text{ostiraletako nota}) * \%20 + \text{ebaluazioko azterketa} * \%80$ Ikasturteko kalifikazioa hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da.	Ebaluazioaren behin betiko nota kalkulatzeko, bigarren saiakeran lortutako nota (%80) eta lehendik zuen nota (%20) kontutan hartuko dira. Ebaluazioa gainditzeko aukera gehiago balego, behin betiko notarako, aurreko saiakera bakoitzak %20a balio izango du. <i>Ebaluazioko behin – betiko nota</i> $= (\text{Ebaluazioko nota}) * \%20 + (\text{errekuperazio} - \text{azterketako nota}) * \%80$ Nota igotzeaz: Ebaluazioa gainditu arren, ikasleak nota hobetzera aurkezteko eskubidea du. <u>Salbuespenez erabili behar du ikasleak</u> eskubide hau, <u>ez da ohiko bihurtu behar</u>. Kasu honetan ere, ebaluazioaren behin betiko nota kalkulatzeko, bigarren saiakeran lortutako nota (%80) eta lehendik zuen nota (%20) kontutan hartuko dira.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
Ebaluazioro erredukuperazio azterketa egiten da . Hori prestatzeko materiala (ariketak) banatu egiten zaie eta lan egiteko egutegi bat proposatu. Ikaslearen esku gelditzen da, programa horri atxekitzea edo erredukuperazio azterketa bere kabuz prestatzea. Maiatzeko azterketan, ikasleak kurtsoan zehar ez erredukuperatutako ebaluazioak gainditzeko aukera berri bat izango du. Bigarren deialdirako, gainditu gabeko ebaluazioak geldituko zaizkio pendiente. Horiek prestatzeko, erredukuperazio klaseak izango ditu. Lehenengo deialdiko azterketan (Maiatza), ikasleak suspendituak dituen ebaluazioak gainditu ahal izateko azterketa izango du (edo 3.ebaluazioko erredukuperazio azterketa soilik egin dezake). Bigarren deialdirako, gainditu gabeko ebaluazioak geldituko zaizkio pendiente.	
OHARRAK	
Itxialdian geratu beharra gertatuz gero, hemen aipatzen diren hainbat gauza (taldekatzeak, baliabideak, ebaluazio tresnak, edukien sekuentzia...) alda litezke. Kasuan kasuan adieraziko zaie ikasleei egoera berrian egin den aldaketa eta horren aurrean berek egin behar dutena.	

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	Kodea:	013379
Etaia:	BATXILERGOA	Zikloa/maila	2. MAILA
Arloa/irakasgaia:	MARRAZKETA TEKNIKOAK II		
Osatutako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	1. Arazo teknologikoak zehaztasunez hautematea eta mugatzea, eta horiek konpontzeko irtenbideak diseinatzea, jakintza teknologikoak eta gainerako jakintza-adarretakoak erabilia edota objektuak zein sistemak aztertzeko metodoaren bidez eskuratutako jakintzak baliatuta, irtenbide horien plangintza eta gauzapea eraginkorra, sortzailea eta lankidetzan gauzatutakoa izan dadin. 2. Ingurune teknologikoko baliabideak testuinguru anitzetan erabiltzea, informazioa egoki aukeratu eta interpretatuta, ingurune horren funtzionamendua ulertzeko eta egungo gizarte teknifikatuko ohiko arazoak konpontzeko. 3. Irtenbide teknologikoak inplementatzea, eta, horretarako, agiriaren bidezko plangintza bat baliatzea, lan metodikoa egitea, segurtasuneko eta ergonomiako arauen bidez hurbiltzea egindako lana eta aurrez ezarritako baldintzak, eta emaitzen eta prozesuaren ebaluazioa egitea, hobekuntza-zikloak betetzen jarraitzeko. 4. Produkzio-sistemako osagaien bereizketa sistemikoa egitea eta haiengandik lortu beharreko objektu, sistema edo zerbitzuekin erlazionatzea, erabiltzen diren baliabideak eta iritsiko den azken emaitza optimizatzeke.		
Irakasleak:	Iñigo Jaka Ruiz	Ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Aintzat hartzea zer eginkizun eta garrantzi duen marrazketa teknikoak norbanakoen eta gizartearen bizitzan, hainbat eta hainbat alderditan (artean eta teknikan, adibidez), eta jakitun izatea hizkuntza objektibo eta unibertsala dela. Horren guztiaren helburua da ulertzea zer eginkizun duen informazioa ulertu, aztertu eta adieraztean. 2. Marrazketa teknikoaren berezko terminologia, lexikoa eta tresnak zein diren jakitea, eta modu egokian erabiltzea zenbait adierazpen-problemari emandako soluzioak besteei janarazi eta arrazoitzeke. Horren bidez, sakonago ikasiko dira marrazketa teknikoaren prozedurak eta aberastasun handiagoa izango da komunikazio-trukean. 3. Ebazpen eta eraikuntza grafikoak eraginkortasunez egitea, aintzat hartuta ebazpen grafikoaren zehaztasuna, argitasuna eta objektibotasuna funtsezkoak direla ideiak eta informazioak egoki komunikatu, jakinarazi eta interpretatzeko.	• Ingurunean eta arte-adierazpenetan marrazketa teknikoko baliabideak bereiztea eta zertarako diren arrazoitzea. • Loturak ezartzea lan-prozesuetan izaten diren desberdintasunen eta antzekotasunen artean, etaikasgaiaren beraren lexikoa eta teknologia behar bezala erabiltzea. • Aintzat hartzea prozesuaren zorrotasun grafikoak, argitasuna, zehaztasuna eta ebazpen eta eraikuntza grafikoaren prozesua, azken adierazpen hobezina egiteko. • Geometria lauho problemak ebaztea, proposamenak, prozedurak eta ebazpen-aukerak arrazoituz baloratuta, eta ebazpen-prozesuan zorrotasunez jotatuta. • Adierazpen-sistemak erabiltzea, batzuen eta besteen komunikazio-aukeren alderaketak egitea, eta egoera bakoitzean ikuslearentzat egokia dena aukeratzea.

4. Geometria metrikoaren oinarriak jakin eta ulertzea, eta haren baliabideak egoki erabiltzea, planoan formak eratzeko problemetan erabiltzeko, egoerak problematizatzeko, ideiak berregiteko eta konponbide arrazoituak eta askotarikoak proiektatzeko. 5. Adierazpen-sistemak aintzat hartu eta erabiltzea espazioan problema geometrikoak ebazteko eta planoan hiru dimentsioko formak irudikatzeko, eta problema bera sistema desberdinez ebaztean lortutako emaitzak alderatzea, kasuan-kasuan egokiena eta adierazgarriena dena aukeratzeko, eta azterketa-ahalmena, hausnarketa kritikoa, komunikazioa eta pentsamendu dibergentea garatzeko. 6. Marrazketa teknikoaren oinarriak jakin eta ulertzea, haren arauen unibertsaltasunean oinarrituta, planoak, diseinuak eta produktu artistikoak irakurri eta interpretatzeko erabiltzeko, formak irudikatzeko eta problema geometrikoei soluzio arrazoituak emateko. 7. Krokisa, bozetoa eta apuntea zer diren jakitea eta zein garrantzitsuak diren jabetzea, ezinbesteko elementuak baitira diseinu-prozesuan eta konponbideen bilaketan, adierazpenak abileziak eta azkar egiteko eta adierazpen grafiko egokia lortzeko. 8. Banaka eta taldean, edozein eraikuntza geometrikoren plangintza egitea eta hura egiteko prozesuaz hausnartzea, ulertzeko zein garrantzitsua den beste pertsona batzuekiko harremana, dela lortu nahi dena konpartitzeko, dela faseak berrikusteko eta emaitzen ebaluazioa egiteko, eta taldeko lana erantzukizunez, tolerantziaz eta besteen iritzia errespetatuz egitea. 9. Marrazketako eta diseinuko teknologia eta programekiko interesa izatea, eta baliabide tradizionalen osagarri moduan dituzten aukerak aintzat hartzea, lana antolatze eta errealitatea irudikatzeko beste aukera batzuk ematen baitituzte, konponbide grafikoak eta geometrikoak azkarrago eta arinago ematen dituzte eta.	• Sistema diedrikoa erabiltzea puntuen, zuzenen, irudi lauen, solidoen eta abarren posizio eta neurri erlazioak ezartzeko, eta bere irizpideak ezarriz kasuan-kasuan egokiena den metodoa erabiltzea. • Espazio-ikuspegia menderatzen duela erakustea hiru dimentsioko objektuak adieraziz, zenbait motatako perspektiba axonometrikotan marraztuta, eta adierazpen-sistema horien ezagutza espezifikoak izatea. • Objektuak marraztea perspektiba konikoan, proiektzio diedrikoan emandako datuetatik abiatuta, etazuzen interpretatzea ikuspuntuaren posizioari eta koadroaren planoari eta plano geometralari dagokienez. • Grafikoki zehaztea industriako edo arkitekturako (eraikuntza) pieza eta elementuak, egoki aplikatuta bistei, ebaketei, sekzioei, hausturei eta akotazioari buruzko arauak eta modalitate bakoitzeko sinbologia. • Krokisak, bozetoak, apunteak eta perspektibak esku hutsez marraztea, adierazpen grafikoan ezinbestekoa den trebezia eta azkartasuna lortzeko. • Eraikuntza geometrikoko proiektuak egitea eta haren prozesuetan parte-hartze aktiboa eta arduratsua izatea, izan banako proiektuak izan taldeko proiektuak, eta proiektuaren alderdi estetikoak eta teknikoak hobetzeko ideiak eta iradokizunak ematea. • Jakitea ordenagailuz lagundutako diseinuak zer ezaugarri eta funtzio dituen eta zertarako den erabilgarri, eta aintzat hartzea haren adierazpen- eta komunikazio-aukerak.
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
4	1. Sistema diedrikoaren oinarriak.	12	4. Plano aldaketaren aplikazioak: paralelotasuna eta perpendikularitasuna, elkarguneak eta distantziak.	10	8. Sistema axonometrikoko ortogonalak.
15	2. Sistema diedrikoko metodoak: eraispena, biraketa eta plano aldaketa.		5. Gorputz trinkoak eta gainazalak.	10	9. Potentzia eta inbertsioa.
15	3. Selek prestatzen: ➢ Bistak. ➢ Ebakidurak eta normalizazioa. ➢ Proiektzioak eta benetako magnitudea.	5	6. Gainazalen ebakidurak eta garapenak.	15	10. Selek prestatzen: ➢ Isometrikoko. ➢ Kurba konikoak. ➢ Ukiztaileak.
		5	7. Selek prestatzen: ➢ Bista lagungarriak. ➢ Elkarguneak. ➢ Distantziak eta benetako neurriak.		
		13			

METODOLOGIA

Erabiltzen den metodologiak, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak; estrategia hauetan garrantzia bizia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek, Marrazketa Teknikoaren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute.

Era berean talde-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko.

Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira:

- Gai batzuetan ikasleen ikerketa bultzatuko da, aurreko ezagutzetan oinarrituz gai berrien prozedurak aurki ditzaten.
- Gelan ikasleak hiruak eseriko dira, elkarlana eta lankidetzak bultzatzeko.
- Irakasleak gaiak azalduko ditu, ikasle guztiak uler ditzaten.
- Ikasleek gai batzuk prestatuko dituzte eta besteen aurrean azaldu. Gaiak laboratu eta eskema bultzatuko dira ikasleek edukiak bere garrantziaren arabera sailkatzen ikas dezaten.
- Ikasleek zenbait ariketa egingo dituzte gaiaren zehaztasunak ulertzeko eta barneratzeko. Hauetako zenbait lan irakasleak zuzenduko ditu eta ikasleak itzuli. Beharrezkoa izanez gero lanak berriro eginaraziko zaizkio ikasleak.
- Lanak proposatuko dira, gaietan eta ariketetan ikasi dutena errealitatearekin zerikusia duten proiektuetan erabili ditzaten.
- Aplikazio informatikoak erabiliko dira ikasleek bere ordenagailuetan ere ariketa batzuk ebatz ditzaten.

BALIABIDEAK:

Apunteak: Arloaren euskarri nagusia, liburu ezberdinetatik jasotako apuntetan oinarritua dago.

Testu liburuak: Testu liburu bat baino gehiago erabili dira apunteak osatzeko. Horien artean: *Marrazketa Geometrikoa* eta *Geometria Deskribatzailea* barne, *Marrazketa Sistema diedrikoan* (F. Javier Rodríguez de Abajo eta Roberto Galarraga), *Logse Batxilergoa- Marrazketa Teknikoa* (Anaya), *Marrazketa Teknikoa* (Erein), daude.

Internet: Arbela digitalaren laguntzaz interneten dauden baliabideak (web-orriak, animazioak, bideoak) gaietan sakontzeko erabiliko dira.

Alexia Classroom (moodle): plataforma honetan apunteak web orri gisa zintzilikatuta daude, honek ematen duen aukerak aprobetxatu nahian (geogebra appletak, bideoak, aurkezpen dinamikoak eta abar txertatzea, adibidez).

Programa informatikoak: Erregela eta ohiko tresnak aparte, ordenagailua ere zenbait ariketa egiteko erabiliko dute, Geogebra erabiliz.

Google Meet bitartez konfinatuta dauden ikasleekin komunikatu eta klaseak emango zaizkie, Alexia Classroom ezagutzak transmititzeko ardatz hartuta.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
1. Ebaluazio bakoitzean azterketa bat egingo da. Bertan selektibitateko ariketak eta ebaluazioan zehar eman diren gaien ariketak jarriko dira.	1. Ebaluazioaren nota azterketaren nota izango da. Nolanahi ere, notan eragina izango duten aldatzaileak egongo dira, jarraian ikusiko dugun bezala.
2. Astero selektibitateko ariketak klasean egin eta mota bakoitzetik 3 kalifikatuko dira. Selektibitatearen ariketen mota bakoitzaren notaren batez bestekoa 6 edo gehiago bada, azterketaren zati hori liberatzen da.	2. Selektibitateko motaren bat liberatzen bada, asteroko kontroletan atera duen nota batez bestekoa egiteko kontuan hartuko da. Ikasleak nota hori igotzeko aukera izango du azterketan, eta nota altuena jarriko zaio.
3. Lehenengo ebaluazioan plano aldaketari eta diedrikoaren oinarriari buruz kontrol bat	3. Plano aldaketari eta diedrikoaren oinarriari buruz kontrolak azterketaren zati baten balioa izango du, notaren %15.

egingo da. Errepikatu behar izango dute gainditu arte. 4. Astean behin etxeko-lanak bidaliko dira eta nota igotzeko balio izango dute. 5. Talde-lanak eta proiektuak ere kalifikatu egingo dira.	4. Azterketako nota ez da biribilduko ebaluazioko nota jartzeko, horretarako etxeko-lanak erabiliko dira. Etxeko-lan bakoitzak nota bat izango du (0,1 ondo badago, 0 erdixka eta -0,1 gaizki badago), eta azterketaren notari gehituko zaio. Hau egin eta gero, nota osorik baxuenera biribilduko da. 5. Talde-lanak eta proiektuak egiten direnean, notaren %20 izango dira.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
• Ebaluazioa gainditu ez bada, berreskurapena azterketa berriro egitea izango da. ○ Ebaluazioan zehar selektibitateko motaren bat liberatu bada, nota gordeko da eta ez du berreskurapenean egin behar. ○ Etxeko-lanak ez dira gordeko. ○ Talde-lanen eta proiektuen nota gordeko da. ○ Berreskurapena gainditzeko 5 bat nahikoa izango da. 5 bat baino gehiago bada, biribiltzeko momentuan puntu bat jaitsiko da, bere garaian ateratzen duena eta errekupeazioan ateratzen duena bereizteko. • Nota igotzera aurkezten dena azterketa osoa egin beharko du, ebaluazioan egindako selektibitateko ariketak ez dira kontuan edukiko, eta nota hobetzen badu bakarrik kontatuko dio. • Ezohiko deialdian aprobatuz gero, nota 5 bat izango da, ebaluazioetan zehar atera duenarengandik bereizteko.	

OHARRAK

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko/ikasmailako programazio didaktikoa

ikastetxea:	Oiartzo Batxilergo ikastola	kodea:	013379
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila:	2
arloa/irakasgaia:	MATEMATIKA II		
osatutako arloak/irakasgaiak	----		
diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	1.1. Estrategia egokien bidez identifikatzea eta ebaztea eduki matematikoa duten zenbait arazo-egoera, eta, horrela jokatuta, ingurunea hobeto ulertzeko urratsak ematea. 2. Jakintza matematikoak erabiltzea eguneroko edota zientziaren esparruko egoerei aurre egiteko, egoera horiek "modelizatuta"; hau da, egoerak termino matematikoetan adieraztea, modelo edo ereduari jarraitzea eta emaitzak testuinguruaren barruan interpretatzea. 3. Bizitzaren hainbat esparrutako informazioak, argudioak eta emaitzak interpretatzea eta adieraztea, hizkuntza matematiko egokia erabilia. 4. Jakintza matematikoak ezagutzea, erlazionatzea, integratzea eta balioestea, egoera bakoitzaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta. 5. Arrazoitze modu askotarikoak erabiltzea nork bere ondorioak eta horietara iristeko prozesua justifikatzeko, bai eta gainerako pertsonen aurkeztutako emaitzak modu kritikoan aztertze ere. 6. Prozedura matematiko egokiak hautatzea eta erabiltzea errealitatearen kalkulatzeko, irudikatzeko eta interpretatzeko, eta, horren harian, eraginkortasunaren mesedetan erabiltzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.		
irakasleak:	Txema Marin Arrizabalaga	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1.– Errealitate sozialari eta matematikari berari buruzko problemak proposatzea, hipotesiak egiten, hainbat estrategia aukeratzen eta erabiltzen, ebazpen-prozesua arrazoitzen, emaitzak interpretatzen eta justifikatzen eta haiek egoera berrietan aplikatzen, eraginkortasun handiagoz egungo gizarteko erronkei aurre egiteko.	1.1. Ea dakien integral mugatu bat eremu erraz baten azalerarekin lotzen. 1.2. Ea ezagutzen duen Barrow-ren erregela eta erabiltzen du integral mugatuak kalkulatzeko. 1.3. Ea dakien kurba batek eta X ardatzak tarte batean zehazten duten esparruaren azalera kalkulatzeko. 1.4. Ea dakien bi kurbaren arteko azalera lortzen. 1.5. Ea dakien kurba eta zuzen ukitzaile baten arteko azalera lortzen.

2.– Eredu teorikoak (algebraikoak, funtzionalak, estatistikoak eta probabilitistikoak) eta haiei buruzko edukiak erabiltzea, matematika aplikatzen gizarte-zientzien esparruko gertakariak analizatzeko, interpretatzeko eta iragartzeko. 3.– Zentzuzko diskurtsoa erabiltzea egoera problematikoei buruzko irizpenak eta erabakiak hartzen, eta, horretarako, prozedurak justifikatzen, argudioak zuzen lotzen, norberaren arrazoibideak zehatzak izaten eta besterenak kritikoki analizatzen, jarrera malgu, ireki eta kritikoa izateko. 4.– Matematika-hizkuntzaren eta -adierazpenaren berezko tresnak (zenbakiak, taulak, grafikoak, funtzioak, sinbolorik ohikoenak...) autonomiaz eta sormenez erabiltzea, matematika-terminoak, -notazioak eta -adierazpenak ulertzen eta erabiltzen, nork bere pentsamenduak argi eta koherentziaz azaltzeko. 5.– Egungo informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dituzten baliabideak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) zentzuz erabiltzea, egoeraren arabera egokienak hautatzen, informazioa biltzeko eta prozesatzeko, datu asko maneiatzeko eta kalkuluak egiteko problemak ebazteko behar bezain zehatz eta azkar. 6.– Matematika kulturaren osagaitzat hartzea, historian izan duen eta egungo gizartean duen egitekoa kontuan hartuta, matematika eta ingurune soziala, kulturala eta ekonomikoa erlazionatzen, gizarteko hainbat gertakari aztertzeko eta balioesteko eta nork haiekin konpromisoa hartzeko. 7.– Lanean beharrezko eta ohikotzat hartzeko, matematika-jardueraren eta ikerketa sozioekonomikoaren berezko jarrerez jabetzea eta haiek erabiltzea: matematika-hizkuntza balioesten, datuak egiaztatzen eta alderatzen, argudioak kritikoki analizatzen, prozesuak eta emaitzak sistematikoki berrikusten eta talde-lana balioesten. 8.– Matematika-kontzeptuak, -prozedurak eta -estrategiak erabiltzea, matematika-arloan bertan eta matematikaren eta beste jakintza-arlo batzuen arteko harremanetan eta aplikazioetan aurrera egiten, hartara, gizarte- eta ekonomia-gaiei eta beste gai batzuei buruzko ikasketak egin ahal izateko.	1.1. Ea egiten dituen eragiketa konbinatuak matrizeekin (oinarrizkoak). 1.2. Ea kalkulatzeko duen matrize (2×2) baten alderantzizkoa, definizioa erabiltzea. 1.3. Ea kalkulatzeko duen matrize baten n. berreduraren legea 1.4. Ea ebazten dituen ekuazio matritzialak. 2.1. Ea kalkulatzeko dituen 2 edo hiru ordenako determinanteak, Sarrus en erregela erabiltzea. 2.2. Ea ezagutzen dituen determinanteen propietateak, dagokion balioaren kalkulua errazteko. 2.3. Ea kalkulatzeko dituen lau ordenako determinanteak, zeroak eginez eta errenkada baten bidez garatuta. 2.4. Ea dakien matrize baten alderantzizkoa (3×3) existitzen den eta kalkulatzeko du. 2.5. Ea kalkulatzeko du zenbakizko matrize baten heina, Gaussen metodoaren bidez 2.6. Ea kalkulatzeko du zenbakizko matrize baten heina, minoreen bidez 3.1. Ea bereizten duen sistema bat bateragarria edo bateraezina den, eta azken kasu horretan, determinatua edo indeterminatua den. 3.2. Ea ebazten dituen ekuazio linealen sistematik Gaussen metodoaren bitartez. 3.3. Ea dakien ekuazio-sistema bat matrize moduan adierazten, eta ahal bada, koefiziente-matrizearen alderantzizkoa lortuz kalkulatu. 3.4. Ea Cramer-en erregela erabiltzen duen, soluzio bakarra duten 2×2 edo 3×3 erako ekuazio linealen sistematik ebazteko. 3.5. Ea eztabaidatzen dituen parametro baten mendeko ekuazio linealen sistematik, Gaussen metodoa erabiliz. 3.6. Ea eztabaidatzen dituen parametro baten mendeko ekuazio linealen sistematik, Rouché-Frobenius en erabiliz. 4.1. Ea kalkulatzeko dituen bektoreen arteko biderkaketa eskalarra, bektoriala eta mistoa eta beren esanahi garfikoak bereizten dituen. 4.2. Ea dakien zuzenaren ekuazio desberdinak bereizten eta bertan agertzen diren datuak irakurtzen. 4.3. Ea dakien planoaren ekuazio desberdinak idazten eta bertan agertzen diren datuak irakurtzen. 4.4. Ea dakien bi zuzen, bi plano edo zuzen eta plano baten posio erlatiboa bereizten. 4.5. Ea dakien bi zuzen, bi plano edo zuzen eta plano baten posio erlatiboa eztabaidatzen parametro baten arabera. 4.6. Ea dakien zuzena eta planoaren ekuazioak eta bektoreen propietateak erabiltzen espazioko problema afinak edo metrikoak ebazteko 4.7. Ea dakien determinatzen zuzen edo plano baten ekuazioa, intzidentzia edo paralelotasun zenbait baldintza emanda. 4.8. Ea dakien grafikoki interpretatzen ekuazio sistema baten ebazpena 5.1. Geometria analitikoaren laguntzaz, ea dakien distantziak eta angeluak kalkulatzeko. 5.2. Ea gai den egoera geometri sinpleak ebazten, bereziki, erdibideko planoak, zuzen perpendikularrak,... 5.3. Ea dakien kalkulatzeko puntu baten simetria, zuzen batekiko eta plano batekiko 5.4. Ea dakien kalkulatzeko puntuen koordenatuak eta zuzen eta planoen ekuazioak, intzidentzia, paralelo, elkartutikotasun baldintzetan oinarrituta. 6.1..Ea dakien funtzio baten grafiko egiten eta alboko limiteak idazten 6.2..Ea dakien limiteak kalkulatzeko $\frac{k}{0}$ kasua $k \neq 0$, Indeterminazioaren ebazpena alboko limiteak kalkulatu 6.3..Ea dakien $\frac{0}{0}$, $\frac{\infty}{\infty}$, $\infty - \infty$, $0 \cdot \infty$, 1^∞ indeterminazioak ebazten 6.4..Ea dakien limiteak kalkulatzeko, espresio algebraikoan agertzen diren parametroen arabera. 6.5..Ea dakien asintotak kalkulatzeko eta grafikoaren eskema egiten 6.6.. Ea dakien asintotak kalkulatzeko, espresio algebraikoan agertzen diren parametroen arabera.
--	---

	..6.7..Ea gai den jarraitutasuna puntu batean aztertzeke eta etenak lortu eta sailkatzen ..6.8..Ea gai den funtzio baten jarraitutasuna eztabaidatzeko, bere espresio algebraikoan agertzen diren parametroen arabera. ..6.9..Ea gai den jarraitutasuna aztertzeke, grafikoaren bidez eraldatzeko. ..7.1..Ea dakien aldakuntza tasaren kalkulatzeko tarte batean eta bere esanahi geometrikoa azaltzen. ..7.2..Ea dakien funtzio deribatua aurkitzen deribatuaren definizioaren bidez ..7.3..Ea dakien funtzio deribatuaren kalkulatzeko arauak erabiliz ..7.4..Ea dakien funtzio deribatuaren kalkulatzeko kalkulak deribazio logaritmikoaren bidez ..7.5..Ea gai den funtzio deribatuaren kalkulatzeko, funtzioa era inplizituan emanda ..7.6..Ea kalkulatzeko duen funtzio konposatuaren deribatua katearen erregela erabiliz. ..7.7..Ea kalkulatzeko duen funtzio baten ondoz-ondoko deribatua, sor daitezkeen legeak aztertuz ..7.8..Ea kalkulatzeko duen kurba baten zuzen ukitzailearen ekuazioa puntu batean, zenbait baldintzapean ..7.9..Ea gai den funtzio baten deribagarritasuna aztertu puntu batean eta jarraitutasunarekin erlazionatzeko ..7.10..Ea gai den funtzio baten deribagarritasuna aztertzeke bere espresio algebraikoan agertzen diren parametroen arabera. ..8.1..Ea gai den funtzio baten monotonia tarteak aztertzeke eta mutur erlazitiboak kalkulatzeko ..8.2..Ea gai den funtzio baten kurbadura tarteak aztertzeke eta inflexio-puntuak kalkulatzeko ..8.3..Ea gai den funtzio deribatuaren grafikoa emanda, f ren ezaugarriak aztertzeke ..8.4..Ea dakien funtzio polinomiko baten parametroen kalkulatzeko, zenbait baldintzapean ..8.5..Ea dakien optimizazio problemen planteamentzen eta ebazten ..8.6..Ea gai den Rolle-ren teorema aplikatzeko, bere hipotesiak egiaztatu eta bere esanahi geometrikoarekin erlazionatzeko ..8.7..Ea gai den Batez besteko balioaren teorema aplikatzeko, bere hipotesiak egiaztatu eta bere esanahi geometrikoarekin erlazionatzeko. ..8.8..Ea dakien Rolle eta Batez besteko balioaren teoremetan, hipotesiak aztertzen funtzioaren espresio algebraikoan agertzen diren parametroen arabera. ..8.9..Ea dakien L'Hôpitalen araua erabiltzen, $\frac{0}{0}$ eta $\frac{\infty}{\infty}$, $0 \cdot \infty$ eta $\infty - \infty$, 1^∞, 0^∞ eta ∞^0 indeterminazioak ebazteko. ..9.1..Ea gai den funtzio Polinomikoaren adierazpen grafikoa egiteko, zenbait propietate aztertu ondoren ..9.2..Ea gai den funtzio Arrazionalaren adierazpen grafikoa egiteko, zenbait propietate aztertu ondoren ..9.2..Ea gai den beste zenbait funtzioen (Irrazionala, Esponentzial, Logaritmiko, Trigonometriko) adierazpen grafikoa egiteko, zenbait propietate aztertu ondoren ..10.1..Ea dakien oinarritzko funtzio baten jatorrizkoa kalkulatzeko, zenbait baldintzapean. ..10.2..Ea dakien funtzioaren integral mugagabearen kalkulatzeko, linealtasun propietateak erabiliz. ..10.3..Ea dakien integral mugagabearen kalkulatzeko, aldagai aldaketa metodoa erabiliz berehalako integraletan eraldatzeko. ..10.4..Ea dakien oinarritzko funtzioen biderkatutaren integral mugagabearen kalkulatzeko, zatikako metodoa erabiliz berehalako integraletan ..10.5..Ea gai den funtzio arrazional baten integral mugagabearen kalkulatzeko, zatiki bakunetan deskonposatzeko metodoa erabiliz. ..10.6..Oinarritzko funtzio trigonometrikoetan, berdintza trigonometrikoak erabiliz, edota aldagai aldaketa sinpleak erabiliz, ea gai den integral mugagabearen kalkulatzeko. 11.1. Ea dakien integral mugatu bat eremu erraz baten azalerarekin lotzen. 11.2. Ea ezagutzen duen Barrow-ren erregela eta erabiltzen du integral mugatuak kalkulatzeko.
--	---

	11.3. Ea dakien kurba batek eta X ardatzak tarte batean zehazten duten esparruaren azalera kalkulatzeko. 11.4. Ea dakien bi kurbaren arteko azalera lortzen. 11.5. Ea dakien kurba eta zuzen ukitzea baten arteko azalera lortzen. 12.1. Ea dakien enuntziatu bat gertaeren bidez adierazten. 12.2. Ea konbinazio-teknikak erabiltzen dituen kasuak zenbatzeko. 12.3. Ea gai den gertaera baten probabilitatea zehazteko - teknika (diagramak, zuhaitzak, kontingentzia-taulak,..) egokiena erabiltzen 12.4. Ea egoki erabiltzen dituen probabilitatearen legeak, gertaera baten probabilitatea lortzeko 12.5. Ea bereizten dituen gertaera baldintzatua eta gertaera independentea. 12.6. Ea gai den gertaera baten "probabilitate a posteriori" kalkulatzeko 13.1. Ea gai den egoera erreal bat parámetro egokien banaketa binomial edo normal batekin lotzeko.. 13.2. Ea gai den gertaera baten probabilitatea banaketa binomial edo normal bidez zehazteko. 13.3. Ea dakien banaketa normalaren taula erreztasunez erabiltzen, probailitateak nahiz muga-balioak kalkulatzeko 13.4. Ea gai den banaketa binomial batetik banaketa normal batetara pasatzen, ahal den kasuetan
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA

	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
5	6.-Funtzioen limiteak eta Jarraitasuna.	11	10.-Integral mugagabeak.	9	4.-Zuzena eta planoak
9		5	11.-Integral mugatuak.	5	5.-Problema metrikoak
11	7.-Funtzioen deribatuak	5	1.-Matrizeak	7	12.-Zoria eta Probabilitatea
4	8.-Deribatuaren aplikazioak.	9	2.-Determinanteak	8	13.-Banaketa Binomiala eta Normala
	9.-Funtzioen adierazpen grafikoa.	6	3.-Ekuazio linealetako sistemak.		

METODOLOGIA

Klaseen jarduerak: Apunte-txostena da ikasgaiaren garapenerako ardatz nagusia. Kontzeptuen azalpena, adibide lagungarriak eta klasean garatzeko ariketak. Ikasgai bakoitza, unitatetan dago banatuta. Orohar, unitate bat garatzeko eskola ordu bat (saio) erabiltzen da.

Ikasleak ere kabuz egitekoak: Astero, aste horri dagozkion helburuak eta egin beharrekoak (ariketak eta problemak) finkatzen ditu irakasleak

Irakasleak banatutako apunte-txostenak dira baliabide nagusia (3 ale). Hauetan, azalpen teorikoak, klasean egiteko ariketak, ariketa eredu ebatziak eta proposatutako ariketa gehigarriak biltzen dira.

Horretaz gain, klaseetan garatutako kontzeptuak eta prozedurak garatzeko (sakontzeko) ikasgela birtuala erabiliko da. Bertan, txostenetan azaltzen diren ariketa gehigarri guztiak ebatzita, eskuragarri ditu ikasleak. Klaseko jarduerak osatzeko edota detektatu daitezkeen gabeziak indartzeko, zenbait ariketa eredu bidez egongo dira eskura.

IKT baliabideak.Ikasgela birtuala: Alexia Classroom . Aurrekoarekin batera, ikasturtearen garapen osoa Alexia Classroom aplikazioan joango da azaltzen. Honetan, ikasleak ondorengoak izango ditu eskura:

- Aurreko atalean aipatutako txostenetan azaltzen diren azalpenak, klaseko ariketak eta

- ariketa gehigarri guztiak ebatzita.
- Klasean garatutakoa, azalpen teorikoak, klasean landuko diren ariketa/problema bideoz grabatuta .
- Astero egin beharreko lanak, froga eta azterketen edukiak, hauen datak, azterketa ereduak,...

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Astero, aste horri dagozkion helburuak eta egin beharrekoak (ariketak eta problema) finkatzen ditu irakasleak. Asteko azken klasean (ostiraletan) , asteko lanak ebaluatzen dira, froga labur baten bidez (ariketa bat - 10 minutu- Puntuazioa: Orik 1 era). Astearen bukaeran (ostiraletan)egindako froga bakoitzak 0,5 balioko du ebaluazioren notarako. Azken hauetan lortutakoa.guztira, ebaluazioko kalifikazioaren %20a izango da gehienez. Ebaluazio azterketaren balioa, ebaluazioko kalifikazioaren %80a izango da. Ebaluazio batean bi azterketa eginez gero: zati bakoitzean aurreko paragrafoan azaldutako kriterioa erabiliko da. Aurreneko zatia gaindituz gero, zati hori “liberatuko” da. Ebaluazioko kalifikazioa lortzeko, zati bakoitzak pisu desberdina izan dezake, erabilitako ordu lektibo kopuruaren arabera. <i>Ebaluazioko nota</i> $= (\text{ostiraletako nota}) * \%20$ $+ \text{ebaluazioko azterketa}$ $* \%80$ Ikasturteko kalifikazioa hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da.	Ebaluazioaren behin betiko nota kalkulatzeko, bigarren saiakeran lortutako nota (%80) eta lehendik zuen nota (%20) kontutan hartuko dira. Ebaluazioa gainditzeko aukera gehiago balego, behin betiko notarako, aurreko saiakera bakoitzak %20a balio izango du. <i>Ebaluazioko behin – betiko nota</i> $= (\text{Ebaluazioko nota}) * \%20$ $+ (\text{errekuperazio}$ $- \text{azterketako nota}) * \%80$ Nota igotzeaz: Ebaluazioa gainditu arren, ikasleak nota hobetzera aurkezteko eskubidea du. <u>Salbuespenez erabili behar du ikasleak</u> eskubide hau, <u>ez da ohiko bihurtu behar</u>. Kasu honetan ere, ebaluazioaren behin betiko nota kalkulatzeko, bigarren saiakeran lortutako nota (%80) eta lehendik zuen nota (%20) kontutan hartuko dira.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
Ebaluazioro errekeruperazio azterketa egiten da . Hori prestatzeko materiala (ariketak) banatu egiten zaie eta lan egiteko egutegi bat proposatu. Ikaslearen esku gelditzen da, programa horri atxekitzea edo errekeruperazio azterketa bere kabuz prestatzea. Maiatzeko azterketan, ikasleak kurtsoan zehar ez errekeruperatutako ebaluazioak gainditzeko aukera berri bat izango du. Bigarren deialdirako, gainditu gabeko ebaluazioak geldituko zaizkio pendiente. Horiek prestatzeko, errekeruperazio klaseak izango ditu. Lehenengo deialdiko azterketan (Maiatza), ikasleak suspendituak dituen ebaluazioak gainditu ahal izateko azterketa izango du (edo 3.ebaluazioko errekeruperazio azterketa soilik egin dezake).	

Bigarren deialdirako, gainditu gabeko ebaluazioak geldituko zaizkio pendiente.

OHARRAK

Itxialdian geratu beharra gertatuz gero, hemen aipatzen diren hainbat gauza (taldekatzeak, baliabideak, ebaluazio tresnak, edukien sekuentzia...) alda litezke. Kasuan kasuan adieraziko zaie ikasleei egoera berrian egin den aldaketa eta horren aurrean berek egin behar dutena.

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	Kodea:	013379
Etap:	BATXILERGOA	Zikloa/maila	2. maila
Arloa/irakasgaia:	BIOLOGIA		
Osatutako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarritzko kompetentzia elkartuak	1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia 2. Matematikarako kompetentzia 3. Zientziarako kompetentzia 4. Teknologiarako kompetentzia 5. Kompetentzia sozial eta zibikoa 6. Kompetentzia motorra		
Irakasleak:	Ane Zubizarreta	Ikasturtea:	2021-22

Zeharkako kompetentziak	1. Hitzek, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. 2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. 3. Elkarbizitzarako kompetentzia. 4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. 5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia.
--------------------------------	--

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Biologiaren jakintzak hainbat testuingurutan erabiltzea, eta eguneroko egoeretan aztertzea zientzia horrek zer harreman duen teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin, gizakiak dituen arazo lokalei eta globalei buruzko erabakietan herritar gisa parte hartzeko, bizitza pertsonala eta soziala hobetzen laguntzeko, ingurumena mantentzen, babesten eta hobetzen laguntzeko eta, funtsean, gizaki guztientzako etorkizun egokia eta jasangarria eraikitzeke. 2. Problema identifikatzea, planteatzea eta konpontzea, ikerketa txikiak egitea –bakarka edo taldeka–, gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea zientzien estrategiak, eta lan zientifikoa saiakuntzaren eta sormenaren bidez egiten dela ohartzea, modu kritikoan eta testuinguruaren barruan ekin ahal izateko interes zientifikoa edo soziala duten eguneroko egoerei. 3. Informazio zientifikoa bilatzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia egokia eta hainbat euskarri eta	1. Ikasleak hasieran aipatutako helburuak modu positiboan lortu dituen ala ez baloratuko da. 2. Modu errazean zenbait fenomeno zergatia azaltzeko gai izan behar du: bizidunen egitura eta funtzioen arteko erlazioa, materia eta energia trukaketak, karaktereen herentzia. 3. Biologian izan diren ideia eta teorien aldaketek arrazoiak ulertu eta azaltzeko gai izan behar du. Biologiak gure gizarteetan duen zeregina argudiatzen jakin behar du. 4. Biologiako oinarritzko kontzeptuak ezagutzen dituela azaldu behar du o Bioelementuen eta biomolekula nagusien funtsezko zeregina deskribatzea, haien ezaugarri fisiko-kimikoak lotuz zelulan egiten dituzten funtzio biologikoekin.

baliabide erabiliz –analogikoak nahiz digitalak–, modu zehatzean, arrazoituan eta kritikoan komunikatu ahal izateko Biologiarekin lotutako gai zientifiko, teknologiko eta sozialei buruz. 4. Azalpenezko eskemak eginez harremanetan jartzea Biologiaren kontzeptu, teoria eta modelo nagusiak eta orokorrak jakintza multzo koherentetan, eta eskema horiek autonomiaz erabiltzea sistema biologiko eta geologiko nagusiak interpretatzeko –zientzian nahiz eguneroko bizitzan–, eta zientziaren adar horiek duten garapenaren ikuspegi global bat edukitzeko. 5. Biologia etengabe eraikiz doala ohartzea, hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertzea eta konparatzea, bai eta debate zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioestea ere, era horretan pentsamendu kritikoa garatzeko, zientziak pertsonen prestakuntza integralerako balio duela konturatzeko, eta gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko	o Zelula prokariotaren eta eukariotaren antolaketa-modeloak azaltzea, egiturazko diferentziak ezarriz, haien organuluak identifikatuz eta haien funtzioak deskribatuz. o Ziklo zelularraren ezaugarriak eta nukleoaren eta zitoplasmaren banaketa motak azaltzea, mitosiaren eta meiosiaren garrantzi biologikoa justifikatuz, sexu bidezko ugalketaren abantailak deskribatuz, eta meiosis lotuz espezieen aldakortasun genetikoarekin. O Mutazio motak bereiztea, gure planetaren biodibertsitatean, eboluzio-prozesuan eta pertsonen osasunean duten eragina aitortuz, horren frogak argudiatuz eta oinarri genetikoa azalduz. O Izaki bizidunen autodefentsa-mekanismoak aztertzea, erantzun immunitarioaren ezaugarriak azalduz, bai eta immunitatea lortzeko edo areagotzeko metodo nagusiak ere. 5. Arazoak planteatzeko eta ebazteko metodologia zientifikoa erabiltzeko gaitasuna azaldu behar du. 6. Elkarlanerako jarrera egokia eta kooperazio-ahalmena azaldu behar du.
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

1. Biziaren oinarri molekularra eta fisiko-kimikoa 1.1. Zelularen osagai kimikoak. Motak, egitura, propietateak eta funtzioak. 1.2. Bioelementuak: motak, adibideak, propietateak eta funtzioak. 1.3. Lotura kimikoak eta Biologian duten garrantzia. 1.4. Molekula eta ioi inorganikoak: ura eta gatz mineralak. 1.5. Sakabanatze akuosoen fisiko-kimika. Difusioa, osmosia eta dialisia. Molekula organikoak. Gluzidoak, lipidoak, protidoak eta azido nukleikoak. RNA. Motak eta funtzioak. 1.6. Entzimak edo katalizatzaile biologikoak: kontzeptua eta funtzioa. 2. Zelula bizia. Zelularen morfologia, egitura eta fisiologia 2.1. Zelula: egitura eta funtzioa dituen unitatea. Teoria zelularra. 2.2. Zelula aztertzeke zenbait metodo praktiko. 2.3. Zelularen morfologia. Zelula-organuluen egitura eta funtzioa. Antolaketa-ereduak prokariotetan eta eukariotetan. Animalia- eta landare-zelulak. 2.4. Zelula sistema integratu konplexu gisa: zelularen funtzioen eta haiek garatzeko egituren azterketa.
--

- 2.5. Ziklo zelularra. Banaketa zelularra. Mitosia animalia- eta landare-zeluletan. Meiosia. Haren behar biologikoa sexu bidezko ugalketan. Izaki bizidunen eboluzioaren garrantzia.
- 2.6. Mintzak eta zelula-trukean duten funtzioa. Iragazkortasun selektiboa. Endozitosi- eta exozitosi-prozesuak.
- 2.7. Metabolismoaren sarrera: katabolismoa eta anabolismoa. Erreakzio metabolikoak: alderdi energetikoak eta erregulaziokoak.
- 2.8. Arnasketa zelularra eta haren esanahi biologikoa. Bide aerobikoa eta anaerobikoa bereizten ditu. Arnas prozesuan parte hartzen duten zelula-organuluak. Hartzidurak eta haien aplikazioak.
- 2.9. Fotosintesia: zelulen kokapena prokariota eta eukariotetan. Fotosintesi-prozesuaren etapak. Balantze orokorra. Garrantzi biologikoa. Kimiosintesia.
- 2.10. Zelulari eta haren funtzioei buruzko ikerketa edo/eta ikasketa praktikoa.

3. Genetika molekularra eta eboluzioa

- 3.1. Herentziaren genetika molekularra edo kimikoa. DNA informazio genetikoaren eramaile gisa identifikatzea. Gene kontzeptua.
- 3.2. DNA erreplikatzeko. Erreplikatzeko etapak. Eukarioten eta prokarioten erreplikatzeko-prozesuen arteko aldeak. Geneen espresioa. Transkripzio eta itzulpen genetikoak prokariotetan eta eukariotetan.
- 3.3. Kode genetikoaren ezaugarriak eta garrantzia, eta haren euskarri diren proba esperimentalak. Informazio genetikoaren aldaketak; mutazioak. Agente mutagenoak. Mutazioak eta minbizia. Mutazioen eraginak espezieen eboluzioan eta espezie berrien agerpena.
- 3.4. Ingeniaritza genetikoak. Gaur egungo ikerketa-ildo nagusiak. Genetikoki aldatutako organismoak.
- 3.5. Genoma proiektua: Manipulazio genetikoaren eta terapia genetiko berrien ondorio sozialak eta balioespen etikoak.
- 3.6. Mendelek herentziaren azterketari egindako ekarpenak. Sexuaren herentzia. Sexuarekin lotutako herentzia. Giza genetika. Herentziaren teoria kromosomikoa.

4. Mikroorganismoen mundua eta haien aplikazioak. Bioteknologia

- 4.1. Mikrobiologia. Mikroorganismo kontzeptua. Mikroorganismoak aztertze metodoak.
- 4.2. Zelula-antolaketa duten mikroorganismoak eta ez dutenak. Bateria. Birusak. Zelularik gabeko beste forma batzuk. Partikula kutsakor azpibiralak. Onddo mikroskopikoak. Protozoak. Alga mikroskopikoak.
- 4.3. Mikroorganismoak ziklo geokimikoetan. Mikroorganismoak gaixotasunak sortzen dituzten agente gisa.
- 4.4. Bioteknologia. Mikroorganismoak erabiltzea prozesu

5. Organismoen autodefentsa. Immunologia eta haren aplikazioak

- 5.1. Gaur egungo immunitate kontzeptua. Immunitate-sistema. Barne-defentsa inespezifikoak.
- 5.2. Immunitate espezifikoa. Ezaugarriak. Motak: zelularra eta humoralak. Zelula arduradunak.
- 5.3. Erantzun immunitarioaren ekintza-mekanismoak. Memoria immunologikoa. Antigeno eta antigorputz kontzeptuak. Antigorputzen egitura eta funtzioa. Immunitate naturala eta artifiziala edo hartua. Serumak eta txertoak. Gaixotasun infekzioen aurkako borrokan duten garrantzia.
- 5.4. Immunitate-sistemaren disfunkzioak eta eskasiak. Alergiak eta immunoeskasiak. Hiesa eta immunitate-sisteman dituen eraginak. Immunitate-sistema eta minbizia.
- 5.5. Antigorputz monoklonalak eta ingeniaritza genetikoak.
- 5.6. Organoen transplanteak eta errefus-arazoak. Organo-ematearen garrantzi soziala.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA eta METODOLOGIA:

Erabiltzen den metodologiak, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak; estrategia hauetan garrantzia bizia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek, Fisikaren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute.

Era berean gelako-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko.

Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira:

1. Gai bakoitzaren alderdi teorikoa eta praktikoa landuko da, bai liburuak erabiliz baita ikasgelan emandako aurkezpenekin ere.
2. Idatzizko zein ahozko informazioa emango zaie ikasleei gaiari buruz. Testu-liburuaz gain, errebista zientifikoetatik edota beste egunkari eta errebistetatik ateratako artikulatuak banatuko zaizkie gaiari dagokionean.
3. Ikasgelan emandako gai teorikoak egungo egoerekin lotzen saiatuko gara, idatzizko zein entzunezko albisteak landuz.
4. Ikerketa zientifiko txikiak egiteko testu zientifikoak landuko dira.
5. Ikus-entzunezko materiala erabiliko dugu zenbait gaietan, emandako gai teorikoak sendotzeko
7. Laborategiko saiakuntzak egingo dituzte ikasteak.

DENBORALIZAZIOA:

1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
1. Sarrera: biziaren kimika • Bioelementuak eta biomolekulak • Biomolekula inorganikoak eta organikoak. 2. Zelularen ezaugarriak • Eukariotak • Prokariotak 3. Bizidunen ezaugarri eta sailkapena • Biziaren oinarri fisiko-kimikoak • Genetika: ADNren erreplikazioa • Proteinen sintesia	4. Genetika • Genetikako ariketa klasikoa • Genetika mendeliarra • Ingenieritza genetikoak • Mutazioak 5. Ugalketa eta ziklo zelularra • Minbizia • Mitosia • Meiosia 6. Metabolismo zelularra • Anabolismoa • Katabolismoa • Fotosintesia	7. Mikrobiologia • Bakterioak • Birusak • Gaixotasunak 8. Bioteknologia • Esterilizazioa • Pasteurizazioa 9. Imunologia • Naturala • Artifiziala

BALIABIDEAK:

Liburua: BIOLOGIA. 2 Batxilergoa. Anaya-Haritz argitaletxea.

Gelako aurkezpenak. Gai bakoitzeko aurkezpen bat erabiliko da ikasgelan aurkezteko.

IKT baliabideak: **Alexia Classroom** izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduerak guztiak. Hau da ikasgela birtualaren helbidea: [Alexia Classroom](#)

- Alexia Classroom izango da ikasleek baliabide gehigarri moduan erabiliko duten IKT baliabidea. Bertatik informazio gehigarria, bideo eta dokumentalak ikusi ahaliko dituzte. Ikasgelan emango zaizkien baliabide guztiak bertan aurkituko dituzte esekita.
- Eskatutako lanak Alexia Classroom plataformara igo beharko dituzte, beti ere PDF formatuan. Eskuz ere egin ditzakete entregatzeko lanak, baina entrega beti AlexiaClassroom plataforma bitartez egingo da horrela mugikorra edo eskanerra erabili beharko dute PDF formatura pasatzeko.
- Ariketa osagarriak egiteko eta informazio gehigarria bilatzeko web orri hau erabiliko da: <http://recursos.cnice.mec.es/biosfera/profesor/2bachillerato/1.htm>
- Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
1. Ikasgaian hiru ebaluazio partzial egingo dira. 2. Ebaluazio bakoitzean bi idatzizko proba egingo dira, bat ebaluaketa erdian eta bestea ebaluaketa garaian. 3. Gai batzutan galdetegiak egin beharko dituzte 4. Laborategiko esperimentuak planteatzen direnean, bertan egindako lanaren inguruan txosten bat entregatu beharko da 5. Zenbait gaietan eskemak eskatuko dira 6. Azterketa eta entregatutako lan teorikoak kontuan izango dira eta baloratu ere: azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna eta aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna).	1. Ebaluazio partzial bakoitzean bi azterketa egingo dira. Lehenengo azterketa ebaluazio-egunetatik kanpo egingo da eta ikasleak gaitzen badu, materia hori hurrengo azterketatik kendu dezake. Bigarrena, ebaluazio-egunetan egingo da. Ebaluazioko batz bestekoa egiteko bietan gutxienez 4 bat atera beharko dute, eta bien arteko batz bestekoak gutxienez 5a eman beharko du 2. Lehenengo azterketa gaitzen ez duenak, edo nota gehiago lortu nahi duenak, ebaluazio-egunetan ebaluaketa osoko gaien azterketa egin beharko du. 3. Ebaluazioan zehar eskatutako lanak entregatzea beharrezkoa izango da ebaluaketako batz bestekoa egiteko. Entregatzen ez badira, errekonferazio azterketa egin beharko du ikasleak. 4. Bi azterketen pisua gutxienez 60% izango da eta lanena gehienez 40%. Lan eta azterketen pisu zehatza ebaluaketan zehar definituko da, entregatutako lan kopuruen arabera. 5. Gai guztietako laburpen-eskemak positiboki baloratuko dira. 6. Zati bat edo gai guztia gaitzen ez duenak, ebaluazioko gai guztien errekonferazio-azterketa egin beharko du errekonferazio egunetan. Errekonferazioan ateratako nota izango da ebaluaketa horretako batz bestekoa. 7. Nota igo nahi duenak, errekonferazio egunetan azterketa osoa egin beharko du, eta ebaluazioko nota azterketa horretan ateratako nota izango da.

	8. Ikasleak klasean duen jarrera eta parte hartzea ere kontuan hartuko da bataz bestekoa egiterakoan. Gutxienez puntu bateko pisua edukiko du ebaluaketako notaren bataz bestekoan. 9. Azken nota hiru ebaluazioetako noten bataz bestekoa izango da. Eskema guztiak garaiz eta ondo entregatu, eta hiru ebaluaketak lehenengoan gaitzen dituen ikasleari, nota finaleko bataz bestekoan puntu erdi bat gehituko zaio zuzenean.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...]	
1. Ebaluazio bakoitzaren ondoren errehabilitazio-azterketa bat izango da. Azterketa hori ebaluazioko gai guztiarena izango da, eta bertan ateratako nota izango da ebaluaketako nota. 2. Ikasturte bukaeran aurretik gaitu gabeko ebaluaketak gaitzeko aukera emango zaie ikasleei. 3. Kurtsoko nota globala igotzeko aukera ere izango du, horrela nahi duenak, horretarako azterketa berezi bat eginaz.	

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	Kodea:	013379
Etap:	BATXILERGOA	Zikloa/maila	2. maila
Arloa/irakasgaia:	LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIAK		
Osatutako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia 2. Matematikarako konpetentzia 3. Zientziarako konpetentzia 4. Teknologiarako konpetentzia 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa 6. Konpetentzia motorra		
Irakasleak:	Ane Zubizarreta	Ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak	1. Hitzek, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia. 2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. 3. Elkarbizitzarako konpetentzia. 4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia. 5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.
--------------------------------	--

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Ikasitako kontzeptu, lege eta teoriak eguneroko egoeratan aplikatzeko gaitasuna lortzea 2. Lur eta ingurumen zientziako kontzeptuak eta terminologia ezagutu eta zehaztasunez erabiltzea, eta modu eta egoera egokietan aplikatzeko gaitasuna lortzea. Lur planetan gertatzen diren fenomenoaren eraginak eta ondorioak azaltzeko gaitasuna izatea, eta saihesteko neurri zuzentzaileak identifikatzea. 3. Zientzia aldakorrak direla ohartu eta hauekiko dauden hipotesi eta teoria berriak identifikatzeko gaitasuna lortzea. Horretarako datuak bildu hainbat iturrietatik, datuak aztertu eta ondorioak atera 4. Lur eta ingurumen zientzia buruzko informazioa ondo identifikatu, interpretatu eta adieraztea. Ezagutza berriekin pentsamendu kritikoa garatzea, ekarpen berriak ahalbidetuz	1. Ikasleak hasieran aipatutako helburuak modu positiboan lortu dituen ala ez baloratuko da. 2. Lurraren eta ingurumen zientzietako kontzeptu, teoria eta eredu garrantzitsuenak eta orokorrak eraikitze gaitasuna eraiki dituen 3. Lur eta Ingurumen zientzien inguruan ikerketa txikiak egiteko gaitasuna lortu duen, bai banaka, baita taldean ere 4. Ea Lurraren eta ingurumenaren zientzien ezagutzak erabiltzen dituen hainbat testuingurutan 5. Zientzia hau etengabeko eraikitze prozesuan dagoela hausnartzea, eta horretarako elkarren aurkako hipotesiak eta teoriak aztertzen dituen ziurtatzea

5. Natur ingurua gizakiak erabili eta aprobetxatzearen eraginak eta ondorioak ulertu, aztertu eta garapen zientifiko-teknologikoen ekarpen on eta txarrak baloratzea 6. Lan zientifikoetarako beharrezko diren jarrerak azaltzea, hala nola informazio-bilketa, kritika gaitasuna, ideia berriekiko irekitasuna eta talde-lanerako egokitasuna	6. Ea informazio zientifikoa zuzen interpretatzen eta adierazten duen, hainbat euskarri eta baliabide erabiliz 7. Arazoak planteatzeko eta ebazteko metodologia zientifikoa erabiltzeko gaitasuna azaldu behar du. 8. Elkarlanerako jarrera egokia eta kooperazio-ahalmena azaldu behar du.
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

1. Ingurumena eta ingurumenari buruzko informazio-iturriak

- 1.1. Ingurumen kontzeptua sistema gisa. Ingurumen-zientzien diziplinartekotasuna. Ingurumen-sistema natural baten egituraren eredu bakunak. Konplexutasuna eta entropia.
- 1.2. Aldaketak ingurumenean Lurraren historian zehar.
- 1.3. Ingurumena gizakiarentzako baliabide gisa. Baliabide motak: berriztagarriak eta berriztaezinak.
- 1.4. Ingurumen-inpaktu kontzeptua. Arrisku naturalak eta eragindakoak. Giza ekintzen ondorioak ingurumenean.
- 1.5. Ingurumen-informazioaren iturriak. Kokapena satellite bidez zehazteko sistemak. Teledetekzioa: airetiko argazkiak, satellite meteorologikoak eta ingurumen-informaziokoak.

2. Kanpoko sistema fluidoak: Atmosfera eta Hidrosfera

Atmosfera

- 2.1. Atmosfera. Egitura eta konposizioa. Osagaien jatorria eta garrantzi biologikoa.
- 2.2. Eguzki-erradiazioa eta Lurreko geruza fluidoak. Jarduera erregulatzailea eta babeslea.
- 2.3. Ozono-geruza eta berotegi-efektua. Ozono-geruzaren "zuloa".
- 2.4. Atmosferaren dinamika eta klima. Tenperaturaren inbertsioak.
- 2.5. Arrisku klimatikoak: iragarpena, prebentzioa eta neurri zuzentzaileak.
- 2.6. Atmosferarekin eta eguzki-erradiazioekin lotutako baliabide energetikoak: erabilerak, ustiapena eta inpaktuak.
- 2.7. Atmosferaren kutsadura. Kutsaduraren iturriak, motak eta eraginak maila lokalean, eskualde mailan eta maila globalean. Berotegi-efektua handitzea.
- 2.8. Aldaketa klimatiko globala. Atmosferaren kutsadura hautematea: airearen kalitatea zaintzeko eta kontrolatzeko sareak.
- 2.9. Jasangarritasuna: ingurumen-arazoak prebenitzea eta konpontzea.

Hidrosfera

- 2.10. Hidrosfera. Ur-masak. Balantze hidrologikoa eta uraren zikloa.
- 2.11. Hidrosferaren dinamikarekin lotutako arriskuak: iragarpena, prebentzioa eta neurri zuzentzaileak.
- 2.12. Ur-baliabideak: erabilerak, ustiapena eta inpaktuak.
- 2.13. Uraren kutsadura: motak, hautematea, prebentzioa eta zuzentzea.
- 2.14. Ur-laginetan parametro kimiko eta biologiko batzuk zehazteko teknikak eta emaitzak erabileraren arabera interpretatzea.

3. Geosfera

- 3.1. Geosfera: egitura eta konposizioa. Barruko energiaren jatorria. Barne-geodinamika. Sumendi-arriskuak eta arrisku sismikoak: iragarpena, prebentzioa eta neurri zuzentzaileak.
Kanpo-geodinamika. Erliebea Lurraren barne-dinamikaren eta kanpo-dinamikaren elkarrekintzaren emaitza gisa. Hegal-sistemak eta ibai-sistemak.

- 3.2. Kanpo-geodinamikarekin lotutako arriskuak: iragarpena, prebentzioa eta neurri zuzentzaileak.
- 3.3. Geosferaren baliabideak eta erreserbak. Baliabide mineralak. Energia-baliabideak. Baliabideen ustiapenaren inpaktuak. Erabilera jasangarria.

4. Materiaren eta energiaren zirkulazioa Biosferan

- 4.1. Biosfera. Ekosistema: osagaiak eta interakzioak.
- 4.2. Ekosistemetako organismoen arteko erlazio trofikoak. Ekosistema bateko erlazio trofikoaren adierazpen grafikoa eta interpretazioa. Biomasa eta produkzio biologikoa.
- 4.3. Oxigenoaren, karbonoaren, nitrogenoaren, fosforoaren eta sulfuroaren ziklo biogeokimikoak.
- 4.4. Ekosistema denboran: segida, autorregulazioa eta atzera egitea.
- 4.5. Biodibertsitatea eta haren garrantzia. Biosferaren gaineko inpaktuak: baso-soiltzea eta biodibertsitatearen galera. Biosferaren kudeaketa jasangarria.

5. Interfaseak: itsasertzeko lurzorua eta sistema

- 5.1. Lurzorua. Konposizioa eta egitura.
- 5.2. Lurzoruko motak. Lurzoruen horizonteak esperimendu bidez bereiztea.
- 5.3. Lurzoruen higadura, kutsadura eta degradazioa.
- 5.4. Basamortutzea. Baso-soiltzearekin, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako arazoak.
- 5.5. Itsasertzeko sistema. Kostaldearen eraketa eta morfologia.
- 5.6. Kostaldeko hezeguneak, uharriak eta mangladiak. Kontserbazioaren garrantzia.
- 5.7. Arrantza-baliabideak eta haien gehiegizko ustiatzearen eraginak.

6. Kudeaketa eta garapen jasangarria

- 6.1. Ingurumen-arazo nagusiak eta haien kausak. Desarrollismoa, kontserbazionismoa eta garapen jasangarria.
- 6.2. Ingurumen-ebaluazioak tresnak.
- 6.3. Hondakinak eta haien kudeaketa.
- 6.4. Jasangarritasunerako kudeaketa.
- 6.5. Lurralde-antolaketa. Matrize errazen erabilera.
- 6.6. Ingurumen-erakunde nagusiak. Ingurumen-legedia. Naturguneen babesa.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jardura motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA eta METODOLOGIA:

Erabiltzen den metodologiak, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak.

Era berean gelako-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko.

Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira:

1. Gai bakoitzaren alderdi teorikoa eta praktikoa landuko da, bai liburua erabiliz baita ikasgelan emandako aurkezpenekin ere.
2. Idatzizko zein ahozko informazioa emango zaie ikasleei gai buri buruz. Testu-liburuaz gain, errebista zientifikoetatik edota beste egunkari eta errebistetatik ateratako artikulatuak banatuko zaizkie gaiari dagokionean.
3. Ikasgelan emandako gai teorikoak egungo egoerarekin lotzen saiatuko gara, idatzizko zein entzunezko albisteak landuz.
4. Ikerketa zientifiko txikiak egiteko testu zientifikoak landuko dira.
5. Ikus-entzunezko materiala erabiliko dugu zenbait gaietan, emandako gai teorikoak sendotzeko.

6. Laborategiko saiakuntzak egingo dituzte ikasteek.

DENBORALIZAZIOA:

1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
1. Ingurumena - Ingurumena historian - Ingurumen inpaktuak - Ingurumen informazio iturriak 2. Atmosfera eta Hidrosfera - Atmosferaren egitura, konposizioa eta dinamika - Ozeanoen dinamika 3. Klima eta arrisku klimatikoak - Klimaren osagaiak - Mapa atmosferikoak - Arrisku klimatikoak	4. Inpaktuak atmosferan - Ozono geruza - Aldaketa klimatikoa - Kutsadura 5. Inpaktuak hidrosferan - Uraren erabilera - Kutsadura - Kudeaketa - Plastikoen arazoa 6. Geosfera - Energia berriztagarriak - Energia ez berriztagarriak - Inpaktuak - Baliabide eta erreserbak	7. Biosfera - Ekosistemak - Biodibertsitatea 8. Biosferan inpaktuak - Zer da biosfera - Biosferaren dinamika - Euskal Herriako egoera 9. Kudeaketa eta garapen jasangarria - Arazoak eta ebaluazioa eta kudeaketa - Lurraren antolaketa

BALIABIDEAK:

Liburua: LUR eta INGURUMEN ZIENTZIAK. 2 Batxilergoa. Elkar argitaletxea.

Gelako aurkezpenak. Apunteak eta aurkezpenak erabiliko dira oinarritzko baliabide moduan, IKT baliabidez lagunduta beti ere.

IKT baliabideak: **Alexia Classroom** izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduera guztiak. Hau da ikasgela birtualaren helbidea: [Alexia Classroom](#)

- Alexia Classroom izango da ikasleek baliabide gehigarri moduan erabiliko duten IKT baliabidea. Bertatik informazio gehigarria, bideo eta dokumentalak ikusi ahalko dituzte. Ikasgelan emango zaizkien baliabide guztiak bertan aurkituko dituzte esekita.
- Gaien oinarritzko aurkezpenak egiteko, power-point programarekin egindako aurkezpenak erabiliko dira. Ikasleek apunteak eskuz edo gailu digitalekin hartu ditzakete
- Gaien informazio gehigarri modura bideo lagungarriak (adibidez youtube erabiliz) eta dokumentalak erabiliko dira (adibidez, dokumania, rtve.es, eitb.com etb.)
- Eskatutako lanak Alexia Classroom plataformara igo beharko dituzte, beti ere PDF formatuan. Eskuz ere egin ditzakete entregatzeko lanak, baina entrega beti AlexiaClassroom plataforma bitartez egingo da horrela mugikorra edo eskanerra erabili beharko dute PDF formatura pasatzeko.
- Bideoak egiteko Wevideo programa erabiliko da. Infografia eta posterrak egiteko Canva edo bere moduko programak erabiliko dira. Tablak eta grafikoak egiteko berriz excel edo sheets. Gelan egin beharreko lanen aurkezpena, power point edo prezi programarekin egin beharko dituzte.
- Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
1. Ikasgaian hiru ebaluazio partzial egingo dira. 2. Hiru ebaluazio partzial egingo dira. Bakoitza, beti ere beharrezkoa ikusiko balitz, azterketak egingo dira eduki kontzeptualak nahiz prozedurazkoak baloratzeko. 3. Ebaluazio partzial bakoitzean denbora-epe horretan egindako talde-lan praktikoak eta banakako lanak baloratuko dira. 4. Laborategian nahiz ikasgelan egindako lan praktikoak, eta egindako txostenak ere baloratuko dira. 5. Prestatutako aurkezpenak eta gelakideen aurrean aurkeztutakoak baloratuko dira	1. Ebaluazio partzial bakoitzean egindako azterketen nota (egingo balitz) eta lan praktikoetako nota kontuan hartuko da. Kasu bakoitzean, irakasleak adieraziko du kalifikazio osoaren zenbateko ehunekoa dagokion ebaluazioan landutako atal bakoitza 2. Egin beharreko azterketa eta entregatu beharreko lan eta txostenetan gutxieneko 4 bat atera beharko da ebaluazioaren notaren batz bestekoa egiteko. 3. Batz bestekoa egiteko, entregatu beharreko lanak aurkeztu ezean, ezingo da notarik jarri. Entregatzen ez badira, errekupeazio garaian azterketa bat gaititu beharko luke ikasleak 4. Ikasleak klasean duen jarrera eta parte hartzea ere kontuan hartuko da batz bestekoa egiterakoan, gutxienez ebaluazioko notaren 10%ko pisua izango duelarik. 5. Azken nota hiru ebaluazioetako noten batz bestekoa izango da.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspina, errekupeazio-sistema...]	
1. Ebaluazio bakoitzaren ondoren errekupeazio-azterketa bat izango da, eta ebaluaketako nota azterketan ateratako nota izango da. 2. Ikasturte bukaeran aurretik gaititu gabeko zatiak gaititzeko aukera emango zaie ikasleei. 3. Kurtsoa nota globala igotzeko aukera emango zaie ikasleei kurtso osoan landutako gaiet buruz egindako azterketa edo/ eta lan orokor baten bitartez. 4. Notaren igoerako kurtsoa azken nota, azken azterketaren eta kurtso osoan egindako lanaren islada izango da.	

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	Kodea:	013379
Etap:	BATXILERGOA	Zikloa/maila	2. MAILA
Arloa/irakasgaia:	FISIKA		
Osatutako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Zientzia-jakintzak egoki erabilia eta arduraz, autonomiaz eta ikuspegi kritiko hartzea natura-ingurunearen gaineko erabakiak eta giza jarduerak ingurune horretan eragiten dituzten aldaketei buruzkoak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan jardutea gisa horretan, norberaren eta gizartearen bizitza hobetzeko eta ingurunea zaindu eta hobetzeko. 2. Arazo zientifikoak identifikatzea eta dokumentazioko eta esperimendazioko ikerketa txikiak egitea egoera problematikoak lantzeko, zientzia-jardueraren berezko trebetasunak eta jokabideak egoki baloratu, erabili eta erakutsita, egoera problematiko horiek konpontzeko eta ebidentziak lortzeko, erabaki arduratsuen hartu aurretik. 3. Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta iragartzea, eta aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak aztertzea jakintza zientifikoa modu koherente, egoki eta zuzen batean erabilia testuinguru pertsonal eta sozialetan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko. 4. Zientzien oinarriko kontzeptuak mundu naturalaren sistemekin eta prozesuekin erlazionatzea, eta horiei zentzua dakarkieten lege, eredu eta teorien bidez antolatzea lotura horiek, errealitatearen interpretazio zientifikoak eta izaera zientifikorik ez dutenak bereiztea, eta onartzea zientziak enpirikoki egiaztatu daitezkeen iragarpenak egiten dituela, zientziaren izaera eta emaitzak ulertzeko.		
Irakasleak:	Iñigo Jaka Ruiz	Ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Fisikaren jakintzak hainbat testuingurutan erabiltzea, eta eguneroko egoeretan aztertzea zientzia horrek zer harreman duen teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin, gizakiak dituen arazo lokalei eta globalei buruzko erabakietan herritar gisa parte hartzeko, bizitza pertsonala eta soziala hobetzen laguntzeko, ingurumena mantentzen, babesten eta hobetzen laguntzeko eta, funtsean, gizaki guztientzako etorkizun egokia eta jasagarria eraikitzeko. 2. Problema identifikatzea, planteatzea eta konpontzea, ikerketa txikiak egitea –bakarka edo taldeka–, gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea zientzien estrategiak, eta lan zientifikoa saiakuntzaren eta sormenaren bidez egiten dela ohartzea, modu kritikoan eta testuinguruaren	• Ikerketak eta laborategiko praktikak egitea lan zientifikoaren metodologia aplikatuz, haien garapena balioetsiz eta emaitzak interpretatuz. • Laborategiko oinarriko materiala erabiltzea, hautatzea, sailkatzea eta behar bezala erabiltzea. • Esperimendazioaren bidez garatzea lan zientifikoaren estrategia nagusiak eta hark berezkoak dituen jarrerak. • Lan dokumentalaren eta/edo esperimendalaren emaitzekin lotutako monografiak eta txostenak egitea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz, eta hainbat iturri eta euskarri erabiliz. • Iritzi eta erabaki arrazoituak ematea Fisikaren garapenaz eta haren aplikazioez, haren mugez ohartuz, jakintza zientifikoa modu kolektiboan eraikitzen dela ohartuz, eta hark naturan eta pertsonen bizimoduan dituen ondorioez konturatuz.

barruan ekin ahal izateko interes zientifikoa edo soziala duten eguneroko egoerei. 3. Informazio zientifikoa bilatzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia egokia eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliz –analogikoak nahiz digitalak–, modu zehatzean, arrazoituan eta kritikoan komunikatu ahal izateko Fisikarekin lotutako gai zientifiko, teknologiko eta sozialei buruz. 4. Azalpenezko eskemak eginez harremanetan jartzea Fisikaren kontzeptu, teoria eta modelo nagusiak eta orokorrak jakintza multzo koherentetan, eta eskema horiek autonomiaz erabiltzea sistema eta aldaketa fisiko-kimiko nagusiak interpretatzeko –zientzian nahiz eguneroko bizitzan–, eta zientziaren adar horiek duten garapenaren ikuspegi global bat edukitzeko. 5. Fisika etengabe eraikiz doala ohartzea, hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertzea eta konparatzea, bai eta debate zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioestea ere, era horretan pentsamendu kritikoa garatzeko, zientziak pertsonen prestakuntza integralerako balio duela konturatzeko, eta gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.	• Uhinekin lotutako fenomeno naturalak eta garapen teknologikoak azaltzea, modelo teoriko bat erabiliz materiaren bibrazioentzat eta haien hedapenarentzat. • Argiaren propietateak egiaztatzea eta azaltzea, modelo klasikoak erabiliz (korpuskularra eta ondulatorioa). • Grabitazio unibertsalaren legea aplikatuz ebaztea, adibidez, zeruko gorputzen masak, Lurreko grabitatea eta planeten eta sateliteen higidurak, eta lege horrek Lurreko eta zeruko mekanika bateratzean duen garrantzia balioestea. • Karga eta korrante zuzenak sortutako eremuak eta kargei eta korronteei eragiten dieten indarrak kalkulatzeko, eta aplikazio praktiko batzuen oinarria justifikatzeko, eremu elektriko eta eremu magnetiko kontzeptuak erabiliz. • Maxwellen sintesi alderdi batzuk erabiliz azaltzea honako hauek: fluxu magnetikoa aldatuz korrontea ekoiztea, uhin elektromagnetikoak ekoiztea eta optika elektromagnetismoan integratzea. • Denboraren dilatazioa, luzeraren kontrakzioa eta masa-energia baliokidetasuna azaltzea, Erlatibitatearen teoria bereziaren printzipioak erabiliz. • Teoria berri horren arabera aztertzea Fisika Kuantikoaren jatorrian dauden espektro jarraituen eta etenen problemak, efektu fotoelektrikoa, etab. • Prozesu nuklearrak –adibidez, blokeen egonkortasuna eta haien lotura-energia, erreakzio nuklearrak eta erradioaktibitatea– azaltzea, erdidesintegrazio-denborarekin eta masa-energia baliokidetasunarekin lotutako kalkuluak erabiliz, eta energia nuklearraren eta erradioaktibitatearen aplikazioak eta ondorioak balioetsiz. • Unibertsioaren osaera deskribatzea eta haren kronologia egitea Big Bang-etik hona, bai materiaren eta bai naturaren oinarritzko harremanetan dauden partikula elementalei buruzko teoriak erabiliz.
---	---

EDUKIEN SEKUENTZIA

	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
15 20	0. Mekanika. 1. Elkarrekintza grabitatorioa. Indar grabitatorioa. Eremu kontzeptua. Unibertsoko grabitazioa. Lurraren eremu grabitatorioa. Planeta eta sateliteen higidura.	15 20	2. Indar elektrikoa. Eremu elektrikoa. Eremu elektrikoaren azterketa. 3. Eremu magnetikoa. Eremu magnetikoaren iturriak. Eremu magnetikoaren eraginak. Indukzio elektromagnetikoa. Fluxu magnetikoa. Indukzioaren legeak. Korrante elektrikoaren ekoizpena.	15 12 8	4. Higidura bibrakorrak. Higidura harmoniko sinplea. Osziladore harmoniko sinplea. Uhin higidura. Uhin fenomenoak. 5. Argiaren izaera. Argiaren fenomenoak. Optika geometrikoa. Prisma optikoak. Dioptrioak. Ispiluak. Lenteak. 6. Fisika modernoa. Fisika klasikoaren mugak. Mekanika kuantikoa. Fisika nuklearra. Erradioaktibitatea. Erreakzio nuklearrak.

METODOLOGIA

Erabiltzen den metodologiak, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak; estrategia hauetan garrantzia bizia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek, Fisikaren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute.

Era berean gelako-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko.

Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira:

- Gai batzuetan ikasleen ikerketa bultzatuko da, aurreko ezagutzetan oinarrituz gai berrien prozedurak aurki ditzaten. Laborategian edo klasean esperimendu txiki batzuk egingo dira, gaiei ikuspegi esperimental batetik aurre egiteko.
- Irakasleak gaiak azalduko ditu, ikasle guztiak uler ditzaten.
- Irakaslea gaien deskribatzen diren fenomenoaren eragina eguneroko bizitzan azaltzen saiatuko da.
- Gaien laburpenak eta eskemak bultzatuko dira ikasleek edukiak bere garrantziaren arabera sailkatzen ikas dezaten.
- Ikasleek zenbait ariketa egingo dituzte gaiaren zehaztasunak ulertzeko eta barneratzeko. Klasean denbora izango dute ariketak egiteko eta beste ikaskide batzuekin ebazteko modua partekatu ahal izango dute. Hauetako zenbait ariketa irakasleak klasearen aurrean zuzenduko ditu.
- Aplikazio informatikoak, web orriak, bideoak, eta abar erabiliko dira ikasleek gaia hobeto ulertzeko eta etxetik ere landu ahal izateko.

BALIABIDEAK:

Apunteak: Irakasleak emandako apunteak eta ariketen zerrenda.

Internet: bertan dauden bideoak eta animazioak gaia azaltzeko erabiliko dira.

Alexia Classroom (moodle): apunteak eta ariketak ebatzita zintzilikatuko dira. Gaiak orri moduan antolatutako dira, ematen dituen aukerak aprobetxatzeko: bideo interesgarriak erakutsi, fenomeno fisikoen animazioak eta abar. Audioak ere (podcast) zintzilikatzen dira gaiaren kontzeptuak hobeto ulertzeko eta sakontzeko.

Google Meet bitartez konfinatuta dauden ikasleekin komunikatu eta klaseak emango zaizkie, Alexia Classroom ezagutzak transmititzeko ardatz hartuta.

Laborategian eta klasean egindako gai desberdineko esperimenduak eta esperientziak.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Ebaluazioetan bi azterketa egongo dira: 1. Ebaluazioko azken egunetan gai teorikoen azterketa izango dute, 4 gai 1. ebaluazioan, 6 gai 2. ebaluazioan eta 8 gai 3. ebaluazioan. Azterketa momentuan dato batekin erabakiko da gaia, 3. ebaluazioan 2 aldiz botako da dadoa, eta ikasleek bietatik nahi duten gaia jorratuko dute. ➤ Azterketa teorikoan kontuan izango dira eta baloratu ere: azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna eta azterketaren aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna). 2. Ebaluazioaren azterketa praktikoa izango da, eman diren gaien ariketak jarriko dira.	1. Azterketa teorikoaren balioa notaren %25 izango da. 2. Azterketa praktikokoaren balioa notaren %75 izango da.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
• Ebaluazioa gainditu ez bada, berreskurapena azterketa berrirori egitea izango da.	

- Azterketa teorikoa gainditu bada, nota berreskurapenerako gordeko zaio. Azterketa praktikoa beti egin beharko du.
- Berreskurapena gainditzeko 5 bat nahikoa izango da. 5 bat baino gehiago bada, biribiltzeko momentuan puntu bat jaitsiko da, bere garaian ateratzen duena eta errekupeazioan ateratzen duena bereizteko.
- Nota igotzera aurkezten dena azterketa osoa egin beharko du, teorikoa eta praktikoa.
- Azterketa teorikoa behin gaindituz gero, nota gordeko da hurrengo deialditarako.
- Ezohiko deialdian aprobatuz gero, nota 5 bat izango da, ebaluazioetan zehar atera duenarengandik bereizteko.

OHARRAK

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILLERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	Batxillergoa	zikloa/maila	2
arloa/irakasgaia:	Kimika		
osatutako arloak/irakasgaiak	-----		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia. 2. Matematikarako konpetentzia. 3. Zientziarako konpetentzia. 4. Teknologiarako konpetentzia. 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa. 6. Arterako konpetentzia. 7. Konpetentzia motorra.		
irakasleak:	Jone Gallastegi Zapirain / Olaia Zabaleta Lasarte	ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. - Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
2. - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. - Elkarbizitzarako konpetentzia
4. - Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. - Norbera izaten ikasteko konpetentzia

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Kimikaren jakintzak hainbat testuingurutan erabiltzea, eta eguneroko egoeretan aztertzea zientzia horrek zer harreman duen teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin, gizakiak dituen arazo lokalei eta globalei buruzko erabakietan herritar gisa parte hartzeko, bizitza pertsonala eta soziala hobetzen laguntzeko, ingurumena mantentzen, babesten eta hobetzen laguntzeko eta, funtsean, gizaki guztientzako etorkizun egokia eta jasangarria eraikitzeko.	1. Ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak diseinatzea eta egitea, lan zientifikoaren metodologia aplikatuz, haien garapena balioetsiz eta emaitzak interpretatuz. 2. Laborategiko oinarriko materiala erabiltzea, hautatzea, sailkatzea eta behar bezala erabiltzea.

2. Problema identifikatzea, planteatzea eta konpontzea, ikerketa txikiak egitea – bakarka edo taldeka– , gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea zientzia honen estrategiak –modu kritikoan eta testuinguruaren barruan ekin ahal izateko interes zientifikoa edo soziala duten eguneroko egoerei– , eta lan zientifikoa saiakuntzaren eta sormenaren bidez egiten dela ohartzea. 3. Informazio zientifikoa bilatzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia egokia eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliz –IKTak barne–, modu zehatzean komunikatu ahal izateko Kimikarekin lotutako gai zientifiko, teknologiko eta sozialei buruz. 4. Azalpenezko eskemak eginez harremanetan jartzea Kimikaren kontzeptu, teoria eta modelo nagusiak eta orokorrak jakintza multzo koherentetan, eta eskema horiek autonomiaz erabiltzea sistema eta aldaketa kimiko nagusiak interpretatzeko, zientzian nahiz eguneroko bizitzan. 5. Kimika etengabe eraikiz doala ohartzea, hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertzea eta konparatzea, bai eta debate zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioestea ere, era horretan pentsamendu kritikoa garatzeko, zientziak pertsonen prestakuntza integralerako balio duela konturatzeko, eta gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.	3. Esperimentazioaren bidez garatzea lan zientifikoaren estrategia nagusiak eta hark berezkoak dituen jarrerak. 4. Iritzi propioa izatea eta hizkuntza zientifiko egokia eta testuinguruarekin bat datorrena erabiltzea, lan dokumentalaren eta/edo esperimentalaren emaitzekin lotutako monografiak eta txostenak egitea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz, eta hainbat iturri eta denetariko euskarriak erabiliz. 5. Jakintza zientifikoa modu kolektiboan eraikitzen dela balioestea eta zientzien garapena teknologiaren eta beste arlo batzuen aurrerapenekin lotuta dagoela, haiei esker bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobeak direla aitortzea, haien mugez ohartzea, eta naturan eta pertsonen bizimoduan zer ondorio dituzten bereiztea. 6. Erreakzio kimikoen energia-aldaketak eta espontaneotasuna azaltzea, termodinamikaren lehen eta bigarren printzipioak aplikatuz, eta prozesu kimiko baten energiak osasunean, ekonomian eta ingurumenean dituen ondorioak balioetsiz. 7. Modu kualitatiboan aurreikustea sistema kimiko baten bilakaera, eta oreka kimikoei buruzko jarduerak eta problemak ebaztea, oreka kimikoaren kontzeptu dinamikoa aplikatuz eta prozesu industrial esanguratsu batzuk aztertuz. 8. Azido-base erreakzioak eta haietako batzuen garrantzi praktikoa azaltzea, Brönsted-Lowryren teoria aplikatuz. 9. Oxidazio-erredukzio problemak ebaztea eta haien aplikazio praktiko batzuk azaltzea, erredukzio- potentzial estandar kontzeptua erabiliz.
--	---

	10. Atomoaren propietate batzuen aldaketa periodikoak azaltzea, modelo mekaniko-kuantikoa aplikatuz. 11. Molekulen, kristalen eta egitura makroskopikoen eraketa eta hainbat substantzia motaren propietate orokorrak azaltzea, lotura-modeloa erabiliz. 12. Konposatu organiko oxigenatu eta nitrogenatu nagusien propietate fisikoak eta kimikoak justifikatzea, haien talde funtzionalen erreaktibotasuna erabiliz eta haien garrantzi industriala eta biologikoa balioetsiz.
--	---

ARAZO EGOERA

1. UNITATEA: Elementuen egitura atomikoa eta sailkapen periodikoa. Arazoa: Zergatik dauzkate material ezberdinek antzeko propietateak? Testuingurua: Batxillergoko ikasleen talde bat joan da konposatu metalikoen fabrika batera eta hainbat proba ezberdinen bitartez baieztatu dute hauek eroaleak direla. Ikasle batek zuzendariari galdetzen dio zergatik diren guztiak eroaleak eta zer daukaten komunean. Azken ataza: Zer erantzun beharko lioke zuzendariak ikasleari?
2. UNITATEA: Lotura kimikoa eta substantzien propietateak. Arazoa: Zerren ondorio dira materialen propietateak? Testuingurua: Garbiketa produktuak sintetizatzen dituen fabrika batean produktu berri bat asmatu dute. Erreakzioaren azpiproduktu bezala azido klorhidrikoa dagoela ikusi denez, kezka zabaldu da enpresaren zuzendarien artean. Azken ataza: Konposatu hau solidoa, likidoa edo gasa izango da giro tenperaturan? Zein kasutan izango litzakete arriskutsuena?
3. UNITATEA: Funtzio organiko batzuen azterketa. Arazoa: Nola lortzen ditugu interesatzen zaizkigun konposatu organikoak? Testuingurua: Farmako berriak sintetizatzeako prozedura ezberdinak bilatzen dabiltza farmazeutika batean. Jakin badakite, $\text{CH}_3\text{-CH}_2(\text{Br})\text{-CH}_3$ konposatua sintetizatzea ezinbestekoa izan daitekeela oso larriak diren gaixotasunak sendatzeko. Azken ataza: Zein erreakzio kimikoren bitartez sintetizatu daiteke konposatu hori? Zein erreaktibo behar ditugu?
4. UNITATEA: Erreakzio kimikoetako transformazio energetikoak. Espontaneotasuna. Arazoa: Zergatik erreakzionatzen dute bi konposatuk nahasten ditugunean?

Testuingurua: Laborategi batean ikusi da hidrogeno gaseosoa (H_2) eta oxigenoa (O_2) nahastuz gero ura lortzeaz gain, beroa askatzen dela. Aldiz, baldintza berdinetan ura jarritz gero, ez da hidrogenoan eta oxigenoan disoziatzen.

Azken ataza: Zein da honen azalpen kimikoa?

- 5. UNITATEA: Oreka kimikoa.

Arazoa: Zergatik sortzen da ur lurrina botila itxi batean?

Testuingurua: Ikasle batek ikusi du ikastetxean utzitako eta urez betetako plastikozko botila batean ur likidua egoteaz gain ur lurrina ere badagoela.

Azken ataza: Nola azalduko diote ikaskideek honen zergatia kimikoa beste ikasleari?

- 6. UNITATEA: Azidoak eta baseak.

Arazoa: Nire kamiseta txuri gustukoena tomatez zikindu dut eta ezin dut garbitu.

Testuingurua: Tomatez zikindutako kamiseta ezin garbituz gabiltza eta kimika ikasi duen gure lagun batengana jo dugu. Honek, etxean daukagun azido bat erabiltzeko esan digu. Amoniakoa eta lejia dauzkagu etxean.

Azken ataza: Bietako zein aukeratuko dugu kamiseta garbitzeko?

- 7. UNITATEA: Elektrokimikaren sarrera

Arazoa: Nola funtzionatzen dute gure mugikorren bateriak?

Testuingurua: Gaur egun mugikorren gure ezinbesteko konplementu bihurtu diren heinean, ulertzen ahal dugu nola den posible hauek korrante elektrikoari uneoro entxufatuta egon ez arren funtzionatzea?

Azken ataza: Gure mugikorren baterien funtzionamendua kimikoki azaltzea.

EDUKIEN SEKUENTZIA

1. EBALUAZIOA

- **1 UNITATEA:** Elementuen egitura atomikoa eta sailkapen periodikoa.
 - a. Aurrekari historikoak.
 - b. Mendeleiev-en Taula Periodikoa.
 - c. Gaur egungo Sistema Periodikoa.
 - d. Lege periodikoa.
 - e. Sistema Periodikoaren egitura.
 - f. Karga nuklear eraginkorra eta pantailatzea.
 - g. Propietate periodikoak.
- **2. UNITATEA:** Lotura kimikoa eta substantzien propietateak.
 - a. Lotura kimikoa eta lotura motak.
 - b. Lotura ionikoa.
 - c. Lotura kobalentea.
 - d. Lotura metalikoa.
 - e. Molekula arteko indarrak.

f. Substantzien propietateak.

- **3. UNITATEA:** Funtzio organiko batzuen azterketa.
 - a. Erreakzio organiko motak.
 - b. Kate irekiko hidrokarburoak.
 - c. Kate itxiko hidrokarburoak.
 - d. Hidrokarburoen deribatu halogenatuak.
 - e. Konposatu oxigenatuak.
 - f. Konposatu nitrogenatuak.
 - g. Isomeria.

2. EBALUAZIOA

- **4. UNITATEA:** Erreakzio kimikoetako transformazio energetikoak. Espontaneotasuna.
 - a. Termodinamikaren oinarriko kontzeptuak.
 - b. Termodinamikaren lehenengo printzipioa.
 - c. Lehenengo printzipioaren aplikazioak.
 - d. Erreakzio kimikoak bolumen edo presio konstantean.
 - e. Erreakzioen entalpia estandarra.
 - f. Hess-en legea.
 - g. Lotura-entalpia.
 - h. Entropia.
 - i. Entalpia askea.
- **5. UNITATEA:** Oreka kimikoa.
 - a. Erreakzio itzulgarriak.
 - b. Oreka kimikoa.
 - c. K_c oreka-konstantea.
 - d. Oreka-konstantearen dedukzio zinetikoa.
 - e. Kalkuluak oreka homogeneoetan eta fase gaseosoan.
 - f. Erreakzio-zatidura.
 - g. K_p oreka-konstantea.
 - h. Oreka heterogeneoak.
 - i. Le Chatelier-en printzipioa.
- **6. UNITATEA:** Hauspeaketa-erreakzioak.
 - a. Konposatu ionikoen disolbagarritasuna.
 - b. Disolbagarritasun-arauak.
 - c. Disolbagarritasun-biderkadura.
 - d. Hauspeaketa.
 - e. Hauspeaketa zatidura.

3. EBALUAZIOA

- **7. UNITATEA:** Azidoak eta baseak.

- a. Azidoak eta baseak.
- b. Arrhenius-en teoria.
- c. Bronsted eta Lowry-ren teoria.
- d. Uraren autoionizazioa.
- e. Azido eta baseen indarra.
- f. Azido eta base ahulak: ionizazio-konstanteak.
- g. Ur-disoluzioaren pH-a.
- h. Azido-base adierazleak.
- i. Gatzien hidrolisia.
- j. Azido-base balorazioak.

- **8. UNITATEA:** Elektrokimikaren sarrera.
 - a. Oxidazio-erredukzio erreakzioak.
 - b. Oxidazio-erredukzio ekuazioen doikuntza.
 - c. Oxidazio-erredukzio balorazioak.
 - d. Pila voltaikoak.
 - e. Erredukzio potentzial estandarren seriea.
 - f. Elektrolisia.
 - g. Faraday-ren legea.

METODOLOGIA

EDUKIEN ANTOLAKETA

1. MULTZOA: Eduki komunak.
2. MULTZOA: Erreakzio kimikoetako transformazio energetikoak. Espontaneotasuna.
3. MULTZOA: Oreka kimikoa.
4. MULTZOA: Azidoak eta Baseak.
5. MULTZOA: Elektrokimikaren sarrera.
6. MULTZOA: Elementuen egitura atomikoa eta sailkapen periodikoa.
7. MULTZOA: Funtzio organiko batzuen azterketa.

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko.
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea.

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak.
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak.

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDEAK

- Apunteak, fotokopiak eta testu mota desberdinak ikasleen laguntzarako.
- Erreferentzia bezala erabiliko den testu liburua: KIMIKA BATXILERGOA ARGITALETXEA: Giltza-Edebé
- IKT-ei dagokionez, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduera guztiak. Ikasleek bertan izango dute eskura behar duten material guztia (testuak, bideoak, eskemak, material gehigarria eta abar). Fitxategiak PDF formatuan igoko dira eta bideoak URL baten bidez txertatuko dira. Ikasleen lanak plataforma birtualaren bidez jasoko dira.

Ikasleen lanerako Drive-ek eskaitzen dituen programa kolaboratiboak erabiliko dira eta ekoizpena testu formatuan (Word edo Google docs) eskatuko zaie. Bestalde, mapa kontzeptualak, eskemak eta infografiak egiteko bestelako baliabideak erabiliko dira (Canva, Creately, Bubbl-us).

Pantemia egoeran Meet eta G-Suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, biak Alexia Classroom-en txertatuak, ikasleek ikasgaia etxetik jarrai dezaten eta material guztia eskura izan dezaten

TADEKATZEAK

Orokorrean lanak bakarka burutu beharko dituzte, laborategian ezik, bertan bi edo hiru taldeetan banatuko dira.

ESPAZIO-DEBOREN ANTOLAKETA

- Kimika jakintza teorikoetan oinarrituta dagoen zientzia esperimentalaren heinean, laborategi esperimentazio eta hezkuntzarekin eskutik joan behar du. Horren ondorioz, ikas-gela erabiltzeaz gain Oiertza ikastolak eskuragarri duen Kimika laborategia erabiliko da. Bertan, ikaskuntza prozesu motibagarria, erreala eta kooperatiboa bultzatuko da.
- Aipatu den bezala, ikas-gela izango da elkargune nagusia, non, irakasleak ohiko klase magistralak emango dituen.

DENBORAREN ANTOLAKETA			
Gaia	Multzoa	Saio kopurua	Ebaluazioa
Elementuen egitura atomikoa eta sailkapen periodikoa	VI. MULTZOA	17	1. EBALUAZIOA
Lotura kimikoa eta substantzien propietateak	VI. MULTZOA	17	
Funtzio organiko batzuen azterketa.	VII. MULTZOA	12	
Erreakzio kimikoetako transformazio energetikoak. Espontaneotasuna	II. MULTZOA	11	2. EBALUAZIOA
Oreka kimikoa	III. MULTZOA	11	
Hauspeaketa-erreakzioak.	III. MULTZOA	11	
Azidoak eta baseak	IV. MULTZOA	18	3. EBALUAZIOA
Elektrokimikari sarrera	V. MULTZOA	18	

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

- Galdera edo bestelako baliabideen bidez (artikuluak, bideoak, etab.) ikasleengan interesa piztuko du eta haien aurre-ezagutzak jasoko ditu.
- Gaiak azalduko ditu, ikasle guztiek edukiak uler ditzaten. Horretarako, beste hainbat tresna erabiliko ditu (power point-a, adibidez).
- Edukiak sakontzeko eta ikasitakoa errealitatearekin lotzeko jarduerak eta ikertze eta aplikatze ekintzak proposatuko ditu.
- Ikasleei agindutako ariketak eta problemak talde osoaren aurrean zuzenduko ditu.
- Talde dinamika egokia egoteaz arduratuko da, non, ikaslea eroso eta zaindua sentitzea izango den helburu nagusia.

IKASLEEN EGINKIZUNA

- Indibidualki zein taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.
- Ikasteko gaitasuna garatzea, jarduerak egitean eta edukiak barneratzeko orduan teknika egokiak erabiltzeko.
- Independentzia eta autonomia propioa garatzea.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Idatzizko azterketetan kontuan izango dira eta baloratu ere : azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna, nomenklatura eta formulazioa eta azterketaren aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna).	Ebaluazio bakoitzean idatzizko azterketa bat egingo da. Kurtsoko nota hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
Ebaluazio guztietan berreskurapena egongo da, baita nota igotzeko aukera ere. Berreskurapenean lortutako nota izango da ebaluazioko nota lehendabiziko azterketa gaingitu ez zutenen kasuan, nota igotzera etortzen direnen kasuan, aldiz, bi notetatik altuena aukeratuko da. Berreskurapenean gaingitzea lortzen ez badute, ohiko deialdira joan beharko dute gaingituta ez dauzkaten zatiekin. Ohiko deialdian dagozkien zatiak gaingitzea lortzen ez badute, ez ohiko deialdira joan beharko dute ikasturteko eduki guztiarekin.	

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila	2
arloa/irakasgaia:	Adierazpen Teknika Grafiko Plastikoak		
osatutako arloak/irakasgaiak	-----		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak	1. Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea, haiek norberaren arte-ekoizpenetan erabiltzea, eta hizkuntza horiek obra artistiko eta kulturetan identifikatzea. 2. Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi-esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko. 3. Dagozkien denboran eta kulturaren interpretatzea arte-adierazpenak eta -ekoizpenak, eta horietan dauden funtzioak eta erabilerak aztertzea eta bereiztea, pertsonen bizitzan duten esanahia eta eragina ulertzeko. 4. Gogoetaren eta kritikaren bidez balioestea ondare artistiko eta kultureko elementuak, herrien nortasunaren eta kulturen oinarri diren aldetik, herrien arteko hartu-emanaren, kulturen arteko elkarriketaren eta esperientzia partekatuen harian.		
irakasleak:	Araitz Olaiz Leibar	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako kompetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Adierazpen grafiko eta plastikoko teknikek adierazpenerako eta komunikaziorako ematen dituzten baliabideak ezagutu eta balioestea, askotariko material plastikoak probatuz, horrela, sormena bultzatu eta komunikazio adierazkor hobe lortzen laguntzeko. 2. Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak eta prozedura grafiko-plastikoak ondo samar ezagutzea eta	1. Arte-sormenean ohikoak diren teknikak eta materialak identifikatzea, eta horretan, aintzat hartzea arazo bati eman dakizkiokeen erantzun ugariak. 2. Mota askotako tekniken arteko loturak identifikatzea (hizkuntza mota desberdinak integratzen dituztenak, batik bat), eta horretan, espresibide eta

erabiltzen jakitea, teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea, teknologia horiek artelan konplexuak diseinatzeko eta garatzeko erabiltzea, eta kultura bisualean nagusi diren lan eta adierazpenetan identifikatzea eta balioestea. 3. Arte-ekoizpenetan teknika, prozedurak eta materialak behar bezala erabiltzea, espresio- eta komunikazio-premiekin bat etorrira, eta teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzea, sormena, espresio-ahalmena, komunikazio-gaitasuna, hausnarketa kritikoa eta autokonfiantza lantzeko. 4. Lan-proiektu bat asmo jakin batekin bakarka nahiz taldean planifikatzea, lan-faseak egituratuz eta faseetara behar bezala egokituz, proiektuak azken emaitzan duen garrantziaz kontziente izateko eta prozesuaren berrikuspenak, emaitzen ebaluazio kritikoak, norberaren erantzukizunak eta besteen iritziekiko errespetuak eta tolerantziak duten garrantziaz ohartzeko. 5. Era askotako teknikak –tradizionalak nahiz gure garaioak– ezagutzea eta erabiltzea, eta haien erabilera eta funtzioak zein diren jakitea, arte-proposamenak egiten ikasteko eta arte-adierazpenek egindako ekarpen estetikoak balioesteko. 6. Arte-adierazpenak, haiek sortu dituzten pertsonak eta sortu direnako testuinguruak balioestea eta errespetatzea, eta iritziak eta esperientziak trukatzeko jarrera irekia izatea, arte-esperientziak trukatzeko eta kulturen arteko harremanek nola aberasten duten konturatzeko. 7. Irudi eta artelanak kritikoki interpretatzea, eta lan horiek sortu direnako testuinguruak aintzat hartzea, kasu bakoitzean erabilitako teknika, prozedura, euskarri, tresna eta materialak kontuan hartuta, historiaren joanean teknika horietan izandako aldaketak ulertzeko eta teknika horiek komunikazio-prozesuari egindako ekarpena balioesteko. 8. Artelanak eta lan plastikoak sortzeko erabiltzen diren material eta produktuak (papera, ura, disolbatzaileak...) balioestea eta errespetatzea, eta haiek ondo eta alferrik galdu gabe erabiltzea, kontzientzia indibidual nahiz kolektiboa sortzeko, eta, horrela, ingurumena babesteko eta	komunikazio-bide sozialak bereiztea teknika berritzaileetan eta tradizioaletan. 3. Material plastikoak modu kontzientean integratzea, eta obra berean zenbait teknika konbinatzea. 4. Lan-proiektu jakin baterako egokiak diren teknikak eta prozedurak aukeratzea eta aplikatzea, eta horretan, aintzat hartzea adierazkortasuna, espresioa eta komunikazio 5. Lan-prozesu bat planifikatzea bere edo taldearen premien arabera, eta horretan, argi eta garbi zehaztea prozesu horretarako teknikak eta materialak, lan-fase bakoitzaren komenigarritasuna modu egokian arrazoituz 6. Zenbait arte-adierazpen nahiz -objektuetan eta natura- nahiz kultura-ingurune elementuetan erabilitako material eta tekniken erabilerak, propietateak eta berezitasunak aztertzea 7. Kritikoki aztertzea eta interpretatzea hainbat motatako espresio molde estetikoak, eta horretan, azaltzea nola erabiltzen diren teknika eta materialak espresio molde horietan, eta horiek balioestea, komunikazio-trukeen bidez denok aberasten gaituzten pertsonen adierazpen legitimoak diren aldetik. 8. Irudi eta ekoizpen artistikoak sortzeko prozesuan, tekniken eta materialen erabileran tartean diren antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea eta konparatzea, eta ulertzea antzekotasun eta desberdintasun horiek faktore historiko eta kulturalen ondorio direla. 9. Lan-proiektu baterako egokiak diren teknikak eta prozedurak identifikatzea eta aztertzea, eta, mezu jakin bat komunikatzeari begira, horien atzean ezkututzen den asmoa zein den esatea. 10. 1Aintzat hartzea arte-sormenean erabili ohi diren materialak eta produktuak arduraz erabili behar direla, eta norberaren ekintzek duten eragin globalaz jabetzea.
---	--

natura-baliabideak eta haien oreka hauskorra errespetatzeko.	
--	--

ARAZO EGOERA

1. ebaluazioa

1. Prozedura grafiko eta plastikoak ADIERAZPENERAKO dituzten baliabideak ezagutzea.

Azken ataza: Artistaren liburua osatzen joango gara.

2. ebaluazioa

2. Sormenaren prozesua azpimarratzea.

Azken ataza: Sormena erabiliz gai berdinaren inguruko soluzio ezberdinak ikertuko ditugu.

3. ebaluazioa

3. Taldelana, Planifikazioa eta Komunikazioa.

Azken ataza: Testuinguru jakin baterako lan-proiektu bat burutzea.

EDUKIEN SEKUENTZIA

Denbora tartea: 1. ebaluazioa

1UD. HIZKUNTZA PLASTIKOA ETA BISUALA

-Oinarrizko osagai formalak:

Forma, kolorea, ehundura, planoa, orbana, argia ...

-Irudiak antolatzeako baliabideak:

Konposizio formala, , konposizio kromatikoa, erritmoa, proportzioak ...

2UD. TEKNIKA ETA PROZEDURA GRAFIKO ETA PLASTIKOAK

-Teknika lehorrak:

Grafitozko lapitzak, ikatz-ziria, barrak eta lapitz konposatuak, pastel lehorrak eta argizariak, koloretako lapitzak.

-Material likidoak erabiltzen duten teknikak:

Tinta eta haren tresnak.

-Teknika tradizionalak eta berritzaileak erabiltzea adierazteko eta komunikatzeko.

- Collagea tresna gisa.

Denbora tartea: 2. ebaluazioa

3UD. PINTURA TEKNIKAK

-Teknika solidoak, olioizkoak eta mistoak:

Enkaustadurak, pastelak...

-Teknika hezeak:

Akuarela, tenpera, akrilikoa...

4UD. GRABATU ETA ESTANPAZIO TEKNIKAK

Monoinprimaketa eta erreproduktzio multiplea:

Monotipia laua (prozedura zuzenak, eransleak, kintzaileak eta mistoak), Erliebezko estanzazioa (Linoleoa, Seilu-goma...), Hutsunedun estanzazioa edo kalkografia, Estanzazio laua: Copy artikulua.

5UD. PLASTIKA-SORMENAREN PROZESUA ETA TALDE-LANA.

-Teknikak eta estiloak.

-Sortze prozesua.

-Zoria tresna gisa.

Denbora tartea: 3. ebaluazioa

6UD. TEKNIKEK PROZESU ARTISTIKO KULTURALEAN IZANDAKO ERAGINA

-Teknika eta prozedura garaikideak:

Argazkia eta Irudi digitala, ikus-entzunezkoa, Graffiti, Birzikalpena...

ZUD. TALDE-LANA

-Balioestea lan-prozesuaren plangintza eta jarraipena proiektuak garatu eta emaitza egokiak lortzeko. Malgutasuneko, elkartasuneko eta intereseko jarrerak balioestea. Arduraz jokatzeko, materialak eta tresnak erabiltzeko.

METODOLOGIA

EDUKIEN ANTOLAKETA

Edukiak multzo hauetan antolatuta daude:

1. EDUKI MULTZOA: Eduki komunak.
2. EDUKI MULTZOA: Hizkuntza plastikoa eta bisuala.
3. EDUKI MULTZOA: Teknika eta prozedura grafiko eta plastikoak.
4. EDUKI MULTZOA: Tekniken prozesu historiko-artistiko-kulturalean izandako eragina.
5. EDUKI MULTZOA: Plastika-sormenaren prozesua eta talde-lana.

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

Egoera erreal bat edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzeko horiei irtenbidea emateko ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea

Garapen fasean:

Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak
Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak

Aplikazio eta komunikazio fasean:

Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDEAK

- Ikasturteko helburu, proiektu eta ariketa ugarien bisualizazioa eta azalpenak Alexia Classroom ikasgela birtualean aurkitu ahal izango ditu ikasleak. Ikastolako saioetan ere bertatik bideratuko dira eduki eta jarduerak guztiak.
- Adierazpen Teknika grafiko plastikoak frogatzeko, Arte Ederretako materialak, euskarriak eta tresnak eskuratuko ditu ikastetxeak.
- Irudigintza eta Argazkigintza digitalerako Gimp programa eta Pixlr edo Pixl pic bezalako aplikazioak erabiliko dira. Stop Motion Studio aplikazioa animazioetarako eta publikazio, enkoadernaketa eta autoediziorako errekurtsuak (DIY), besteak beste.
- Pandemia egoeran ere Classrooma izango da iparrorratza eta komunikazioa, email bidez, Alexiako jakinarazpenen bidez eta Meet bidezko streaming saioen bitartez bermatuko da.

TALDEKATZEAK

- Bakarka, talde txikietan eta kolektiboki jardungo dugu.

ESPAZIO-DENBORAREN ANTOLAKETA

- Ikasgela, IKT gela eta ikastetxeko zenbait espazio ezberdin erabiliko dugu.
- Astean lau saio dira. Hiruhilekorako antolatutako edukiak lantzeko, hasiera faseei ekingo zaie unitate multzo bakoitzean eta jarraian kontzeptuzko edukiak landuko dira. Ondoren, prozedurak landu eta frogatuko dira aplikazio-ariketa ugarietan.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

EDUKIEN AZALPENAK: teknika, material eta prozedurei buruzkoak.

ARIKETEN LANKETA GIDATUA ETA PRAKTIKOA klasean.

PROIEKTUEN jarraipena.

IKASLEEN EGINKIZUNA

EDUKIEN INTEGRAZIOAN, ARIKETEN LANKETAN ETA SORKUNTZA-PROZESUAN URRATSAK EMATEA izango dira ikaslearen lanik funtsezkoenak

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
• Edukiak praktikan integratzea. • Euskarri eta material ezberdinak frogatzea ariketa ugarietan. • Iradokizunak aintzat hartzea eta libreki apunteak gehitzea. Ekarpen pertsonala eta talde-dinamikaren partaide izatea baloratuko da. • Lan pertsonalak garaiz eta egoki aurkeztea. • Talde-jardueraren ardura hartzea, dinamizatzea eta lortutako emaitzak baloratzea. • Proiektu kolektiboek dituzten faseak errespetatzea.	• %20 jarrerazkoaK • %30 edukizkoaK • %50 prozedurazkoaK EBALUAZIOKO NOTA: EBALUAZIOA GAINDITZEKO ATAL GUZTIAK GAINDITU BEHARRA DAGO NAHITAEZ, ONDOREN BAKARRIK EGINGO DA BATEZ BESTEKOA. JUSTIFIKATU GABEKO HUTSUNEAK JARRERA DESEGOKIA DIRA ETA KALIFIKAZIOAN ERAGINA DUTE (Hutsuneak 3 = Jarrera kalifikazioa 0) AZKEN NOTA HIRU EBALUAZIOEN BATAZ BESTEKOA IZANGO DA. NOTA IGOTZEKO AUKERA IKASTURTE BUKAERAKO OHIKO DEIALDIAN SOILIK IZANGO DA, URTE GUZTIKO IKASKETA FROGATUZ.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
EBALUAZIO ORO ERREKUPERAZIO ALDIA IZANGO DA GAINDITU GABEKO BERRESKURATZEKO.	

OHARRAK

--

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	Kodea:	013379
Eta:	BATXILERGOA	Zikloa/maila	2. MAILA
Arloa/irakasgaia:	INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK II		
Osaturako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Arazo teknologikoak zehaztasunez hautematea eta mugatzea, eta horiek konpontzeko irtenbideak diseinatzea, jakintza teknologikoak eta gainerako jakintza-adarretakoak erabilia edota objektuak zein sistemak aztertzeke metodoaren bidez eskuratutako jakintzak baliatuta, irtenbide horien plangintza eta gauzapea eraginkorra, sortzailea eta lankidetzan gauzatutakoa izan dadin. 2. Ingurune teknologikoko baliabideak testuinguru anitzetan erabiltzea, informazioa egoki aukeratu eta interpretatuta, ingurune horren funtzionamendua ulertzeke eta egungo gizarte teknifikatuko ohiko arazoak konpontzeke. 3. Irtenbide teknologikoak inplementatzea, eta, horretarako, agiriaren bidezko plangintza bat baliatzea, lan metodikoa egitea, segurtasuneko eta ergonomiako arauen bidez hurbiltzea egindako lana eta aurrez ezarritako baldintzak, eta emaitzen eta prozesuaren ebaluazioa egitea, hobekuntza-zikloak betetzen jarraitzeke. 4. Produkzio-sistemako osagaien bereizketa sistemikoa egitea eta haiengandik lortu beharreko objektu, sistema edo zerbitzuekin erlazionatzea, erabiltzen diren baliabideak eta iritsiko den azken emaitza optimizatzeke.		
Irakasleak:	Jon Xabin Urretabizkaia Oiarbide	Ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Aplikazioak instalatu eta konfiguratzeko. Lan horretan segurtasun aktiboa eta pasiboa zainduko du, elkarrekin konektatuta eta Internetera zabaldua dauden sistema informatikoei segurtasuna emateko, batetik, eta datu pertsonalak egoki babestu ahal izateko, bestetik. 2. Aplikazio-programak diseinatu eta soluzioak garatzea, programazio-inguruneak erabiliz, garrantzia izan baduten problemei irtenbidea emateko. 3. Multimedia-elementuak edo webarenak berarenak sortu eta aldatzea, emandako espezifikazioak betez, planteatutako problemari soluzioa emateko. Horretarako, mota bakoitzerako egokienak diren teknikak baliatuko ditu eta erabiltzen dituen iturrien jabetza intelektuala errespetatuko du. 4. Eduki digitalak argitaratzeko web-inguruneak garatu eta diseinatzea, informazioa argitaratzean eskuragarritasun-estandarrek aplikatuz, elkarrekintzarako aukera ematen duten bitartekoak	• Aplikazio-programak egitea programazio-lengoaia jakin batean, benetako problema bati konponbidea emateko. • Webean edukiak egin eta argitaratzea, modu egokian sartuta testu-informazioa, zenbakizkoa, soinua eta informazio grafikoa, kontuan hartuta norentzat den eta zer helburu lortu nahi diren. • Segurtasun aktiboko eta pasiboko neurriak hartzea informazioa trukatzeko eta datuak babesteko.

erabiliz eta multimedia-elementuak sartzea errazten duten formatuak erabiliz, produktuak edo zerbitzuak komunikatzeko. 5. Baliabide digitalen erabilerari dagokionez, zer behar dituen aztertzea, lortu nahi duen helbururako tresnarik egokiena aukeratzeko. Horretarako, irizpide kritikoak aztertuko ditu eskura dauden soluzioak eta tresna digitalak. 6. Parte aktiboa izatea, eta lankidetzako aplikazioak erabiltzea Interneten, sare sozial birtualetan, informazio-igortzaile eta -hartzaile moduan, ekimen komunak sustatzeko. Lan horretan, errespetuz eta elkarlanean jardungo du, produktu kolektiboak sortu ahal izan daitezen.	
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
1. Programatzen ikasi: Python lenguaia. 2. Segurtasun informatikoa. 3. Auto-ediziorako eta maketatzeak aplikazioak: Scribus. 4. Proiektua: Zimiko aldizkaria. 5. Internet bidez aplikazio ofimatikoak: Google Drive.	6. Programazioa eta Elektronika: Raspberry Pi. 7. Web diseinua eta erabilera: weborriak, blogak, wikiak...HTML lenguaia. 8. 3 Dimentsioko programak: Tinkercad 9. 3D inpresioa: 3D inpresorari modelak	10. Proiektua: gailu bat egitea. 11. Kalkulu-orriak: Excel 12. Datu-baseak: Access 13. Online erabiltzeko programak

METODOLOGIA

Erabiltzen den metodologia, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak; estrategia hauetan garrantzia bizia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek, IKTren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute.

Era berean talde-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko.

Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira:

- Ikasleek gaien azalpenak eta teoria eskuragarri izango dituzte, beraiei kabuz lantzeko eta ikasteko.
- Irakasleak puntu zailenak edo zailak gehiago sortu dituztenak azalduko ditu.
- Ikasleek zenbait ariketa egingo dituzte gaiaren zehaztasunak ulertzeko eta barneratzeko. Hauetako zenbait lan irakasleak zuzenduko ditu eta ikasleak itzuli. Beharrezkoa izanez gero lanak berriro eginaraziko zaizkie ikasleak.
- Talde-lanak proposatuko dira, gaietan eta ariketetan ikasi dutena errealitatearekin zerkusia duten proiektuetan erabili ditzaten.

BALIABIDEAK:

- Ordenagailu gela.

- Sarea.
- Interneterako konexioa.
- Proiektorea.
- Raspberry Pi plakak eta elektronika elementuak.
- 3D inprimagailua.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
• Hiru ebaluazio partzial egingo dira. • Ebaluazio bakoitzean egindako banakako edo taldekako lanak ebaluatuko dira. • Jarrera kontuan hartuko da. • Gainera, urte guztian zehar egindako taldekako ikerketa lanak garrantzia handia izango dute.	– Kalifikazioaren gehiengoa prozedurazko ebaluazioari dagokio. Prozedurazko lanak direnak, banakako zein taldekako lanak, entregatu beharrekoak izango dira kurtsoaren batz bestekoa egin ahal izateko. – Kontzeptuak edo edukiak-baliabideak eta jarrera ere neurtuko dira.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
• Ebaluazio bakoitzean egindako lanak berregiteko eta hobetzeko aukera izango du ikasleak ebaluazio-epearen barne. • Ikasturte bukaeran kurtsoa nota globala hobetzeko, eta gaintitu ez duenak gaintitzeko, lan osagarri baten proposamena egingo zaie.	

OHARRAK

--

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	Oiartzo Batxilergo Ikastola	kodea:	
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila	2. maila
arloa/irakasgaia:	Frantsesa II		
osatutako arloak/irakasgaiak			
diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia, matematikarako konpetentzia, zientziarako konpetentzia, teknologiarako konpetentzia, konpetentzia sozial eta zibikoa, arterako konpetentzia, konpetentzia motorra		
irakasleak:		ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. -Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
2. - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. - Elkarbizitzarako konpetentzia
4. - Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. - Norbera izaten ikasteko konpetentzia

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, ohiko komunikazio egoeretakoak, ikasleen gaitasunekin eta intereseekin bat datozenak, bai eta haiek interpretatzea ere, erantzun egokia eman ahal izateko hainbat komunikazio-egoerari.	- Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea eta interpretatzea. - Ahozko harremanetan gogotsu parte hartzea, ikasteko eta ikasgelako gizarte-harremanak lantzeko.
2. Ahoz nahiz idatziz espresatzea eta interaktuatzea, modu gutxi-asko autonomoan eta errespetu- eta lankidetzaz-jarrerarekin, modu egoki, koherente eta zuzenean erantzun ahal izateko ohiko komunikazio beharrei.	- Idatzizko eta ahozko testuetako ideia orokorra eta hainbat informazio ulertzea. - Idatzizko eta ahozko testuak ekoiztea, norberaren interesekoak eta gaur egungoak. - Hizkuntzaren oinarritzko arauak testuetan aplikatzea.
3. Atzerriko hizkuntzaren ezaugarri sozial eta	

kultural nagusiak ezagutzea eta interpretatzea, estereotipoak eta balio-judizioak saihestuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren aurrean errespetua eta jarrera positiboa izateko. 4. Atzerriko hizkuntza eta hizkuntzak oro har ontzat jotzea beste jatorri, hizkuntza eta kultura batzuetako pertsonen artean komunikatzeko eta ulertzeko, eta esperientzia eta harreman pertsonalak antolatzeke beste modu batzuk ezagutzeko. 5. Atzerriko hizkuntzaren osagaiei buruz gogoeta egitea, eta kontzeptu nahiz prozedura egokiak erabiltzea ahozko nahiz idatzizko testuak hobeto ulertu, aztertu eta sortzeko, eta ikasitakoa hobeto transferitu ahal izateko hizkuntzen artean. 6. Idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testuez gozatzea, era horretan mundua eta gizakia ulertzeko, hizkuntza aberasteko eta sentsibiltate estetikoa garatzeko. 7. IKTak erabiltzea gero eta modu autonomo eta kritikoagoan, informazioa eskuratu, komunikatu eta atzerriko hizkuntzan lankidetzan jarduteko. 8. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko.	-Kulturartekotasuna lantzeko gaitasuna edukitzea.
---	--

ARAZO EGOERA [arazo egoeraren azken ataza, arazoa eta testuinguruaren daturik errelebanteenak agertuko dira]

- 1. UNITATEA: Vivre avec les autres

Arazoa: Nola sartu lan munduan?

Testuingurua: Beraien etorkizuna erabaki behar duten urte honetan, lan munduari begira jartzea ere komeni da, eta gero eta ikasle gehiagok egiten dituztenez praktikak nazioartean, beste herrialdeetan mundu honek nola funtzionatzen duen ikustea komeni da.

Azken ataza: Binaka, haur zaintzaile baten paperean sartuko dira, eta lan elkarriketa bat prestatuko

dute, gero beste pertsona batekin interpretatzeko.

- 2. UNITATEA: un peu, beaucoup, passionnément...

Arazoa: Zer gustatzen zait nire denbora librean egitea?

Testuingurua: Gaur egun, bidaiak dira gazteen aisialdiaren zati garrantzitsu bat. Hau horrela izanda, frankofonia den herrialde batera joanda beraien aisialdiaz hitz egiteko gaitasuna nahitaezkoa da; ondorioz, unitate honetan aisialdiari loturiko hizkuntza landuko da.

Azken ataza: Beraien inguruko opor ohiturei buruzko artikulu bat idatzi.

- 3. UNITATEA: Tout le monde en parle

Arazoa: Nolakoa da jende frantsesa eta zein sinbolorekin identifikatzen dira?

Testuingurua: Frantzia Euskal Herriarekin mugan dagoen herrialdea da, eta hurbiltasun honek jendeak Frantziara egiten dituen bidaiak ugariak izatea eragiten du. Baina, bidaia hauetarako herrialdeko ohiturak ezagutzea komeni da, hori da unitatean landuko dena.

Azken ataza: Binaka, iritzia eman: sinbolo hauek benetan dira frantsesak ordezkatzeko dituztenak? Ba al duzue zuek horrelako sinbolorik?

- 4. UNITATEA: On verra bien!

Arazoa: Zer egingo duzu hurrengo urteetan?

Testuingurua: batxilergo bigarren maila urte erabakigarria da ikasleentzat, etorkizunari begira hasten dira, eta beraz, beraien proiektuak beste hizkuntza batzuetan komunikatzen jakitea ere ezinbestekoa da.

Azken ataza: hurrengo urterako dituzten proiektuak azaltzeko idazlan bat egin.

- 5. UNITATEA

Arazoa: Nolako telebista nahi dugu?

Testuingurua: Geroz eta gutxiago ikusten da telebista gaur egun, plataforma digitalek aurre hartu diote duela gutxi arte denbora-pasa arrakastatsuena zenari. Ikasleek telebistaren inguruan hausnarketak egin ditzaten, nahi duten bezalako telebista programak sortzea izango da unitatearen helburua.

Azken ataza: telebista programa desberdinez osatutako telebista sortuko dute ikasleek, taldeka.

- 6. UNITATEA

Arazoa: Eta hiri bat klasera ekarriko bagenu?

Testuingurua: atzerriko bigarren hizkuntza frantsesa ikasgaian urtero bidaia bat egiten da Frantziako hiriren batera. Unitateak, hiria bertaratu baino lehen pixka bat ezagutzea helburu izango du, eta joan ondoren ikaskideei hiri horren zatitxo bat ekartzea. Horretarako, teknika desberdinak erabiliko dira.

Azken ataza: bidaian ikusitakoa Oiartzora ekartzeko, taldeka erakusketa bat egingo da, eta bertan informazioa hainbat euskarriren bitartez egingo da ikusgai.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuak, ikaskuntza-nukleokak edo beste moduren batera antolatuta,...]

- 1. UNITATEA:

- a) Leçon 21: C'est interdit!
- b) Leçon 22: Petites annonces
- c) Leçon 23: Qu'est qu'on lui offre?
- d) Leçon 24: Le candidat idéal...

- 2. UNITATEA:

- a) Leçon 25: Enquête
- b) Leçon 26: Quitter Paris
- c) Leçon 27: Vivement les vacances!
- d) Leçon 28: Les français en vacances

- 3. UNITATEA:

- a) Leçon 29: Enfant de la ville
- b) Leçon 30: Fait divers
- c) Leçon 31: Ma première histoire d'amour
- d) Leçon 32: La 2CV.... et autres symboles!

- 4. UNITATEA:

- a) Leçon 33: Beau fixe
- b) Leçon 34: Projets d'avenir
- c) Leçon 35: Envie de changement
- d) Leçon 36: Le pain, mangez-en!

- 5. UNITATEA:

- a) Introduction
- b) Leçon 1: Journal télévisé
- c) Leçon 2: La météo
- d) Leçon 3: Programme de cuisine
- e) Leçon 4: Programme culturel

- 6. UNITATEA

- a) Leçon 1: Avant d'y aller
 - i) Histoire du moument/lieu
 - ii) Travailler la position des monuments
 - iii) Culture
- b) Leçon 2: Après d'être allé
 - i) Description écrite
 - ii) Écriture de l'histoire
 - iii) Chercher les références
 - iv) Les impressions
- c) Leçon 3: Création de l'exposition

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA:

1. MULTZOA. Ikasgai eta ikasturte guztien eduki komunak
2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea
3. MULTZOA. Diskurtsoen aniztasuna: irakurtzea eta idaztea
4. MULTZOA. Hizkuntzari buruzko gogoeta
5. MULTZOA. Literatura-diskurtsoa
6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko.
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea.

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak.
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak.

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDE DIDAKTIKOAK:

Testu liburua: Taxi 1

Horrez gain, irakasleak sortutako txostena erabiliko da. Filmak eta abestiak frantsesez. CD eta Internet.

IKT-ei dagokionean, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduerak, edukiak pdf-n igoko dira. Ikasmaterial guztia eskura izango dute plataforman (testuak, bideoak, material gehigarria eta abar).
Ikasleen lanerako programa kolaboratiboak erabiliko dira (Drive). Ekoizpena testu formatuan (word edo Google docs) eta aurkezpen formatuan (edozein plataforma, ppt, prezi, google) eskatuko zaie. Ikasleen lanak korreo elektronikoz jasoko dira.

Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia

Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko, materiala korreoz ere bidaltzen ahal zaie.

IKASLEEN TALDEKATZEA:

Egunerokoan ikasleek banaka jardungo dute, irakasleak emandako azalpenak ulertu beharko dituzte, eta ondoren ariketak egin.

Talde lanak bultzatuko dira, ariketak taldeka eta binaka ere egingo dituzte, horrela talde lana, kooperatibismoa eta hizkuntzaren erabilera bultzatzeko, beti ere ariketaren izaera kontuan izanda.

ESPAZIO-DENBOREN ANTOLAKETA:

- Egunerokoan ikasgela erabiliko da lanerako. Talde lanak burutzeko orduan, aldiz, IKT gela ere erabiliko da behar izanez gero. Ariketa osagarriak egiterakoan beste hainbat gela ere erabiliko dira, hala nola, aretoa.
- Astean lau saio edukiko dira. Urtea ebaluazioko eta unitateka eta ebaluaketaka antolaturik egongo da. Halaber, edukiak lantzeko: hasiera fasea, garapen fasea eta aplikazio eta komunikazio faseak burutuko dira.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA:

- Ikasleen arreta bereganatzen eta dituzten aurre-ezagutzak aktibatzen saiatuko da unitatean sakontzen hasi baino lehen.
- Material desberdinetan oinarrituta (testu liburuak, testuak, bideoak...), azalduko ditu unitate didaktikoak. Hainbat euskarri mota erabiltzen ahalko ditu horretarako (ppt, prezi, youtube...).
- Emandakoa aplikazio praktikoekin harremanetan jarriko du, eta gaiak errealitatearekin lotuko ditu.

IKASLEEN EGINKIZUNA:

- Irakasleak azalpena jarraitu eta ulertu behar du, horretarako ariketak eginez. Horretaz gain, ikasleak agindutako lanak eta irakurketak egin behar ditu eskatzen zaizkionerako.
- Edozein duda izanez gero, irakasleari galdetu beharko diote, beraien ikaskuntza prozesua ahalik eta osoena izan dadin.

- Indibidualki zein taldean egingo dute lan, lan taldean aritzeko gaitasuna garatzeko.
- Edukiak barneratzeko teknika egokienak martxan jarri beharko dituzte.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
EBALUATZEKO TRESNAK: - Kontrol froga bat izango da unitate bakoitzaren amaieran eta azterketa bat ebaluazioaren amaieran. - Etxerako bidaltzen diren lanak eta klasean egindakoak pisu handi edukiko dute. - Gaiaren arabera zehaztuko dira ahozko aurkezpen eta frogak. - Gaiarekiko jarrerak ere bere pisua izango du. -Ebaluazioko proiektuak ere bere pisua edukiko du.	KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: - Ebaluazioan zehar egindako lanen batez bestekoari (idatzizko nahiz ahozkoak) erreparatuko zaio, kontrolak ere nota honetan sartuko dira, lan hauek notaren %40 balioko dute. - Ebaluazioko proiektuak beste %40a balioko du. -Ebaluazio bukaerako azterketak %20ko balioa izango du.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]	
Suspenditutako kontrol partzialak ebaluaketa azterketan berreskuratzeko ez da aukerarik emango, ikasgai jarrai denez gero. Hau ez bada gaitzen, hurrengo ebaluaketaren bidez gaitzeko aukera izango da (1. eta 2. ebaluazioetan).3.ebaluazioa suspenditzekotan, azterketa finalera aurkeztu beharko du ikasleak. Plagioak lanaren gutxiegi nota dakar zuzenean. Nota orokorra igo nahi duen ikasleak kurtso osoaren azterketa egin beharko du.	

OHARRAK

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila	2
arloa/irakasgaia:	Psikologia		
osatutako arloak/irakasgaiak	-----		
diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	1. Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan, maila bat baino gehiagotan (familian, eskolan, auzoan, herrian, nazioan eta gainerako mailetan). 2. Norberaren gizartea ezagutzea, eta bereziki haren iraganeko eta egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua; gizartea zer lurraldetan eta nola ezarrita dagoen jakitea, haren iraganaren kontzientzia hartzea eta gizakien ekintzak gizartean sortzen dituen arazoen aurrean modu positiboan jarduteko gaitasuna lantzea. 3. Bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izatea eta egoera hori onartzea, konpromisoa izanda eta elkartasuna adierazita; aintzat hartzea garaiko gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala, eta, bereziki, egungo euskal eta europar gizarteetakoak, eta naturarekin, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzea, gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko. 4. Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritzia osatzeko erreferente unibertsala eta norberak herritar gisa dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko erreferentea; eta partaidetzako, begiruneko, justizia sozialeko eta elkartasuneko jokabideak lantzea, balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko. 5. Iraganean, edo gaur egun, bizikidetzat-tentsioak eta -gatazkak izan dituzten gizarte-taldeak, elkarri eragiten diotenak, historian zehar zer konfigurazio edo egitura izan duten jakitea; eta iraganaren gaineko kontzientzia kritikoa lantzea, etorkizunean egoera horiek konpontzeko prozedura baketsu eta demokratikoak erabiltzen jakin dezagun. 6. Bizi duten mundua ulertzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzea; hau da, munduaren alderdi fisikoak, sozialak eta kulturalak, iraganean izandako bizipen kolektiboak eta gaur egungo bizipenak, eta bizitza sozialari dagokion espazio fisikoa ulertzeko behar direnak, munduan eragile aktibo izateko.		
irakasleak:	Araitx Olaiz Leibar	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Psikologiako gaur egungo eredu teorikoak zein diren jakitea, eta ikerketa txikietan erabiltzea, diziplinaren ikuspegi globala izateko. 2. Psikologia zientifikoaren planteamenduak zein diren jakitea, bereizteko zein diren zientziako berezkoak eta zein giza arazoak ulertzeko eta azaltzeko beste modu ez-zientifiko batzuenak. 3. Psikologia mundu profesionalean zer arlo nagusitan aplikatzen den deskribatzea, eta erabiltzen diren tekniketako batzuk gainetik ikustea, kontuan izateko etorkizuneko profil akademiko edo profesional bat ezartzeko. 4. Norberaren errealitatea aztertzekeko estrategiak eskuratzea, alderdi intelektualari, afektiboari eta jarrerazkoari dagokionez, eta bizitzako egoera konkretuetan aplikatzea, nork bere jardueraren benetako kontrola eskuratzeko. 5. Norberaren ikaskuntzarekin lotutako ezagutzak eta teknikak aplikatzea, lanerako estrategiak eta ohiturak hobetzeko. 6. Ikasleak hobeto ulertzea bere funtzionamendu psikologikoa eta gainerakoena, eta nork bere buruaren ezagutza eta norberaren ikuspegitik aldentzeko ahalmena sustatzea, nork bere buruaren irudi zehatzagoa izateko eta inguruneke eskaerei hobeto erantzuteke. 7. Gainerakoen portaera eta ideiekiko jarrera ulerkorrek izatea, aniztasuna irizpide kritiko eta irekiz balioesteko, aldaketak eragiten dituen aberastasuna da eta.	1. Bereiztea psikologia zientifikoak zer ekarpen egin duen giza arazoak beste modu batzuetan aztertzeke, izan modu zientifikoak izan ez-zientifikoak, eta psikologiak zientzia moduan dituen ezaugarri teorikoak eta metodologikoak ezagutzea eta beste diziplina batzuen ekarpenen osagarri dela jakitea. 2. Psikologiak sortu zenetik gaur egun arte zer ekarpen nagusi egin dituen identifikatzea, zer arazo nagusi planteatu diren jakitea eta gaur egungo korronte psikologikoeke emandako konponbideak ezagutzea. 3. Psikologia zer eremu nagusitan aplikatzen den eta zeinetan esku-hartzen duen jakitea, eta aintzat hartzea zer ekarpen egiten duten psikologia-ikuspegi askotarikoek. 4. Ikerketa psikologikoean erabiltzen diren metodo nagusiak, haien ekarpenak eta mugak alderatzea, eta metodo horietakoren bat aplikatzea hurbileke egoera errazak aztertzeke. 5. Ikuspegi antropologikoe batetik azaltzea zer bilakaera izan duen giza garunak, eta jakitea zer ezaugarri bereizten duten beste animalia batzuen garunetik, ohartzeke zeinen garrantzitsua den garapen neurologikoea eta hark dakartzan ondorioak. 6. Nerbio-sistema zentralaren antolaketa aztertzea (batez ere, giza entzefaloarena), eremu bakoitza zer arloz arduratzen den eta norbanakoaren jarreran nola eragiten duen jakitea, eta, horrenbestez, haren garrantzia aintzat hartzea. 7. Giza portaera haren genetika- eta ingurumen-baldintzatzaileekin lotzea, azaltzea faktore horiek nola elkarrengaitzen duten portaera desberdinak sortzeke hainbat pertsona eta/edo kulturetan, eta desberdintasun horiek balioestea. 8. Sistema endokrinoak garunean zer eragin duen eta zer portaera eragiten dituen ikertzea, laburtzea eta balioestea. 9. Giza pertzepzioa, funtsean, eraikuntza-prozesu subjektibo eta mugatua dela eta errealitatearen ezagutza horren gainean eraikitzen dela ohartzea. 10. Giza arretak eta memoriak zer egitura duten, zer mota dauden eta nola funtzionatzen duten jakitea, eta gaur egungo teoria batzueke zer ekarpen egin dituzten ikertzea, jakiteke zer jatorri duten gizakiaren gaitasun horiek eta zer faktoreke eragiten duten haietan, ekarpen horiek nork bere ikaskuntzan erabiltzeke. 11. Ikaskuntzari buruzke teoria nagusiak azaltzea, eta dituen teoria horietake bakoitzake ikaskuntza-prozesuan funtsezkoak jotzen dituen faktoreak bereiztea, fenomeno hori ulertzen hasteko, gizarte-eremuan zer aplikazio dituen jakiteke, eta ezagutza horiek nork bere ikaskuntza hobetzeke erabiltzeke. 12. Gizakiaren goi-mailake prozesu kognitiboek (adimena eta pentsamendua) ezaugarriak eta garapena azaltzen dituzten

	teoria batzuk jakitea, prozesu horretan eragiten duten faktoreak bereiztea, eta adimen-koizientea zer den eta hura neurtzeko tekniken eraginkortasuna aztertzea, giza gaitasun hori zertan den ulertzeko. 13. Adimen emozionalak norbanakoaren garapen fisikoan duen garrantzia ezagutzea eta aintzat hartzea. ² Gardnerren eta Golemanen teoriak aztertzen ditu, eta eskema baten bidez azaltzen ditu adimen emozionalaren konpetentziak eta konpetentzia horiek arrakasta pertsonal eta profesionalerako duten garrantzia. 14. Motibazioaren garrantzia eta motibazioak prozesu kognitiboekin duen lotura azaltzea eta balioestea, hura azaltzen duten suposizio teorikoak garatzea, eta haren garapenean izaten diren akatsek eta gatazkek dakarten frustrazioa aztertzea. 15. Nortasuna zer den ulertzea eta analizatzea nortasunak oinarri dituen genetika-, ingurumen- eta kultura-eraginak, hura aztertzen duten teoriak, eta nortasuna garapen-fase bakoitzean behar bezala garatzeko motibazio-faktoreak, faktore afektiboak eta faktore kognitiboak. 16. Zer afektu mota dauden jakitea eta balioestea, eta zenbait asaldura emozionalen jatorria ezagutzea, gaitasun hori garatzeko interesa sortzeko. 17. Harreman afektiboak eta sexuak norbanakoaren garapenean zer-nolako garrantzia duten jakitea, eta modu kritikoan aztertzea haren funtsezko alderdiak. 18. Gizakiaren dimentsio soziala zer den jakitea eta sozializazio-prozesua ulertzea, hau da, gizartearen arauak eta balioak barneratzea, eta ohartzea zer eragin duen pertsonen nortasunean eta jarreran. ² Diferentzia edo alde kulturalak gizabanakoen portaeran zer eragin duten aztertzen eta balioesten du, gizakien eskema kognitiboetan, nortasunean eta bizitza sozial eta afektiboan eragiten duten aldetik. 19. Masen prozesu psikologikoak zer diren jakitea, eta haien ezaugarriak eta portaera-ereduak ezagutzea eta aintzat hartzea, nork bere ekintzen gaineko kontrola galtzea dakarten egoeretan ez erortzen saiatzeko. 20. Psikologiak lan-arloan eta erakundearen garapenean duen garrantzia azaltzea, haren kudeaketan zer arazo sortzen diren aztertzea eta erakundearen arazoei aurre egiteko baliabide egokiak bilatzea.
--	---

ARAZO EGOERA

1. ebaluazioa

1. Zer dakit psikeari buruz?

Azken ataza: Buru mapa grafiko batean bilduko dugu guztia.

2. ebaluazioa

2. Nor naiz ni?

Azken ataza: Barne-hausnarketa eginaz ikerketa pertsonal bat gorpuztuko dugu.

3. ebaluazioa

3. Zein da nigan dagoen dimentsio soziala?

Azken ataza: Elkar partekatuko ditugu guztienak diren interesezko gaiak.

EDUKIEN SEKUENTZIA

Denbora tartea: 1. ebaluazioa
1. Zer dakit psikeari buruz? 1. PSIKOLOGIA ZIENTZIA MODUAN 2. PORTAERAREN OINARRI BIOLOGIKOAK 3. OINARRIZKO PROZESU-KOGNITIBOAK: -PERTZEPZIOA, ARRETA ETA MEMORIA ➤ Psikearen ikasketa prozesua burutuko da, BANAKA ZEIN TALDEAN.
Denbora tartea: 1. ebaluazioa
2. Nor naiz ni? 4. GOI-MAILAKO PROZESU KOGNITIBOAK: -IKASKUNTZA, INTELIGENTZIA ETA PENTSAMENDUA. 5. GIZAKIAREN ERAIKUNTZA: -MOTIBAZIOA, NORTASUNA, AFEKTIBITATEA ➤ Norbanakoaren behaketa pertsonala egingo da, alderdi afektibo eta emozionala landuz eta ELKAR ZAINDUZ.
Denbora tartea: 3. ebaluazioa
3. Nigan dagoen dimentsio soziala zenbatekoa da? 6. PSIKOLOGIA SOZIALA ETA ERAKUNDEEN PSIKOLOGIA ➤ Gai psikologiko eta psikosozialen inguruko ikerketa eta bere aurkezpena burutuko da, PARTE HARTZE AKTIBOA BULTZATUZ.

METODOLOGIA

EDUKIEN ANTOLAKETA

Edukiak multzo hauetan antolatuta daude:

1. MULTZOA Eduki komun zeharkakoak.
2. MULTZOA Psikologia zientzia moduan.
3. MULTZOA Portaeraren oinarri biologikoak.
4. MULTZOA Oinarrizko prozesu-kognitiboak.
5. MULTZOA Goi-mailako prozesu kognitiboak.
6. MULTZOA Gizakiaren eraikuntza.
7. MULTZOA Psikologia soziala eta erakundeen psikologia.

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

Egoera erreal bat edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko
Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea

Garapen fasean:

Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak
Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak

Aplikazio eta komunikazio fasean:

Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDEAK

Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertan jasoko dira saio presentzialetan burutuko diren jarduerak guztien nondik-norakoak eta denboralizazioa. Irakasleak testu-liburua lagun, gaiari hasiera emango die, edukiak aurkeztu eta jarduerak ezberdinak proposatuko ditu metodologia eta dinamizazioarako jarduerak anitzak erabiliaz.

Edukiak biltzen dituen euskarri nagusia: Mc Graw Hill editorialaren liburua izango da eta beronen bertsio digitala erabiliko da gelan gaiak azpimarratu eta jarraitzeko.

EHU-ko blog espezializatu eta digitalizatueta sarbidea ere izango da Alexia Classroomen.

Bakarka zein taldean ikasleek ikerketa lanak burutzeko tresna nagusia ordenagailua izango da eta hauek Classroom plataformak bidez aurkeztuko ahal izango dituzte. Ikasleen lanerako ofimatika programa kolaboratiboak erabiliko dira (Drive) eta ekoizpena formatu ugarietan: Word edo Google Docs, PPT, Prezi, bideo-edizioan...eskatuko zaizkie.

Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak etxetik jarraitu behar izanez gero.

TALDEKATZEAK

Aurkikuntza gidatuaz informazio anitzak eta lanketa eredu ezberdinak proposatuko dira gaien kontzeptualizazioarako eta errepresentazioarako. Hauek: iruzkinak, lan monografikoak, buru-mapak, aurkezpenak... BANAKA eta TALDEKA (gehienetan HIRUNAKA, batzuetan talde handiagotan) egingo dira.

ESPazio-DENBORAREN ANTOLAKETA

Ikasgela, IKT gela eta ikastetxeko kanpo-espazioak erabiliko ditugu.

Asteak lau saio dira. Hiruhilekotan antolatutako edukiak lantzeko, unitate bakoitzeko hasiera faseari dagozkion ariketa txiki bat egingo da eta hurrenez hurren garapen faseari dagokiona, aplikaziozkoa eta komunikaziozkoa.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

AZALPENEN BIDEZ edukiei hasiera ematea: gaiak, kontzeptuak, hiztegia eta ikuspegi orokorra azaltzea. AURKIKUNTZA GIDATU BIDEZ interesak biltzea: aurre-ezagutzak jaso eta horrela ikasketa berriak bultzatzeko. TALDEAREN dinamizazioarako eta GOGOETARAKO espazio seguruak bilatzea. IRITZI KRITIKOA sustatzea, gainerako ideiekiko jarrera ulerkorra eta irekia balioetsiaz.

IKASLEEN EGINKIZUNA

IKASTEN-IKASTEKO TEKNIKA BIDEZ Informazio, Errepresentazio eta Aplikazio ekintzak egoki eta garazi burutzea. JARRERA AKTIBOAREN bidez taldeari ekarpenak egitea.

EBALUazio-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
-Gaien ezagutza lan, ariketa, eztabaida, iruzkin eta kontrolen bitartez: Eduki nagusiak ulertu, hiztegia aberastu eta ezagutzaren garapenean aurrerapausoak ematea baloratuko da. - Ikasgiroari egiten zaion ekarpen baikorra: Besteen iritziak errespetatzea baloratuko da eta parte hartzea aktiboa ere bai.	-LANAK: Lan pertsonalak zein taldekakoak egitea nahitaezkoa da eta hauek gogotsu eta sakon burutzea baloratuko da: %30 -KONTROLA: Ebaluazio oro, konpetentziak frogatu eta edukiak integratzeko kontrola egingo da: %50 -JARRERA: Jarrera edo ikaste prozesuarekiko ahalegina eta atxikimendua kalifikatuko da: %20

	BATEZ BESTEKOA: -Ebaluazioa gainditzeko hiru atalak gainditu beharra dago nahitaez, ondoren bakarrik egingo da batez bestekoa. -Justifikatu gabeko hutsuneak jarrera desegokia dira eta kalifikazioan eragina dute (hutsuneak 3 = jarrera kalifikazioa 0) -Nota igotzeko aukera ikasturte bukaerako ohiko deialdian soilik izango da, ikasturte osoko edukiak frogatuz. -Azken nota hiru ebaluazioen batez bestekoa izango da.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
-Ebaluazio oro berreskurapen aukera bat eskainiko da. -Behar izanez gero segimenduan, lan-erritmoan eta proiektuetan sakonduko da. -NOTA IGOTZEKO AUKERA berriz ohiko deialdian izango da, ikasturtean zehar ikasitakoa frogatuaz.	

OHARRAK

--

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxea:	Oiertzo Batxilergoa	Kodea:	013379
Etapia:	Batzilergoa	Zikloa/maila	2. maila
Arloa/irakasgaia:	Administrazio eta kudeaketa oinarriak		
Diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	- Hizkuntza komunikazioa. - Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasuna. - Gaitasun digitala. - Ikasten ikastea. - Gaitasun sozial eta zibikoak. - Ekimena eta ekintzailatza. - Kontzientzia eta kultura adierazpenak		
Irakasleak:	Olatz Mitxelena	Ikasturtea:	2021-22

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Enpresa-berrikuntzaren faktoreak zein diren zehaztea eta enpresak sortzeko jarduerarekin lotzea, negozio-idea bat hautatuz oinarritzko merkatu-azterketa baten bidez, enpresa proiektu bideragarri bat egin ahal izateko. 2. Enpresen funtzionamenduaren ikuspegi praktikoa lortzea hura osatzen duten arloak aztertuz: enpresak sailkatzea, enpresa mota bakoitzaren abantailak eta desabantailak zein diren jakitea, eta enpresak hartzen duen forma juridikoaren arabera, hura eratze beharrezko izapideak zein diren jakitea. 3. Enpresaren barne-antolakuntza, forma juridikoa, kokapena eta behar dituen baliabideak eta dokumentazioak aztertzea: Enpresa-jardueran sortzen diren agiriak identifikatzea, erabili eta artxibatzea (informazio zirkuitu bat osatzen dute enpresan bertan eta enpresaren eta kanpoaren artean).	1. Enpresa-berrikuntzaren nondik norakoak antzematen ditu eta berrikuntzak garapen ekonomikoan eta enplegu sorreran duen garrantzia azaltzen du. Arrikus-elementuak ere aztertzen ditu. Enpresa-ikuspegitik azaltzen du ekintzailearen figuraren alderdi askotarikoak. Negozio-idea baten alde egitearen ondorioak ebaluatzen ditu. Negozio-idea egingarrien proposamenek dituzten alderdi onuragarriak eta eragozpenak aztertzen ditu. 2. Enpresa mota ezberdinak bereizten ditu, baita enpresa kokatuko den jardura-sektoreko informazio ekonomikoa aztertu ere. 3. Enpresaren barne-antolakuntza, forma juridikoa, kokapena eta behar dituen baliabideak eta dokumentazioa aztertzen

- | | |
|---|--|
| <ol style="list-style-type: none"> 4. Hornidura merkataritza-prozesuak dakartzan eragiketak egitea, jakitea nola eskuratzen diren enpresa-jarduera egiteko behar diren ondasunak eta zerbitzuak, hornitzailearekin harremanetan jartzeko modua zein den jakitea, erosketek sortzen dituzten agiriak nolakoak diren, nola ordaintzen diren eta eragiketa horiek zer arauk arautzen dituzten jakitea. 5. Enpresak eskaintzen dituen ondasunen eta zerbitzuen salmentaren merkataritza-prozesuak dakartzan eragiketak egitea. Horretarako, zer fase dituen jakin behar da, bezeroak eskuratzeko modua ezarri, salmentak sortutako agiriak eta haiek kobratzeko modua zein den jakin, eragiketa horiek arautzen dituzten arauak zein diren jakin, eta marketin-plan erraz bat egin, enpresak jarduten duen merkatuaren ezaugarriak aztertzeke. 6. Jakitea zer eskubide eta betebeharrak dauden lan-harremanetan, ezarritako legediaren arabera; pertsonal-sailak zer eginkizun dituen ezartzea; kontratu motak aztertu eta bereiztea; nominak egin eta gizarte-aseguruen kitapenak eta PFEZaren atxikipenak egitea; eta enpresak erakunde ofizialekin eta langileekin dituen harremanetan sortzen diren agiriak zein diren jakitea. 7. Oinarritzko kontabilitate-kontzeptuak eskuratzeko, enpresa baten ekitaldi ekonomiko bateko kontabilitate-prozesua adierazten duen kasu praktikoa bat ebatziz, jakiteko enpresaren eragiketek zer eragin duten ondarean, kontuen eta kontu-idazpenen kontabilitate-esanahia jakiteko, ekitaldiaren itxiera kontabilitate-prozesua ulertzeko, enpresak lortutako emaitza ekonomikoa zein den zehazteko, eta enpresaren urteko kontuak egin eta haiek ematen duten informazioa interpretatzeko. 8. Taldeko enpresa-proiektu bat aurkezten eta defendatzen jakitea, proiektua egitean eskuratutako konpetentzia teknikoak eta pertsonalak eraginkortasunez erabiliz, ikasleak | <p>ditu, eta zer alternatiba dauden eta proiektuarekin adierazitako helburuak balioesten ditu. Honez gain, enpresa sortzeko lege-izapideak ere aztertzen ditu.</p> <ol style="list-style-type: none"> 4. Helburuak eta hornidura-beharrizanak ezartzen ditu. Hornitzaileak aukeratzeko prozesuak ere egiten ditu, baldintza teknikoak aztertuz. 5. Enpresaren produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko prozesua aztertzen du. Enpresaren balizko bezeroen ezaugarriak azaltzen ditu, eta badaki nola jokatzeko duten haren lehiatzaileak. Komunikazio-prozesuak eta gizarte-trebetasunak baliatzen ditu bezeroei arreta emateko eta merkataritza-eragiketak egiteko. Epe labur eta ertaineko salmenta-aurreikuspenak egiten ditu, kalkulu-orriak erabilia. Produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarriak erreparatu ondoren, prezioen gaineko zer estrategia erabili hausnartzen du, eta salneurria ezartzeko erabakia argudiatzen du. 6. Lan -harremanaren berezko kudeaketarekin lotutako oinarritzko araudia ezagutzen du, eta enpresa baten pertsonal-sailak betetzen duen ardura ezagutzen du. 7. Enpresaren ondare-elementuak erabiltzen ditu, kontularitza-metodologia balioesten du eta kontularitza-liburuen zeregina aztertzen du. Amortizazioaren kontzeptua ulertzen du eta badaki haren kontularitza-erregistroa egiten. Dagokien ekitaldi ekonomikoan aztertzen eta esleitzen ditu gastuak eta diru-sarrerak, horiek noiz ordaintzen edo kobratzen diren kontuan izan gabe. Kontularitza-zikloa nola gauzatzen den ulertzen du, ekitaldiaren itxierako kontularitza-prozesua aztertzen du eta enpresak lortutako emaitza ekonomikoa zehazten du. 8. Komunikazio-trebetasunak eta arreta bereganatzeko teknikak erabiltzen ditu enpresa-proiektua jendaurrean azaltzean. |
|---|--|

ahozko eta idatzizko komunikazioko trebetasun pertsonalak eta sozialak eskura ditzan.

Tresna informatiko eta ikus-entzunezko erakargarriak erabiltzen ditu proiektuaren zabalkunde eraginkorrari laguntzeko.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

1. MULTZOA: Enpresa-berrikuntza. Negozio-ideia: enpresa-proiektua.

- 1.1. Espiritu ekintzailea: ekintzailletza motak.
- 1.2. Genero estereotipo eta rolen eta ekintzailletza mota desberdinak garatzeko ezaugarrien arteko harremanak.
- 1.3. Ekintzailearen ezaugarriak.
- 1.4. Enpresa-arriskua.
- 1.5. Enpresa-ideia: ebaluazioa.
- 1.6. Enpresa-ingurunea: analisia.
- 1.7. Lehiatzaileak aztertzea: merkatuak ikertzea.

2. MULTZOA: Enpresaren barne-antolakuntza, forma juridikoa eta baliabideak

- 2.1. Sailkapena: Zer enpresa mota dauden jakitea, jabeek horietan duten erantzukizun mailari erreparatuta.
- 2.2. Forma juridikoak: Enpresen forma juridikoaren, behar den kapitalaren zenbatekoaren, bazkideen kopuruaren eta horien erantzukizunaren arteko uztarketa.
- 2.3. Antolamendua: Enpresaren barne-antolamenduaren analisia.
- 2.4. Finantzazioa eta kostuak.
- 2.5. Enpresek herrialdeen ekonomian duten eginkizuna balioestea.
- 2.6. Enpresek herritarren beharrianak asetzeko duten baliagarritasunaren gaineko hausnarketa egitea.
- 2.7. Enpresarien eginkizuna balioestea.
- 2.8. Enpresak eratzeeko forma juridikoen azterketa.
- 2.9. Enpresen barne-antolamendua ulertzea eta sailek enpresan zer eginkizun duten balioestea.

3. MULTZOA: Enpresa martxan jartzeko dokumentazioa eta izapideak

- 3.1. Ogasuneko izapideak: Gizarte Segurantzako izapideak, Udaletxeko izapideak eta beste izapide batzuk. Informazio-agirien beharrianak.
- 3.2. Dokumentazioa izan eta erregistratzeko araubidea.
- 3.3. Enpresaren aurkezpen-gutunak egitea balizko hornitzaile eta bezeroentzat.

4. MULTZOA: Hornidura-plana

- 4.1. Erosketa-zikloa: beharrianak aztertzea, eskaintzak hartzea eta konparatzea, hornitzaileak hautatzea, eskaerak bidaltzea, eskaerak hartzea eta egiaztatzea, fakturak hartzea eta egiaztatzea, ordainketak egitea.
- 4.2. Eskaintzak eta hornitzaileen ezaugarriak aztertzea, unean-unean komeni direnak hautatzeko. Negoziazioaren eta komunikazioaren kudeaketa.
- 4.3. Izakinen kudeaketa: kostuak kudeatzea, eskaera-bolumen optimoa, eskaera-puntua, segurtasuneko stocka.

5. MULTZOA: Enpresaren merkataritza-kudeaketa eta marketina

- 5.1. Produktua salmentaren xede: produktuaren ezaugarriak, produktua ezagutzearen garrantzia, sailkapena eta bititza-zikloa. Lehiatzaileen produktuak.
- 5.2. Enpresek beren produktuak ezagutarazteko eta kontsumitzaileengana egoera hobereanean iristeko moduan banatzeko premiaz hausnartzea.
- 5.3. Salmenta: salmenten saila, salmenten alorraren antolamendua, salmenta-ekintzen programazioa, salmenta-prozesua, bezeroak aztertzea.
- 5.4. Politika komertzialaren elementuak identifikatzea eta aztertzea.
- 5.5. Salmenten eginkizuna balioestea, enpresaren jarduneko lan garrantzitsuen den aldetik.
- 5.6. Merkataritzako marjinaren kontzeptua eta hura kalkulatzeko modua: salmenta-prezioa eta merkataritzako marjina, salmenta-prezioa alda dezaketen elementuak (deskontuak, ontziak, etab.).
- 5.7. Merkataritzako marjinak kalkulatzeko.
- 5.8. Salmenten fakturak egitea, deskontuen, garraio-gastuen eta ontzien eraginak aintzat hartuta.
- 5.9. Salmenta-eragiketen kobrantza-agiriak betetzea.
- 5.10. Salneurria edo prezioa: salneurria finkatzeko sistemak.
- 5.11. Sustapen-politika: publizitatea, promozioak, salmenta zuzena, "merchandisinga", harreman publikoak, komunikabideen efizientzia.
- 5.12. Produktuaren banaketa: sareak, motak.

6. MULTZOA: Giza baliabideen kudeaketa

- 6.1. Pertsonaleko saila: giza baliabideak eta enpresa, giza baliabideak kudeatzeko ereduak, funtzioak, egitura. Lanpostuak eta lanpostu horiek bete behar dituzten langileen lanbide-profilak deskribatzea.
- 6.2. Langileen garrantzia enpresan.

7. MULTZOA: Enpresaren kontabilitatearen kudeaketa

- 7.1. Kontularitza-prozesurako sarrera: kontularitza, ondarea, kontularitza-liburuak, oinarritzko kontularitza-zikloa eta kontularitzako terminologia.
- 7.2. Ondare-elementuak multzokatzeak eta izendatzeak duen erabilgarritasuna inbentarioak egiteko, eta enpresa baten baino gehiagoren ondareak aztertzea eta konparatzea.
- 7.3. Kontularitzaren kudeaketa arautzen duten legeek ezarritako zenbait erregistro-alderdi identifikatzea.
- 7.4. Kontabilitate-plan orokorra eta enpresen kontularitzako erregistro-sistema arautzeko eginkizuna.

8. MULTZOA: Inbertsio-eta finantzazio-beharrizanen kudeaketa. Enpresaren bidegarritasuna

- 8.1. Inbertsio-plana eta finantzazioa: aktiboak eta finantzazio-iturriak. Enpresaren bideragarritasuna.

9. MULTZOA: Negozio-ideiaren garapenaren ahozko azalpena

- 9.1. Azalpena prestatzen:
 - 9.1.1. Proiektuaren alderdi nagusiak adieraziko dituen laburpen bat egin behar da.
 - 9.1.2. Taldekide bakoitzak zer zati azalduko duen erabaki behar da.
 - 9.1.3. Azalpenaren egiazko proba bat egin behar da, azalpena egingo den moduan, hau da, denborak kontrolatuta eta erabiliko diren bitarteko teknikoak erabilia.

9.2. Azalpena egitean:

- 9.2.1. Ahozko adierazpena zaindu behar da, ozen, garbi eta erritmo onean hitz egin behar da, azkarregi aritu gabe, eta moldatu egin behar da ahots-tonua, ideia eta komentario jakinak nabarmentzeko.
- 9.2.2. Hitzik gabeko adierazpenak zaindu behar dira, azalpena entzuten ari diren pertsonen begiratu behar zaie, eta testuren bat irakurri behar baldin bada azalpenaren pasarteren batean, haiei zuzendu behar zaie begirada noizean behin.
- 9.2.3. Ordena egokian azaldu behar dira ideiak, azalpenerako egin den gidoia aintzat hartuta.
- 9.2.4. Aurkezpen entretenigarria egiten saiatu behar da, hura aztertuko dutenen interesa pizteko. Proiektuarekiko ilusioa erakusteak handitu egin dezake azalpena entzuten duen pertsonaren motibazioa.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

METODOLOGIA:

Ikaslearen parte-hartze aktiboan eta autonomoan oinarritutako metodologia izango da ardatz nagusia. Proiektu bat gauzatu beharko da taldeka urte guztian zehar, tarteko helmuga txikiak zehaztuta. Lan egiteko era nagusia proiektu horri jarraituaz izango da. Programa honen bitartez garrantzi berezia emango zaio ekintzailetasuna lantzeari.

Ekintzailetasuna lantzeko START Innova proiektuaren ildoak jarraituko dira. Honen bitartez informazio bilaketa, aukeraketa eta sintesia landuko da, beti ere gaitegiko materiari lotuta. Honetaz gain, informazio eta ezagutza hori ahal bezain azkar aplikatu nahi da, zuzenean enpresa proiektura eta beraien hurbileko errealitatera gerturatuz. Tarteka aurkezpenak ere egingo dira, batez ere gaitasun komunikatiboak lantzeko, eta baita proiektua (edo bere zati ezberdinak) beste edonori aurkezteko moduan definitzeko.

Irakaslearen aurkezpenak edo/eta ikus-entzunezko materiala ere erabiliko dira, batez ere gaiaren sarrerak zehazteko edo kontzeptu berritzaileak aurkezteko.

Irakasleak jarraipen eta tutorizazio lanak egingo ditu irakas prozesuko zati autonomoenetan. Problemen ebazpena ere erabiliko da zenbait atal eta gai lantzeko.

Eztabaidak integratuko dira problemen zenbait ebazpenetan, irakasleak emandako egoera baten aurrean jarrera konkretu bat defendatzeko informazio, ezagutza eta argudioak landu beharko direlarik.

DENBORALIZAZIOA:

1.go ebaluzioa:

- 1.1. Ekintzailetasuna: Sormena, ekintzaile izaera, enpresari-ekintzailea, ekintzailetasuna
- 1.2. Enpresa ideia
- 1.3. Enpresa plana: Merkatu ikerketak, DAFO, Canvas
- 1.4. Enpresa sorrera
- 1.5. Enpresa antolaketa

2. ebaluzioa

- 2.1. Giza baliabideak
- 2.2. Merkaturatzea: Marketing saila

2.3. Kontabilitate hastapenak: liburu nagusiak

2.4. Enpresako finantzaketa

3. ebaluzioa

3.1. Enpresaren finantzaketa

3.2. Enpresako kontabilitatea II: Aktibitatearen informazioa

3.3. Enpresa erabaki hartzea

IKT BALIABIDEAK:

Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduera guztiak. Hau da ikasgela birtualaren helbidea: [Alexia Classroom](#)

- Ikasmaterial guztia eskura izango dute plataforman (testuak, gelako apunteak, bideoak, material gehigarria eta abar).
- Hiru plataforma interaktibo erabiliko dira:
 - Startinnova proiektuaren web gunea: edukiak lantzeko, ariketak egiteko eta ebaluaziorako
 - www.ekonomiaetazergak.eus webgunea edukiak lantzeko, ariketak egiteko, jolasetarako eta ebaluaziorako.
 - Islasim jokoa, isla bat kuden ikasitako guztiak praktikan jartzeko modu ludiko batean.
- Ikasleek egin eta entregatu beharreko lanak word edo Google.docs formatuan izan beharko da. Beraien lan egiteko plataforma Drive izango da. Drive bitartez gauzatu beharko dituzte lan guztiak, ofimatika paketea erabilita. Horretaz gain, Canva edo Lucidchart erabiliko dituzte enpresa proiektuko Canvas eredua gauzatzeko. Irudi ediziorako programak ere erabiliko dira (Inkscape, Gimp, online plataformak).
- Ikasgelan lan egiteko Chromebooka edo ordenagailu bat beharrezkoa izango da. Lana modu autonomoan egingo dutenez, IKT 2 gela erabiliko dute gailurik ez dutenek.
- Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira klaseak zuzenean jarraitzeko. Horretarako, beharrezkoak diren sarbideak Alexia Classroomen izango dira.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
• <u>Enpresa Proiektua</u>: Talde bakoitzak bere enpresa proiektua jarriko du martxan. Materiaren zati ezberdinak ikusten diren neurrian, materia horri lotutako enpresaren zatia garatuko da proiektuan. Tarteko helmuga eta pauso txikien bitartez landuko da (ez da bukaerako entregarako utziko guztia). • <u>Enpresaren Portfolioa</u>: Gaitegiaren izaera dela eta, enpresaren inguruko zenbait kontu ez dira proiektuan sartuko. Momentuan ariketa	• Portfolioa: Portafolioa %80 ○ Portafolioa osatzerakoan, taldekako zein bakarkako lanak eskatu ahal izango dira. ○ Lanak eskatzen diren datetan ez entregatzeak penalizazioa izango du.

konkretuen bitartez landuko dira. Ariketa hauek burutu eta entregatu egin beharko ditu taldeak ebaluatzeko. • <u>Portfolio indibiduala</u>: Materia dela eta, edo irakaslearen erabakiz, portfolioko ariketak taldeka beharrean banaka egin ahal izango dira, indibidualki ebaluatuko direlarik.	○ Laneko atalen bat ez entregatzeak, asignaturaren suspentsoa ekarriko luke. • Jarrera %20 • Portzentaia bakoitzean, gutxienezkoa atera behar da irakasgaia gainditzeko.
---	--



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA						KODEA: 013379	2021-22	
ARLOA	INGELESA						DATA	2021.09.02	
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4	BATX 1	BATX 2 x

1 ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA

- 1.– Hainbat erabilera-eremutako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea.
- 2.– Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea.
- 3.– Atzerriko hizkuntzaren oinarrizko ezaugarri sozialak eta kulturalak ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko jarrera positiboa eta begirunea erakusteko.
- 4.– Hizkuntzaren erabilera sozialak aztertzea, gogoeta eta kritika eginez.
- 5.– Hizkuntzak, hainbat jatorri, hizkuntza eta kulturatako pertsonen elkar komunikatzeko eta ulertzeko tresna direla positiboki balioestea.
- 6.– Atzerriko hizkuntzaren osagai soziolinguistiko, diskurtsibo eta gramatikalen gainean gogoeta egitea, kontzeptu eta prozedura egokiak erabiliz, ahozko testuak eta testu idatziak hobeto ulertzeko eta ekoizteko.
- 7.– Arte- eta literatura-testuak gero eta modu autonomoagoan irakurriz gozatzea, beste mundu eta kultura batzuk ezagutzeko, eta sentsibiltate estetikoa garatzeko.
- 8.– Teknologia eta informazio-iturriak autonomiarekin, espiritu kritikoarekin eta jarrera etikoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta lantzeko.
- 9.– Hizkuntza eta irakasgai guztietan ikasitako komunikazio ezagutzak eta estrategiak erabiltzea, hizkuntzen arteko transferentzia bultzatzeko eta ikasteko autonomia garatzeko.



2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
5	0. Getting Started	15	3. That's Entertainment	10	5. Law and Order
10	1. Going Places	15	4. World of Work	10	6. Living Green
10	2. A Healthy Future	saio		saio	

Horiek dira landuko diren 7 unitate didaktikoak. Bakoitzean 5 multzo jorratuko dira:

1. Listening and Speaking. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta solasean aritzea.
2. Reading and Writing. Diskurtsoen ugaritasuna: irakurtzea eta idaztea.

	1.ebal.	2.ebal.	3.ebal.
Reading	0. A Blog 1. Star for a Day 2. A Feature Article	3. An Interview 4. A Short Story	5. An Online Magazine 6. A Report
Writing	- Selectivity or Pre-test proposals - Unit 2. <u>An opinion essay</u> - Composition about "Short Stories, by Oscar Wilde" - (Unit 1. A description of a place)	- <u>A narrative</u> - Unit 4. A formal letter or e-mail - Unit 3. A film /book review (about "A Foreigner in NY")	- Unit 5. <u>A for and against essay</u> - (Unit 6. A summary)

3. Literatura-diskurtsoa. 2. eta 3. hiruhilabeteetan bereziki errefortzatu egingo da, ikasleek ingelesez sortutako obra literario egokitu bat irakurriko dute-eta.
4. Use of English: Grammar and Vocabulary. Hizkuntzari buruzko gogoeta.

	1.ebal.	2.ebal.	3.ebal.
Grammar	0. Verb tenses review 1. Present perf. cont. & past perf. cont. 2. Conditionals & Time & Wish clauses	3. Passive & Causative 4. Relative clauses (defining and non-defining)	5. Modal and Modal Perfect verbs 6. Reported Speech
Vocabulary	1. Travel Compound Adjectives Prepositional Phrases 2. Medicine Nouns and Preps. Phrasal Verbs	3. Films Collocations Gerunds & Infinitives 4. Work & Jobs Pronouns Common Expressions	5. Law & Order Phrasal Verbs Idioms 6. The Environment Vbs and Prepositions Binomial Expressions

5. Civilization. Hizkuntzaren dimentsio soziala.



3 IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

Unitate didaktiko guztiek egitura berdina dute (“Review” edo 0 unitateak salbu):

- Sarrera-motibazio iharduerak
- Ikasketa prozesuaren garapenerako iharduerak: Introductory Vocabulary and Listening / Reading / Grammar / more Vocabulary, Listening and Speaking skills linked to the topic / Writing / Revision and extension of Vocabulary / and Life skills. Vocabulary, Grammar, Listening and Speaking skills, Writing, Life skills
- Ikas prozesua norberak garatzeko edo eta norberaren ebaluaziorako ariketak: Workbook exercises.

Irakasleak material digitala erabiliko du gelan euskarri bezala. Ikasgelak horretarako egokituta daude, proiektorea bertan izanik.

Ikasleek talde handian, txikian (2-4 ikasle) nahiz banaka egingo dute lan.

4 BALIABIDEAK

Eguneroko lanerako **Advantage 2** (Burlington) metodoa erabiltzen dugu. Metodo honek material inprimatua eta digitala konbinatzen ditu, eta hau bereziki efikaza bihurtu zen 2019-20 ikasturtearen bukaeratik, pademiak bultzatuta etxean lan egiteko modu egokia izanik.

- Gelan liburu digitalak (*Student's Book & Workbook*) proiektatzen dira pantallan. Irakasleak paperean daukan guztiaren bertsio digitala dira. Horrek presentazio teorikoak, ariketa guztien zuzenketak, entzuketak eta beste gehigarri asko barneratzen ditu, hala nola:

Vocabulary presentations & practice

Grammar tutor & practice

Integrated videos & slideshows (communication videos, culture videos, info videos, life skills...)

- Ikasleek gelan *Student's Book* eta *Workbook* liburu fisikoak izango dizutze. Pandemia konfinamendua geroztik, material honen beraren bertsio digitala zabaldu zuen Burlington argitaletxeak ikasle guztientzat.

Bestalde, gainera Interactive Student delako baliabide digitala erabil dezakete, gelako lana osatuz.

Honoko tresnak dira erabilgarri:

Flipped Classroom: klasean azalduko den teoria (Vocabulary & Grammar sailak) aurrez ikusteko aukera ematen die, edota klasean azaldu ondoren etxean errepasatzeko.

Extra Practice: sendotze ariketa gehigarriak (vocabulary practice, wordlists and activities & grammar practice)

Extra Resources: listening practice, Grammar Bank (gramatika laburpen sintesiak) & videos.

Interactive Student, <https://webbook.burlingtonbooks.com> weborrian dute eskuragarri (ikasturte hasieran sartutako kodearen bidez bakarrik).

- Irakasleari ere LMS (Learning Management System) edo ikasleen jarraipena egiteko aukera ematen dio *Advantage*ek. Konfinamendu osoko egoeratan erabilgarri bilaka daiteke.

Bestelako zenbait material ere aipatu behar ditugu: Oiertzo English Mintegian sortutako apunte-ariketa bilduma (**Photocopy Book 2**), Unibertsitatara sartzeko **hautafrogetako testu eta azterketak** (EHUkoak nahiz kanpokoak), bi **irakurgai** (ikasleen hizkuntza mailara egokitutako ingeles literaturako bi obra: “*Short Stories, by Oscar Wilde*” eta “*A Foreigner in New York*”, **filmeak** (bi urtean), **abestiak** eta beste.

Amaitzeko, **Alexia Classroom** plataforman material osagarrien atal handi bat eskura izango dute, hots, *Advantage 2* izan ezik beste guztia. Bertan txertatua, Meet erabiliko da konfinatutako ikasleek klase saioak etxetik jarraitu ahal izateko.

TESTU LIBURUA: Advantage 2

ARGITALETXEA: Burlington Books



5 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideak:

1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea.
2. Ahozko aurkezpenak egitea.
3. Ahozko harremanetan parte hartzea.
4. Testu idatzi konplexuetako ideia orokorra eta hainbat informazio ulertzea.
5. Plangintza bati jarraituz testu idatziak ekoiztea.
6. Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea, ezagutza soziolinguistikoak erabiliz.
7. Era guztietako komunikazio-egoeretan esamolde eta balioespen diskriminatzaileak saihestea.
8. Hizkuntza-ezagutzak gogoeta eginez eta modu autonomoan identifikatzea eta erabiltzea, testuak interpretatu eta ekoiztean.
9. Literatura, gozatzeko eta ikasteko erabiltzea.
10. Hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan, eraginkortasunez eta espiritu kritikoarekin erabiltzea.
11. Hizkuntza guztietan burututako ikasprozesuen gainean gogoeta egitea.

Bildumako ebaluazioan erabiliko diren tresnak anitzak izango dira:

- Hiruhilabete bukaerako azterketa.
- Etxerako eguneroko lan idatziak: Workbookeko ariketak, Student's Bookeko ariketak, ahozkoak prestatzea, informazioa bilatzea... Etxeko lanak egin gabe etortzea penalizatu egingo da.
- Bi idazlan gutxienez hiruhilabete bakoitzean, epe barruan entregatuak eta gelan argitutako irizpideen arabera eginak.
- Irakurritako obra literarioari buruzko azterketatxoa (1. eta 2. hiruhilabeteen)
- Gelako lan-produkzioa eta jarrera.

Kalifikazio irizpideak: Ebaluazioa etengabea eta jarraia da. Hori dela eta, lehen aipatutako tresna guztiak erabiliko dira. Ez da azterketen errekupeziarik izango: hurrengo azterketak aurrekoa gainditzeko aukera emango du.

Ikasturte amaierako notan, aurreko ebaluazioetan lortutako notak kontuan hartuko dira, eta batez bestekoari erreparatuko zaio, kurtsoan zehar izandako lan-ekoizpena eta jarrera ahaztu gabe. Beraz, 3. ebaluazioko nota ezin da automatikoki bukaerako notarekin identifikatu. Irakaslearen esku geratzen da kurtso amaierako batez besteko notaren xedapena.

Ikasturteko nota igo nahi izanez gero (aprobatua izanda, noski), 1. deialdiko azterketa finalera aurkezteko aukera du nahi duenak.

(Ikus ikasleei banatzen zaien dokumentua, bertan aipatzen dira irizpide eta tresna hauei buruzko zehaztasun gehiago).

6 BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Bildumako ebaluazioa jarraia edo etengabea izango da. 1. eta 2. trimestreko azterketan errekupeziarik ez da izango. Ebaluazio berriak aurreko azterketa gainditzeko aukera ematen du. 3. ebaluazioko azterketa gainditzen ez duenak, 1. deialdiko azterketara aurkeztu beharko du, hau kurtso osokoa izanik.